

PRODUKTUEN INGURUMEN- ETIKETAK

Produktuak hobetzeko
ingurumen-irizpideei buruzko gida



Herri-baltzua
Sociedad Pública del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

ARGITARALDIA:

2.a argitalpena, gehitua eta berrikusia. 2011ko azaroa

ARGITARATZAILEA:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Urkixo Zumarkalea, 36 - 6. solairua (Bizkaia emparantza) 48011 Bilbo

Tel.: 94 423 07 43 • Fax: 94 423 59 00

info@ihobe.net • www.ihobe.net

EDUKIA:

Dokumentu hau egiteko, Ingurumenaren Kideak Ingenieria S.L.

enpresaren lankidetzatza izan dugu.

DISEINUA ETA DIAGRAMAZIOA:

Canaldirecto • www.canal-directo.com



Liburu honen edukia, oraingo edizioan, lizentzia honetan argitaratu dira:

Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 3.0 Unported

(informazio gehiago <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>).

Dokumentu hau egiteko, % 100ean birziklatutako papera erabili da, klororik gabea.

Erabilitako paperak egiaztagiri hauek ditu: Aingeru Urdina, Europako Iparraldeko Beltxarga eta Europako Etiketa Ekologikoa.



PRODUKTUEN INGURUMEN- ETIKETAK

Produktuak hobetzeko
ingurumen-irizpideei buruzko gida



Herri-baltza
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA



Pilar Unzalu Pérez

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua
Eusko Jaurlaritza

Pilar

AURKEZPENA

Azken urte hauetan, kontsumitzaileen artean, erosten dituzten produktu eta zerbitzuen ingurumen-ezaugarrien aurrean sentikortasun handiagoa erakusteko eta produktuei buruzko informazio gehiago eskatzeko joera zabaltzen ari da, era horretan modu iraunkorragoan kontsumitu ahal izateko. Bestalde, produktuen fabrikazioan eta hornikuntzan jarduten duten enpresetan, beren produktuen ingurumen-abantailak merkatuan ezagutzera emateko beharra sortu da, eta, horretarako, ingurumenean eragin txikiagoa aitortzen eta bermatzen duten identifikatzaileak erabiltzen dituzte.

Enpresek eta kontsumitzaileek ingurumen-informazioa emateko bereizgarrien eta mekanismoen gainean agertzen dituzten nahaste eta ezjakintasuna eragozpen dira produktuen eta zerbitzuen merkatu iraunkorra garatu ahal izateko. Gaur egun, munduan, 400etik gora ingurumen-etiketa desberdin daude, eta, hala, enpresek beren produktuentzat egokiena den sistema identifikatzeko orduan, lan nekeza egin behar dute.

Informazioa egoera horri irtenbidea emateko gakoetako bat da. Horregatik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta lhobek zuen eskura jarri nahi dute Produktuen Ingurumen Etiketen Gida (Produktua hobetzeko ingurumen-irizpideak). Gida honetan, etiketak edo ingurumen-aitorpena ematen dituzten sistema guztiak jaso ditugu zehatz-mehatz, eta espero dugu enpresa eta erakundeei honen bidez erraztea bakoitzak dituen beharretara eta dauden baliabideetara hoberen egokitzen den sistema aukeratzea.

Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programak eskaintzen duen prestakuntza tekniko eta espezializatua Ingurumen Sailak, lhobe bere sozietate publikoaren bitartez, erakundeei ekoetiketak lortzeko sistemei buruz eskaintzen dien aholkularitza-zerbitzuaren osagarria da, eta ekimen horretan 200 euskal enpresa inguruk parte hartzen du dagoeneko.

Beste alde batetik, Administrazio Publikoak funtsezko eginkizuna du, bai ingurumen-irizpideak betetzen dituzten industri produktuen eskaintzaren eta produktu mota horren eskaeraren arteko bitartekari bezala, bai produktu iraunkorrak erosteko eredu garri eta eroste horren bultzatzaile moduan. Erosketa eta kontratazio publikoa Europar Batasuneko BPGren % 16 ingurukoa dela jotzen da. Hori merkatuaren zati handi bat da, eta agintari publikoek ingurumen-iraunkortasunaren irizpideak sustatzeko erabili behar dute.

Illo horretan, merezi du euskal Administrazio Publikoak Erosketa Publiko Berdeari bultzada emateko egindako lana nabarmentzea. Euskal Autonomia Erkidegoko 89 erakunde publikok abian jarri dituzte mota horretako ingurumen-jardunbide egokiak, 2010eko Ingurumen Eredugarritasuna EAEko Administrazio Publikoan izenburuko txostenean jaso direnak.

Helburua Euskadin ingurumenaren aldetik iraunkorrak den kontsumoa lortzea da; eta, horretarako, funtsezkoa da eragile guztien esku-hartzea: administrazio publikoa, enpresak, erakundeak eta herritarrak.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	03 orria
SARRERA	07 orria
01 INGURUMEN-AITORPENA EMATEKO SISTEMEN SAILKAPENA	11 orria
02 NAHITAEZKO LEGEZKO MARKAKETAK: INGURUMEN-BALORAZIORIK EZ DUTENAK	13 orria
03 NAHITAEZKO LEGEZKO MARKAKETAK: INGURUMEN-BALORAZIOA DUTENAK	21 orria
04 BORONDATEZKO LEGEZKO MARKAKETAK, INGURUMEN-BALORAZIORIK EZ DUTENAK: KUDEAKETA-SISTEMA INTEGRATUAK	35 orria
05 BORONDATEZKO MARKAKETAK: INGURUMEN-BALORAZIOA EZ DUTENAK	53 orria
06 BORONDATEZKO MARKAKETAK: INGURUMEN-BALORAZIOA DUTENAK	59 orria
07 BORONDATEZKO MARKAKETAK: EKOETIKETAK	69 orria
08 BORONDATEZKO MARKAKETAK: KUDEAKETA-SISTEMAK	127 orria
09 ZIURTAGIRI EKOLOGIKOAK ESKURATZEKO LAGUNTZAK	137 orria
10 ONDORIOAK	141 orria

SARRERA

Oro har, produktuen ingurumen-portaera ez da izan kontsumitzaileek produktu jakin bat erosterakoan kontuan hartu izan duten baliorik. Alderdi hori, beraz, gaiari buruz dauden araudiak betetzera mugatzen zen. Hala eta guztiz ere, azken urteetatik hona, kontsumitzaileak gero eta sentikortuago daude eta, bestalde, egiaztatu da gizakiok planetan zabaltzen ari garen ingurumen-eragina; hala, horren ondorioz, kontsumitzaile mota berri bat sortu da, kontsumitzen dituen produktuen eta erabiltzen dituen zerbitzuen ingurumen-portaerari buruzko informazioa eskatzen hasi dena.

Horretarako, hainbat mekanismo garatu dira azkenaldian, produktuen eta zerbitzuen ingurumen-portaerari buruzko informazioa eskaintzeko helburuaz. Sistema horiek, hainbat produktuk dituzten sinbolo edo etiketen bidez irudikatuta, lehendik dauden beste sinbolo batzuen osagarri dira, izan ere, zenbaitetan lehengo sinbolo horiek ingurumenari lotutako esanahia edo jatorria izan arren, ez dute informaziorik eskaintzen eta ez dituzte ingurumena gehien errespetatzen duten produktuak identifikatzen, legezko markaketa bete besterik ez baitute egiten.

Horrek guztiak nahastea sorrarazten du, ez bakarrik kontsumitzaileen artean —ingurumenaren aldetik iraunkorren diren produktuak aukeratzeko orduan—, baita enpresa fabrikatzaileen artean ere —zalantzak baitituzte eska ditzaketen aitorten-sistemen aurrean—.

Horri beste alderdi bat gehitu behar zaio, alegia, produktuetan ingurumen-baliorik ez duten irudi eta sinboloak agertzen hasi direla, horrek are gehiago zailtzen baitu kontsumitzaileek behar bezalako informazioa jaso eta produktuak identifikatzea. Horrez gain, grafiko mota horiek, askotan, produktuaren ingurumen-ezaugarri onak aitortzen dituzten bereizgarri ofizialen antza izan dezaten diseinatuta daude, nahita. Kontsumitzailearentzat engainagarria den beste informazio mota bat da jadanik balio erantsia izateari utzi eta legezko betebeharrak bihurtu diren ingurumen-alderdiei balio ematea (adibidez, gaur egun merkaturatzen diren aerosol askotan agertzen den «CFCrik gabe» markaketa, izan ere, 1989. urteaz geroztik, Europako aerosolek, kontsumorako direnean —produktu mediko batzuk izan ezik, hala nola asmaren kontrako inhalagailuak—, ez dute CFCrik eduki behar).

ATAL BAKOITZAREN HASIERAN ESKAINTZEN DEN TAULA-EREDUA

AITORPENA EMATEKO SISTEMA MOTA

irudia	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai	Ez
		Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
	OHARRAK:		

Enpresa askok eskaera ekologikoak izandako gorakadari probetxua ateratzen diote, produktuetan eskakizun diren eta desiragarriak diren ezaugarrien inguruan merkatuan dagoen ezjakintasunez baliatuta, eta beren produktuek berez ez dituzten ezaugarriak sustatzen dituzte. Publizitatearen munduan, pagotxa handi bihurtu dira, azkenaldian, produktuei lotutako argudio ekologikoak. Alabaina, argudio ekologikoak bereizi gabe eta azaletik erabiltzeak berekin ekarri du herritarrek pentsatzea «ekologikoa», «biologikoa», «organikoa», «naturala», «biodegradagarria», eta era horretako kalifikatzaileak nolabaiteko kontrol ofiziala duten irizpide zientifiko partekatuek bermatuta daudela.

Beraz, produktuen aitorten-sistema hobeto identifikatzeko egin beharreko lehen urratsa eskura izan ditzakegun sistema guztien ezaugarriak ezagutzea da.

Ingurumen-aitorpena egiteko dauden sistema guztiak ulertzen eta elkarren artean alderatzen ahal den neurrian laguntzeko, sistema horiei buruzko informazioa eta sistemak bereizten dituzten ezaugarriak egituratu ditugu.

Atal bakoitzaren hasieran, aitorten-sistema horiek definitzen dituzten funtsezko alderdiak dituen taula bat jarri dugu, eta bertan nabarmendu dira atalean deskribatzen den sisteman betetzen diren alderdiak.

Sistema bakoitza definitzeko, alderdi hauek kontuan hartu dira:

- *Irismena*: alderdi honen bidez adierazten da aitortpenari lotutako sistemak eta informazioak zeri egiten dioten erreferentzia, produktuaren berariazko ingurumen-ezaugarriei edo produktua fabrikatzen duen enpresaren jarduerari.
- *Markaketa*: sistema indarrean dagoen legeren batek arautzen duen (produktua sinbolo horrez markatzea legezko betebeharra da) edo markaketa borondatezkoa den adierazten du. Borondatezko informazioa, halaber, normalizatua egon daiteke (adibidez, ISO 14020) edo ez, eta zehaztasun hori sistema garatzean adieraziko da, ez sarrerako taula honetan.
- *Ingurumen-informazioa ematen du*: sinbolo edo logotipoak produktuaren, zerbitzuaren edo enpresaren ingurumen-portaera hobeari buruzko informazioa ematen duen edo ez adierazten du.
- *Informazioaren irismena*: ingurumen-portaerari buruzko informazioa ematen denean, informazio hori produktuaren/zerbitzuaren bizi-zikloaren fase bati buruzkoa izan daiteke, edo bizi-ziklo osoari buruzkoa.
- *Baliozkotzeko modua*: sistema eta ziurtagiria hirugarren erakunde batek balioztatuta dauden edo enpresak kanpoko kontrolik gabe egindako autoadierazpena den adierazten du.




01

INGURUMEN-AITORPENA EMATEKO SISTEMEN SAILKAPENA

Produktu batean aurki ditzakegun sinboloak edo etiketak bi multzotan sailka daitezke era eskematikoan: indarrean dagoen legeren batek xedatutakoari erantzuten diotenak (legea betetzea), eta borondatez erabiltzen direnak (borondatezko markaketa). Legeriaren arabera, sinbolo edo etiketaren baten bitartez produktu bat merkaturatzea eta markatzea nahitaezkoa izan daiteke edo ez, eta zenbaitetan, sinbolo edo etiketa horiek erabiltzea borondatezkoa da, legea betetzen dela frogatzeko.


Borondatezko sinboloen artean hainbat multzo bereiz daitezke, hala nola, sinbolo edo etiketaren beraren bidez ingurumen-balorazio bat egiten dutenak edo egiten ez dutenak, enpresak kudeaketa-sistema bat duela adierazten dutenak, edo oro har ekoetiketak izendatzen direnak; azken hori da multzorik garrantzitsuena eta ezagunena, borondatezko ingurumen-aitorpenei dagokienez.

Laburbilduta, hau izan daiteke **aitorpen-sistemak sailkatzeko modu bat**:



02


NAHITAEZKO LEGEZKO MARKAKETAK: INGURUMEN-BALORAZIORIK EZ DUTENAK



Kontsumitzaileen segurtasuna, osasun publikoa eta babesa bermatzearren, fabrikatzaileek ekoizten dituzten produktuek dagozkien sinboloak eta/edo etiketak eduki behar dituzte, era horretan kontsumitzaileari jakinarazten baitzaio produktuak betetzen dituela erabileraren segurtasunari buruz eta bestelako oinarritzko alderdiei buruz legeak ezarritako estandarrak.

Marka hauek ez dute balio ingurumenaren ikuspegitik iraunkorragoak diren produktuak identifikatzeko; hala ere, adibiderik ohikoenak jaso ditugu, identifikatu ahal izateko eta helburu hori betetzen dutenetatik bereizteko.

2.1. SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEN ETIKETAK

SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEN ETIKETAK			
	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:			

Legezko markaketak ► Nahitaezko legezko markaketa ► Ingurumen-baloraziorik gabeak

Merkatuan badaude jadanik zenbait material eta substantzia arriskutsuez osatuko produktuak, eta, beraz, substantzia horiek erabiltzea eta manipulatzeko arriskutsua izan daiteke osasunarentzat. Horrelakoetan, administrazioak behartzen du industriak substantzia arriskutsu horien erabilera fabrikazio-prozesuetan arautzera. Era berean, langileentzat, kontsumitzaileentzat eta ingurumenarentzat arriskutsuak diren substantziak identifikatzeko beharra ezartzen du, horien izaera kaltegarria berehala ezagutu ahal izateko.

Substantzia arriskutsuak ontziratzea eta etiketatzea 1967. urtean arautzen hasi ziren legez Europar Batasunean, EEE/67/548 Direktibaren bidez¹; direktiba hori 1272/2008/EE Erregelamenduren bidez aldatu eta indargabetu zen gero². Estatuari dagokionez, indarrean dago 363/1995 Errege Dekretua³ (hainbat aldiz aldatu dena; azken aldaketa, hain zuzen ere, 717/2010 Errege Dekretuaren bidez egin da⁴).

Etiketa mota horretan oso ohikoa da piktogramak erabiltzea, substantziaren ezaugarri arriskutsuez ohartarazten gaituzten arrisku-sinboloak, alegia. Etiketa horiekin batera, R eta S letrak dituzten esaldiak ager daitezke. R letra substantzia arriskutsuen berariazko arriskuez ohartarazteko erabiltzen da, eta S letra substantzia horiekin arreta handia izan behar dugula aholkatzeko erabiltzen da.

¹ Kontseiluaren 67/548/EEE Direktiba, 1967ko ekainaren 27koa, substantzia arriskutsuak sailkatzeari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruzko lege-, arau- eta administrazio-xedapenen hurbilketa buruzkoa.

² Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1272/2008/EE Erregelamendua, 2008ko abenduaren 16koa, substantzia eta nahasketak sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa.

³ Martxoaren 10eko 363/1995 Errege Dekretua, substantzia berriak jakinaraztea eta substantzia arriskutsuak sailkatzea, ontziratzea eta etiketatzea arautzen duena.

⁴ Maiatzaren 28ko 717/2010 Errege Dekretua, martxoaren 10eko, 363/1995 Errege Dekretua (Substantzia arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzeari buruzko Erregelamendua onartzen duena) eta otsailaren 28ko 255/2003 Errege Dekretua (Prestatu arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzeari buruzko erregelamendua onartzen duena) aldatzen dituena.

SUBSTANTZIA ARRISKUTSUEN PIKTOGRAMAK ETA BEREN ESANAHIA

PIKTOGRAMA	ARRISKUAREN ADIERAZPENA
	E Lehergaiak: R2-R3
	O Erregarriak: R7-R8-R9
	F Sukoia: R10 F Erraz sutzen direnak: R11-R15-R17 F+ Oso sukoiak: R-12
 	Kartzinogenikoak: R40-R45-R49 Mutagenikoak: R46-R68 Toxikoak ugalketarako: R60-R61-R62-R63
	C Korrosiboak: R34-R35
	XI Narritagarriak: R36-R37-R38-R41 X Kaltegarriak: R20-R21-R22-R65-R68 Sentikortzaileak: R42-R43
	T Toxikoak: R23-R24-R25-R39 T+ Oso toxikoak: R26-R27-R28-R39
	N Arriskutsuak Ingurumenarentzat: R50-R51-R52-R53-R54-R55-R56-R57-R58-R59

MUNDU OSOAN HARMONIZATUTAKO SISTEMA (MHS) GLOBAL HARMONIZED SYSTEM (GHS)

363/1995 Errege Dekretuan jasotako etiketen sailkapena eta horien inguruko eskakizunen ordez, Produktu Kimikoak sailkatzeko eta etiketatzeko Mundu Osoan Harmonizatutako Sistema —MHS, edo GHS, ingelesezko siglak— ezartzeko araudi bat emango da. Gainera, REACH Erregelamenduak beharrezkoa du Nazio Batuen Mundo Osoan Harmonizatutako Sistema hau, substantziak eta nahasketak sailkatzeko, etiketatzeko eta ontziratzeke.

MHS sortzeko erabakia Agenda 21eko 19. atalean oinarritu zen. Nazioartean harmonizatutako irizpideak adosteko lan teknikoa egin eta gero, MHSren lehen zirriborroa onartu zen 2002. urtean. Gaur egun, laugarren zuzenketa egiten ari zaio MHSri.

http://live.unece.org/trans/danger/publi/ghs/ghs_rev04/04files_e.html

MHSan egiten den proposamenean, sailkatzeko irizpide berriak, piktograma berriak eta etiketatzeko letra berriak gehitu dira; horrez gain, Europako araudiaren barruan jadanik dauden elementuak ere kontuan hartu dira.

Alabaina, MHSak barnean hartzen ditu, bakar-bakarrik, toxikotasunak ingurune urtarrean dituen eraginak (3 kategoria toxikotasun akutuarentzat, eta 4 kronikoarentzat), eta EBren sailkapenean, aldiz, kontuan hartu dira eragin toxikoak inguru urtarrean eta lehortarrean, baita faunak, florak eta lurzoruko organismoek jasan ditzaketen eragin negatiboak ere, eta produktuak ozono-geruzarentzat duen arriskua adierazteko esaldi bat ere gehitu du. Batzordeak berraztertzen eta ekarpenak egiten jarraitzen du, eta, beraz, gai hauek eta beste gai batzuk kontuan hartuko dira etorkizunean egin daitezkeen zuzenketeetan.



MHS hainbat munduko eskualde batzuetako hainbat herrialdetan erabiltzen ari da dagoeneko. Europar Batasunean, 67/548 Direktiba aldatzeko proposamena egin da, egun erabiltzen diren sinboloak proposamen berriaren arabera aldatzeko. 2011. eta 2015. urteen artean, MHS sistema aurrekoaren ordez ezarriko da pixkanaka. Ondorioz, segurtasunari buruzko informazio-orria guztiz desberdina izango da.

ARRISKUAK GIZA OSASUNARENTZAT


ARRISKU MOTAK ETA ARRISKUEN KATEGORIAK*	ETIKETAREN ELEMENTUAK BERRIA**	ETIKETAREN ELEMENTUAK ZAHARRA
Toxikotasun akutua. 1. eta 2. kategoriak <ul style="list-style-type: none"> • Aho bidez • Larruzal bidez • Arnas bidez 		H300 H310 H330  R28 R27 R26
Toxikotasun akutua. 3. kategoria <ul style="list-style-type: none"> • Aho bidez • Larruzal bidez • Arnas bidez 		H301 H311 H331  R25 R24 R23
Mutagenotasuna hozi-zeluletan, 1A eta 1B kategoriak Kartzinogenotasuna, 1A eta 1B kategoriak Toxikotasuna ugalketan, 1A eta 1B kategoriak <ul style="list-style-type: none"> • STOT*** behin bakarrik eraginpean egon eta gero, 1. kategoria • STOT*** hainbat aldiz eraginpean egon eta gero, 1. kategoria 		H340 H350 H360 H370 H372  R46 R45, R49 R60, R61 R39 R48
Arnas sentikortasuna, 1. kategoria Toxikotasuna arnasteagatik, 1. kategoria		H334 H304  R42 R65
Mutagenotasuna hozi-zeluletan, 2. kategoria Kartzinogenotasuna, 2. kategoria Toxikotasuna ugalketan, 2. kategoria <ul style="list-style-type: none"> • STOT*** behin bakarrik eraginpean egon eta gero, 2. kategoria • STOT*** hainbat aldiz eraginpean egon eta gero, 2. kategoria 		H341 H351 H361 H371 H373  R68 R40 R62, R63 R68 R48
Toxikotasun akutua, 4. kategoria <ul style="list-style-type: none"> • Aho bidez • Larruzal bidez • Arnas bidez 		H302 H312 H332  R22 R21 R20
Larruzaleko korrosioa, 1A, 1B eta 1C kategoriak		H314  R34, R35
Begietako lesio larria, 1. kategoria		H318  R41

** 1272/2008/EE Erregelamenduaren VII. eranskinean jasotako elkarrekotasun-taula oinarritzat hartuta.

MHS sistema berrian erabiliko diren piktograma batzuen bertsio erraztua, piktogramen arteko alderaketa duena. Adibide moduan hartu behar da, EBren aurreko sistema ezin baita MHSra zuzenean aldatu.

ITURRIA: Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutua.

2.2. 'EE' ADOSTASUN-MARKAKETA

'EE' ADOSTASUN-MARKAKETA			
	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai	
		Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:			

Legezko markaketak ► Nahitaezko legezko markaketa ► Ingurumen-baloraziorik gabeak

Europar Batzordeak 'EE' markaketa ezarri zuen produktuen bereizgarri bat finkatzearren; bereizgarri horren bidez, fabrikatzaileak edo EBko bere ordezkariak aditzera ematen dute produktu bakoitzak 'EE' markaketari buruzko direktibek xedatutako segurtasun-arau orokorrak betetzen dituela. Europar Batasunetik kanpoko fabrikatzaileek inportatzaile europarrak beren ordezkari EBn izenda ditzakete. Hau da, 'EE' markaketaren bidez, fabrikatzaileak adierazten du ados dagoela fabrikatzaileari dagozkion produktuek bete beharreko eskakizunekin, markaketa ezartzen duten EBko direktibek agindutakoaren arabera.


Helburu nagusia Europako barne-merkatua gauzatzeko erraztasuna ematea da, funtsezkotzat jotzen diren eskakizunei kalterik egin gabe, produktuek pertsonentzat, etxeko abereentzat, eta ondasun edo/eta ingurunearentzat arriskurik ez sortzeko, Europar Batasuneko merkatuan kontrolak errazteko, eta ekonomi eragileek merkatuari dagokionez dituzten betebeharrak zehazteko, alferrikako kargarik ezarri gabe.

'EE' markaketa produktuaren gainean ipiniko da. Hori ezinezkoa bada, produktuaren bilgarrian itsatsiko da. Ikusgarria izan behar da, irakurgarria eta ezabaezina, eta dagokion organismoaren identifikazio-zenbakia izan behar du ondoan. Debeztatuta dago beste ikur batzuk jartzea, 'EE' markaketa eta ikur horiek esanahiaren nahiz formaren aldetik nahasten baldin badira. Produktuek beste marka edo zigilu batzuk eduki ditzakete, horiek eta 'EE' markaketa nahasten ez badira, eta 'EE' markaketa irakurri eta ikusteko aukera murrizten ez badute.

Europar Batasunak 'EE' markaketaren bidez lortu nahi du beste direktiba batzuk ere betetzen direla frogatzea; direktiba horiek, pertsonen osasun edo segurtasunean zuzenean eraginik ez badute ere, barnean hartzen dituzten produktuen ingurumen-arazoak murriztera bideratuta daude, hala nola 2009/125/EE Direktiba, energiarekin zerikusia duten produktuei ezarri beharreko diseinu ekologikorako baldintzei buruzkoa⁵. Horretarako, produktuek bete behar dituzten diseinu ekologikoaren inguruko hainbat irizpide definituko dira, eta adostasuneko 'EE' markaketa emateko orduan egiaztatuko dira.

⁵ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/125/EE Direktiba, 2009ko urriaren 21ekoa, energiari lotutako produktuei ezargariak diren diseinu ekologikorako baldintzak zehazteko esparrua xedatzen duena.

2.3. 'JANARIEKIN ERABILTZEKO' ETIKETA

JANARIEKIN ERABILTZEKO' ETIKETA			
	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai	
		Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:			

Legezko markaketak ► Nahitaezko legezko markaketa ► Ingurumen-baloraziorik gabeak

Europar Batasunean 1935/2004/EE Erregelamendua bete behar da⁶, kontsumitzaileak janarien eta janariak dituzten ontzien arteko elkarreraginaren ondorio izan daitezkeen arriskuetatik babesteko. Erregelamendu horren arabera, elikagaiak etiketatu behar dira eta elikagaien bizitzaren une batean horiek ukitu dituzten edo uki zitzaketen elementu guztiei buruzko informazioa eman behar da.

Erregelamenduan, bereizi egiten dira ontzi «aktiboak», hau da, elikagaietan eragina dutenak, beren ezaugarriak gordetzeko edo era egokiagoan kontserbatzeko (zenbaitek usainak edo kontserbagarriak gehitzen dizkiote gordetzen duten janariari), eta ontzi «adimentsuak», elikagaien egoera eta kalitateari buruzko informazioa eman dezaketenak.

Illo horretan, Europako organo legegileak berariazko xedapenak onartu ditu, ontziek janarien osaketan egindako aldaketen bidez elikagaiak galdu direla ezkutatzea edo janarien egoerari buruzko zalantzak sortzea saihesteko (ontzi «aktiboak» koloragarriak ere gehi diezazkiekete janariei).


Erregelamenduaren beste atal batzuk elikagaien trazabilitateari buruzkoak dira: trazabilitate-sistema bat ezarri da, hau da, elikagaiak ekoizteko eta merkaturatzeko prozesuan dauden etapak identifikatzeko eta aurkitzeko modu bat. Era horretan, elikagai edo ontzi baten kalitatea txarra dela edo horiek hondatuta daudela susmatuz gero, errazago identifikatu eta merkatutik kendu ahal izango dira.

«Janariekin erabiltzeko» esaldia edo horren sinboloa nahitaezkoak dira janaria uki dezaketen produktuentzat, eta biek adierazten dute produktua janariarekin erabil daitekeela, janaria kutsatu gabe edo giza osasunean arazorik sortu gabe.

⁶ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1935/2004/EE Erregelamendua, 2004ko urriaren 27koa, elikagaiak ukitzen dituzten material eta objektuak arautu eta 80/590/EEE eta 89/109/EEE Direktibak indargabetzen dituena.

03

NAHITAEZKO LEGEZKO MARKAKETAK: INGURUMEN-BALORAZIOA DUTENAK



Atal honetan azalduko ditugu produktuek zenbait alderditan duten ingurumen-portaerari buruzko informazioa ematen duten sistemak, lege zehaztutakoaren arabera erabili behar direnak. Oso tresna onak dira amaierako kontsumitzailearentzat, izan ere, sistema horiek erabiltzea nahitaezkoa izanik, erraz egin daiteke alderaketa merkatuan dauden modelo guztien artean.

Beraz, baliagarriak dira ingurumena errespetatzen duten produktuak identifikatzeko, eta, halaber, produktuen ingurumen-aitorpena egiteko sistema onak dira.


Mota honetako sistematik ezagunena «Energia-etiketa» izeneko da, produktuen ingurumen-portaera identifikatzera behartzen duena, produktuaren energia-eraginkortasuna neurtzen duen letra baten bitartez. Oro har, hainbat etiketa daude, kolore eta letra batez identifikatuta. Letrak A-tik hasi (eraginkorrenak) eta G-n amaitzen dira (eraginkortasun gutxienekoak), eta

azkenaldian maila gehiago gehitu dira, teknologiak oso azkar aurreratzen ari direlako eta fabrikatzaileek energia-eraginkortasuna azkar ere hobetu dutelako.

Sistema hauek «autoadierazpen» moduan markatu dira, izan ere, horiek arautzen dituzten direktibetan etiketen edukiak egiaztatzeko baliabideak xedatuta badaude ere, fabrikatzaileen eginkizuna eta ardura da etiketak sortzea eta produktuetan ipintzea.

PRODUKTUEN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA SAILKATZEKO SISTEMA


ERAGINKORTASUN HANDIAGOA



ERAGINKORTASUN TXIKIAGOA

3.1. ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO ETIKETA: ETXETRESNAK

ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO ETIKETA: ETXETRESNAK



IRISMENA:	Produktua	Enpresa
MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bai	
	Bizi-zikloaren fasea	Ez
	Bizi-ziklo osoa	
BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:		

Legezko markaketak ► Nahitaezko legezko markaketa ► Ingurumen-balorazioa dutenak

Hainbat Europako direktibak osatutako legeria zabalak arautzen du energia-etiketa Europan. Espainian, Europako direktiba horiek zenbait errege-dekretutan islatu dira, salgai jartzen diren etxetresna elektrikoek izan beharreko etiketa legez nahitaezkoa dela xedatu dutenak.

Indarrean dagoen legeriari jarraituz, saltzaileak etxetresna elektrikoaren modelo bakoitzari dagokion etiketa agerian jarri behar du, eta fabrikatzaileak saltzaileari eskaini behar dizkio energia-etiketa duen etxetresna elektrikoaren modelo bakoitza ebaluatzeko balioak.

Etiketa mota horiek arautzeko esparrua xedatzen zuen 92/75/EEE Direktiba⁷ onartu zenetik, hainbat gehikuntza egin dira, tresna mota bakoitzari dagokion prozedura zehazteko.

Gaur egun, 92/75/EEE Direktiba 2010/30/EB Direktibaren bidez indargabetu da⁸; bertan, harmonizatorako esparru bat xedatu da, hau da, alde batetik, azken erabiltzaileari etiketen bidez informazioa emateko Estatuan hartu beharreko neurriak eta, bestetik, produktuak erabiltzen direnean produktu horien energia-konsumoari buruzko nahiz, hala dagokionean, beste funtsezko baliabide batzuen kontsumoari buruzko informazio normalizatua harmonizatzeko. Era horretan, energia-etiketak energiarekin zerikusia duten tresna guztietara zabaldu dira.

⁷ 92/75/EEE Direktiba, 1992ko irailaren 22ko Kontseiluarena, etxetresnek kontsumitzen dituzten energia eta beste baliabide batzuk etiketen bidez eta produktuei buruzko informazio uniformearen bidez adierazteari buruzkoa.

⁸ 2010eko maiatzaren 19ko 2010/30/EB Direktiba, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, energiari lotuta dauden produktuek kontsumitzen dituzten energia eta beste baliabide batzuk etiketen bidez eta informazio normalizatuaren bidez adierazteari buruzkoa (Testu egokia, EEEren eraginetarako).

TRESNA ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN MULTZO BAKOITZARI BURUZKO EUROPAKO
DIREKTIBEN ETA ESTATUKO ARAUDIEN ONESPENA^{9 10}

PRODUKTUA	EUROPAKO DIREKTIBEN ETA ESTATUKO ARAUDI
Garbigailuak	95/12/EE Direktiba
Ontzi-garbigailuak	1999/9/EE Direktiba
Lehorgailuak	95/13/EE Direktiba
Garbigailu-lehorgailuak	96/60/EE Direktiba
Etxeko argi-iturriak	98/11/EE Direktiba
Etxeko labe elektrikoak	2002/40/EE Direktiba
Aire girotua	2002/31/EE Direktiba
Hozkailu eta izozgailuak	2003/66/EE Direktiba

2010/30/EB Direktibak¹¹, etiketa-sistema berria ez ezik, produktu-kategoria bakoitzaren bera-riazko zehaztasunak osatzeko eman behar diren erregelamenduen sorrera ere arautzen du. Produktu-kategoria bakoitzak, hortaz, alderdi hauek edukiko ditu identifikatuta.







- Energia-eraginkortasunaren Indizearen oinarria (EIO), A+++/G kategoriak zehaztuko dituenak.
- Energia-eraginkortasunaren Indizea eta kontsumoa kalkulatzeko metodoa.
- Produktu bakoitzaren produktu-fitxaren edukia.
- Eraginkortasun-etiketaren diseinua eta edukia.
- Azken erabiltzaileak produktua ikusiko duela jotzerik ez dagoenean eskaini beharreko informazioa.
- Egin beharreko neurketak eta egiaztatze prozedura, merkatua zaintzeko helburuaz.
- Etiketa berria indarrean sartuko den data.

⁹ IDAE, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua, Energia Idazkaritza Nagusiaren bidez Industria, Merkataritza eta Turismo Ministeriora atxikitako erakunde publikoa.

¹⁰ http://europa.eu/legislation_summaries/consumers/product_labelling_and_packaging/l32004_en.htm

¹¹ 2010eko maiatzaren 19ko 2010/30/EB Direktiba, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, energiari lotuta dauden produktuek kontsumitzen dituzten energia eta beste baliabide batzuk etiketen bidez eta informazio normalizatuaren bidez adierazteari buruzkoa (Testu egokia, EEEren eraginetarako).

ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO ZENBAIT ETIKETA, 92/75/EEE DIREKTIBAREN ARABERA*



* Bertan ikus daiteke, halaber, Europako etiketa ekologikoa non kokatuko litzatekeen, produktua egiaztaurik egonez gero.

Energia-eraginkortasuna adierazteko zenbait etiketa, 2010/30/EB Direktibaren arabera*

Telebistak



Garbigailuak



Hozkailuak



Ontzi-garbigailuak



* 2011ko uztailean indarrean sartuko direnak¹², produktu multzo bakoitzari buruzko berriazko araudiak argitaratu ahala.

¹² — Batzordearen 1062/2010 (EB) Erregelamendu Delegatua, 2010eko irailaren 28koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/30/EB Direktiba garatzen duena telebisten energia-etiketari dagokienez > 2011ko azaroa.


— Batzordearen 1061/2010 (EB) Erregelamendu Delegatua, 2010eko irailaren 28koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/30/EB Direktiba osatzen duena etxeko garbigailuen energia-etiketari dagokienez > 2011ko abendua.

— Batzordearen 1060/2010 (EB) Erregelamendu Delegatua, 2010eko irailaren 28koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/30/EB Direktiba osatzen duena etxeko hozkailuei dagokienez > 2011ko azaroa.

— Batzordearen 1059/2010 (EB) Erregelamendu Delegatua, 2010eko irailaren 28koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/30/EB Direktiba osatzen duena etxeko ontzi-garbigailuen energia-etiketari dagokienez > 2011ko abendua.

3.2. ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO ETIKETA: PNEUMATIKOAK

ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO ETIKETA: PNEUMATIKOAK



IRISMENA:	Produktua	Enpresa
MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai	
	Bizi-zikloaren fasea	Ez
	Bizi-ziklo osoa	
BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenak	Autoadierazpena
OHARRAK:		

Legezko markaketak ► Nahitaezko legezko markaketa ► Ingurumen-balorazioa dutenak

1222/2009/EE Erregelamenduaren bidez¹⁴, pneumatikoetan ipintzeko diren etiketak arautzen dira, erregai-kontsumoari eta funtsezkoak diren beste parametro batzuei lotutako eraginkortasunaren ikuspegitik.

Autoek eta industriako ibilgailu arinek egiten dituzten CO₂ isurpenak murrizteko Erkidegoaren estrategian, nabarmendu egin da erregai-kontsumoan eragin handiena duten ibilgailuen osagaiak —hala nola, pneumatikoak— kontrolatzeko neurri gehigarrien bidez CO₂ isurpenak murrizteko aukera. Pneumatikoek, errodaduraren aurrean duten erresistentzia dela kausa batez ere, ibilgailuen erregai-kontsumoaren % 20 eta % 30 bitartekoa eragiten dute.

Beraz, 1222/2009 Erregelamenduak pneumatikoen parametroei buruzko informazio harmonizatua etiketa-sistema baten bidez emateko esparru bat ezarri du, azken erabiltzaileei pneumatikoak erosteko orduan jakinaren gainean egonda aukeratzea ahalbidetzeko.

Energia-eraginkortasunaren indizea errodaduraren kontrako erresistentzia-koefizientearen arabera zehazten da (EEK), eta gainazal bustian dagoen itsaspen mota gainazal bustian dagoen itsaspen-indizearen arabera (G) kalkulatu da.

Hornitzaileek ziurtatu beharko dute banatzaileei edo azken erabiltzaileei ematen zaizkien pneumatikoek etiketa egokia itsatsita edukiko dutela errodadura-bandan. Bertan xehetasun hauek adierazita egongo dira: eraginkortasun mota, erregai-kontsumoari dagokionez; kanpoko errodadura-zarataren batez besteko balioa; eta, egokia denean, gainazal bustian duen itsaspen mota. Era berean, banatzaileek ziurtatu beharko dute pneumatikoak salduko diren saltokian pneumatikoek etiketa leku ikusgarrian itsatsita edukiko dutela.

Etiketa erabiltzea eta araudia ez dira nahitaez bete beharrekoak izango 2012ko azaroaren 1 arte.

¹⁴ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1222/2009 (EB) Erregelamendua, 2009ko azaroaren 25ekoa, pneumatikoetan erregai-kontsumoari eta funtsezko beste parametro batzuei lotutako eraginkortasunari dagokionez ipini beharreko etiketei buruzkoa (Testu egokia, EEren eraginetarako).


ENERGIA-ERAGINKORTASUNA, ERRODADURAREN KONTRAKO
ERRESISTENTZIA-KOEFIZIENTEAREN ARABERA (EEK)

C1 PNEUMATIKOAK		C2 PNEUMATIKOAK		C3 PNEUMATIKOAK	
EKK kg/t	Energia-eraginkortasun mota	EKK kg/t	Energia-eraginkortasun mota	EKK kg/t	Energia-eraginkortasun mota
$EKK \leq 6,5$	A	$EKK \leq 5,5$	A	$EKK \leq 4,0$	A
$6,6 \leq EKK \leq 7,7$	B	$5,6 \leq EKK \leq 6,7$	B	$4,1 \leq EKK \leq 5,0$	B
$7,8 \leq EKK \leq 9,0$	C	$6,8 \leq EKK \leq 8,0$	C	$5,1 \leq EKK \leq 6,0$	C
Hutsik	D	Hutsik	D	$6,1 \leq EKK \leq 7,0$	D
$9,1 \leq EKK \leq 10,5$	E	$8,1 \leq EKK \leq 9,2$	E	$7,1 \leq EKK \leq 8,0$	E
$10,6 \leq EKK \leq 12,0$	F	$9,3 \leq EKK \leq 10,5$	F	$EKK \geq 8,1$	F
$EKK \geq 12,1$	G	$EKK \geq 10,6$	G	Hutsik	G

ITSASPEN MOTA, GAINAZAL BUSTIAN
DAGOEN ITSASPEN-KOEFIZIENTEAREN
ARABERA (G)


PNEUMATIKOAK	
G	Itsaspen mota gainazal bustian
$1,55 \leq G$	A
$1,40 \leq G \leq 1,54$	B
$1,25 \leq G \leq 1,39$	C
Hutsik	D
$1,10 \leq G \leq 1,24$	E
$G \leq 1,09$	F
Hutsik	G

Pneumatikoen energia-eraginkortasuna
adierazteko etiketa



3.3. ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO ETIKETA: IBILGAILUAK

ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO ETIKETA: IBILGAILUAK

	IRISMENA: MARKAKETA: INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU: BALORAZIOA/EGIAZTAPENA: OHARRAK:	<table style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Produktua</td> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Enpresa</td> </tr> <tr> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Nahitaezkoa</td> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Borondatezkoa</td> </tr> <tr> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Bai</td> <td></td> </tr> <tr> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Bizi-zikloaren fasea</td> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Ez</td> </tr> <tr> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Bizi-ziklo osoa</td> <td></td> </tr> <tr> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Hirugarrenak</td> <td style="border-top: 1px dotted black; border-bottom: 1px dotted black;">Autoadierazpena</td> </tr> </table>	Produktua	Enpresa	Nahitaezkoa	Borondatezkoa	Bai		Bizi-zikloaren fasea	Ez	Bizi-ziklo osoa		Hirugarrenak	Autoadierazpena
Produktua	Enpresa													
Nahitaezkoa	Borondatezkoa													
Bai														
Bizi-zikloaren fasea	Ez													
Bizi-ziklo osoa														
Hirugarrenak	Autoadierazpena													

Legezko markaketak ► Nahitaezko legezko markaketa ► Ingurumen-balorazioa dutenak

Kontsumitzaileek erregai-kontsumo txikia egiten duten ibilgailuak aukeratu ahal izateko, Europar Batasunak behartzen ditu auto berrien saltzaileak ibilgailu horien erregai-kontsumoari eta CO₂ isurpenei buruzko informazioa ematera. Informazio hori ibilgailuaren etiketetan zehaztu behar da, baita karteletan eta bestelako sustapen-materialetan ere, eta, halaber, berriazko gidetan.

1999/94/EE Direktibaren bidez¹⁵, informazio hori egituratzeko eta kontsumitzaileari emateko era arautu nahi izan da. 837/2002 Errege Dekretuak¹⁶, berriz, Estatuko antolamendu juridikora ekartzen du energia-etiketei buruzko Direktiba.

Etiketak kontsumoari eta CO₂ isurpenei buruzko datu ofizialak ditu, eta modeloa nahiz erregai mota adierazten dira bertan. Automobil-modelo bakoitzean itsatsiko da, edo saltokian, modeloen ondoan.

Horrez gain, aztertzen ari da Estatu osoko gida bat prestatzea, salgai dauden auto berrien modelo guztien zerrenda bat duena (gasolinaz eta gasolioz funtzionatzen dutenak), eta kontsumo eta isurpenei buruzko informazioa jasotzen duena, markaren eta alfabetoko hurrenkaren arabera antolatuta. Gidan, halaber, erregai mota bakoitzari lotuta, energia-eraginkortasun handiena duten modeloen zerrenda bat sartuko da, eta erabiltzaileen eskura jarriko da, doan, ibilgailuak saltzen diren tokietan eta Interneten. Estatuan, IDAEk (Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua) sortu eta mantenduko du gida hori, lotura honen bidez:

<http://www.idae.es/coches/>

¹⁵ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999/94/EE Direktiba, abenduaren 13koa, auto berriak merkaturatzean erregai-kontsumoaren eta CO₂ isurpenen gainean kontsumitzaileari eman beharreko informazioari buruzkoa.

¹⁶ 837/2002 ERREGE DEKRETUA, abuztuaren 2koa, Espainian salmentan jarri edo finantza-errentamenduan ematen diren ibilgailuek kontsumitzen duten erregaiari eta isurtzen duten CO₂-ari buruzko informazioa arautzen duena.

IBILGAILUEN GIDA, KONTSUMO ETA CO₂ ISURPENEI BURUZKO ADIERAZPENAK DITUENA



Ibilgailuen energia-eraginkortasuna adierazteko etiketa

Marka/modeloa Erregai mota	
KONTSUMO OFIZIALA (80/1268/EEE Direktiban xedatutakoaren arabera)	
Gidatzeko modua	1/100 km
Hirian	
Errepidean	
Batezbesteko haztatua	
BERARIAZKO CO₂ ISURPEN OFIZIALAK (80/1268/EEE Direktiban xedatutakoaren arabera)	
	g/km

Salmenta-gune guztietan doan eskura daiteke erregai-kontsumoari eta CO₂ isurpenei buruzko gida bat, auto berrien modelo guztiei buruzko datuak dituena. Erregai-kontsumoa eta CO₂ isurpenak ez dira ibilgailuaren errendimenduaren araberakoak soilik; horretan eragina dute, halaber, gidatzeko erak eta teknikoak ez diren beste alderdi batzuek. CO₂ da planeta berotzea eragiten duen berotegi-efektuko gas nagusia.

Ibilgailuen energia-eraginkortasuna adierazteko borondatezko etiketa


ENERGIA-ERAGINKORTASUNA		
Marka Modeloa Erregai mota Transmisioa	X Y Gasolina Eskuz	
Erregai-kontsumoa (Litroak 100 km-ko)	5,8 litro/100 km	↓
Baliokidetasuna (km litroko)	17,2 km/litro	↑
CO ₂ isurpenak (g km-ko)	139 g/km	↑
Kontsumo-konparazioa (Espainian saltzen diren tamaina bereko autoen neurria kontuan hartuta)		
Kontsumo txikia		
≤ % -25	A	
% -15 -25	B	
% -5 -15	C	
Batezbestekoa	D	← C
% +5 +15	E	
% +15 +25	F	
> % +25	G	
Kontsumo handia		

Salmenta-gune guztietan doan eskura daiteke erregai-kontsumoari eta CO₂ isurpenei buruzko gida bat, auto berrien modelo guztiei buruzko datuak dituena. Erregai-kontsumoa eta CO₂ isurpenak ez dira ibilgailuaren errendimenduaren araberakoak soilik; horretan eragina dute, halaber, gidatzeko erak eta teknikoak ez diren beste alderdi batzuek. CO₂ da planeta berotzea eragiten duen berotegi-efektuko gas nagusia.

Era osagarrian, borondatezkoa izango da beste etiketa bat sortu eta ipintzea; bertan, kontsumo eta isurpenei buruzko informazioaz gain, autoaren sailkapena ere adieraziko da, konparaziozko kontsumoaren arabera. Borondatezko etiketa horretan, auto baten kontsumo ofiziala alderatuko da azalera berekoak diren eta erregai mota bera behar duten autoei estatistika-kalkuluen bidez esleitutako batez besteko balioarekin, fabrikatzaile guztiek salgai jarri dituzten auto guztiak kontuan hartuta. Autoaren azalera (luzera x zabalera) erabili da eraketa egiteko parametro gisa, hala gomendatzen baita gaiari buruz egindako azterlanen ondorioz.

3.4. ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO ETIKETA: ERAIKINAK

ENERGIA-ERAGINKORTASUNA ADIERAZTEKO ETIKETA: ERAIKINAK



IRISMENA:	Produktua	Enpresa
MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai	
	Bizi-zikloaren fasea	Ez
	Bizi-ziklo osoa	
BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenak	Autoadierazpena
OHARRAK:		

Legezko markaketak ► Nahitaezko legezko markaketa ► Ingurumen-balorazioa dutenak

Eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko 2002/91/EE Direktibari jarraituz¹⁷ (2010eko otsailaren 1etik aurrera indarririk gabe geratu eta 2010/31/EE Direktibarekin bateratu egin da¹⁸), nahitaezkoa da eraikinak erosi eta erabiltzen dituztenen eskura jartzea energia-eraginkortasunaren egiaztagiri bat, etiketa baten bidez.

Aipatutako direktiba 2010/31/EE Direktibarekin bateratzean, irizpideak bateratu nahi izan dira, irismen bera duten antzeko legeen sorreraren aurrean, hala nola, Erkidegoko kide diren estatuek 2009/125/EE Direktiban (energiari lotutako produktuei ezargarriak zaizkien diseinu ekologikorako baldintzak zehazteko esparrua xedatzen baitu) eta 2010/30/EE Direktiban (energiari lotuta dauden produktuek kontsumitzen dituzten energia eta beste baliabide batzuk adierazteko esparrua ezartzen baitu) adierazitako ezarpen-neurrien arabera garatu diren betebeharrak: eraikinetako instalazio teknikoaren energia-eraginkortasunerako eskakizunak definitzeko ezarritakoak; eta tresna harmonizatuak, saiakuntza eta kalkuluak egiteko metodoak eta energia-eraginkortasunaren motak erabiltzeko beharra, baldin eta horiek badaude eta erabiltzea egokia bada. Helburua da herrialde kide guztiek kontsumitzaileari energia-eraginkortasunari buruz ematen zaion informazioari lotutako irizpideak pixkanaka bateratzea eta informazio normalizatua eman ahal izatea —era horretan, koherentzia bermatuko baita, ekimen bateratuen bidez—, eta merkatuan gerta daitekeen zatikatzea gutxienekora murriztea.

47/2007 Errege Dekretuak¹⁹, eraikuntza berriko eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duenak, gure Estatuko legedira ekarri du 2002/91/EE Europako Direktiba. Proiektua garatzeaz arduratzen den arkitektura- edo ingeniari-estudioak aurkeztu beharko du ziurtagiri edo etiketa hori, eraikuntza-proiektuari erantsita.

¹⁷ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/91/EE Direktiba, 2002ko abenduaren 16koa, Eraikinen energia-eraginkortasunari buruzkoa.

¹⁸ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010/31/EE Direktiba, 2010eko maiatzaren 19koa, eraikinen energia-eraginkortasunari buruzkoa.

¹⁹ 47/2007 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, eraikuntza berriko eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen duena.

Alabaina, autonomia-erkidego bakoitzean gaian eskumena duen organoak garatu behar du 47/2007 Errege Dekretua, lurralde-esparru horretan egiaztagirien erregistroaren ardura duenak kanpoko kontrola eta ikuskapena/egiaztapena zehazteko.

Euskadin, Industria, Merkataritza eta Turismo Saila da harremantako erakundea, Energiaren Euskal Erakundearen bitartez (EEE), eraikinen energia-ziurtagiriei dagokienez²⁰.

Ziurtagirian, energia-eraginkortasuna adierazteko etiketa baten bidez, eraikin bakoitzari eraginkortasunaren energia-mota bat esleitzen zaio, A motatik (energiaren aldetik eraginkortasun handienekoak) G motara (eraginkortasun gutxienekoak).

Eraginkortasunaren inguruko kalkulu horren barruan, kontuan hartu dira hainbat alderdi, hala nola: isolamendua, hozteko elementuak, zubi termikoak, berokuntzaren eta ur beroaren instalazioak eta instalazio horien isolamendu-ezaugarriak, airea girotzeko instalazioak, aireztatze natural eta mekanikorik badagoen, argiztapenaren instalazioa, diseinua, eraikinaren kokapena eta orientazioa, kanpoko klima-baldintzak, eguzki-instalazio pasiboak eta eguzkitik babesteko era, barneko ingurumen-baldintzak, barneko kargak, toki bakoitzeko eguzki-baldintzen eragin positiboa, eguzki-sistema aktiboak edo iturri berriztagarriek sortzen duten energian oinarritutako berokuntzarako edo elektrizitatea ekoizteko beste sistema batzuk, baterako sorkuntzaren bidezko elektrizitatea, argiztapen naturala, eta abar.

Beraz, prozesu konplexua da, eta bi aukera erabilia gauza daiteke:

1. Aukera orokorra, programa informatiko baten bidez:

- 47/2007 Errege Dekretuan adierazitako kalkulu-metodologian eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten programa informatikoen erabileran oinarrituta dago. Espainian, erreferentziatzeko programa informatiko bat garatu da, «Calener» izenekoa.
- Aipatutako programak bi bertsio ditu:
 - Calener_GT: hirugarren sektoreko eraikin handietarako.
 - Calener_VYP: etxebizitzak dituzten eraikinetarako eta hirugarren sektoreko eraikin txiki eta ertainetarako.
- Erreferentziatzekoak ez diren programa informatikoak erabiltzeko, beharrezkoa da horiek Eraikinen Energia Ziurtagiria emateko Aholkularitza Batzordearen onspena izatea.

2. Aukera erraztua, energia-eraginkortasuna kalifikazioa kalkulatzeko metodologia zeharka garatzen duena, Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (CTE) DB-HE oinarritzko dokumentuaren HE1 atalean jasotako aukera erraztua zorrotz betetzen duten etxebizitzetarako.

- CTEko HE2 eta HE4 ataletan aurretiaz jasota dauden baldintzatzaile jakin batzuk betetzen badira soilik.
- Aukera erraztu hau erabiliz gero, D edo E motetako energia-eraginkortasuna soilik lor daiteke.

Eraikinen energia-kalifikaziorako etiketa-eredua


Diagrama of the energy efficiency label template for buildings. The label is divided into several sections:

- Header:** Eraikinen energia-eraginkortasunaren kalifikazioa bukatutako proiektu/eraikina
- Energy Efficiency Scale:** A scale from A (green) to G (red) with corresponding energy consumption and CO2 emission values.
- Energy Consumption:** Energia-kontsumoa urteko: kWh/urte (— kWh/m²)
- CO2 Emissions:** CO₂ isurpenak urteko: kg CO₂/urte (— kg CO₂/m²)
- Energy Efficiency or Carbon Dioxide Emissions:** Energia-eraginkortasuna edo karbono dióxidoaren isurpenak. Programaren araberako onakiz diru, finantzamendua eta oinarrizko baldintza araututa.
- Additional Information:** Eraikinen energia-eraginkortasunaren edo karbono dióxidoaren isurpenaren eragina duite eraikinen operazioa eta finantzamendua berritu behar diren klima-baldintzak, botakak beste.

²⁰ <http://www.mityc.es/energia/desarrollo/EficienciaEnergetica/CertificacionEnergetica/CCAA/Paginas/Organismos.aspx>

04

BORONDATEZKO LEGEZKO MARKAKETAK, INGURUMEN-BALORAZIORIK EZ DUTENAK: KUDEAKETA- SISTEMA INTEGRATUAK



Urtero, ia bi mila milioi tona hondakin sortzen dira Europako Erkidegoko estatu kideen lurraldeetan, bereziki arriskutsuak diren hondakinak barne; eta kopuru hori etengabe handitzen ari da. Hondakin horiek metatzea ez da irtenbide iraunkorrik, eta hondakinak suntsitzea ez da guztiz egokia, horren ondorioz geratzen diren hondarrak nahiz oso kontzentratuta dauden eta kutsakorrek diren hondakinak direla kausa. Irtenbiderik onena hondakinen sorrera prebenitzea eta birziklapenaren bidez ekoizpen-zikloan berriz sartzeta da, ekologiaren eta ekonomiaren ikuspegitik iraunkorrek diren irtenbideak daudenean.

2006/12/EE Direktibak²¹ hasiera batean, eta direktiba hori indargabetu/eguneratu duen 2008/98/EE Direktibak²² (2006/12/EE Direktiba indargabeturik geratu zen 2010/12/11n) emandako xedapenen bidez lortu nahi den helburua gero eta handiagoa den hondakinen sorrera mugatu eta hondakinak ekoizpen-kateetan berriz sar daitezen sustatzea, edo energiaren birbalazioa bultzatzea. Direktiba honek «kutsatzen duenak ordaindu behar du» esarari jarraitzen dio, eta, hala, estatuak behartzen ditu hondakinen inguruko berariazko planak definitzera, alorren arabera. «Kutsatzen duenak ordaindu behar du» printzipioaren bidez, halaber, produktuari berari egokitzen zaizkio, produktua merkaturatzerakoan, ondasun horrek kontsumo-osteko etapan sortzen dituen hondakinen kudeaketa egokiaren kostuak.

Direktiba honen ondorio nagusietako bat da, xedatzen duenaren arabera, fabrikatzailea dela bere produktuek, behin baztertzen direnean, sortu dituzten hondakinen kudeaketaz arduratu behar dena. Ardura hori bi modutan bete daiteke:

1. Fabrikatzaileak berezko kudeaketa-sistema bat sortu behar du bere produktuak bildu eta tratatzeko, produktu horiek bizitza baliagarriaren amaierara iristen direnean (adibidez, edariak ekoiztu eta banatzen dituzten enpresek ostatuetan beirazko botilak biltzea).
2. Fabrikatzailea hondakinak biltzeko eta kudeatzeko programa batera atxiki behar da, bere produktuen kudeaketa egiteko bizitza baliagarriaren amaierara iristen direnean. Sistema horiek hondakinak kudeatzeko sistema integratuak dira (KSI).

Oro har, beren produktuak legez kudeatu behar dituzten enpresek KSIren batera atxikitzea erabakitzen dute, izan ere, horren finantzaketan lagundu behar badute ere —horretarako, merkaturatu dituzten produktuen azken kudeaketak duen kostuaren zenbatekoa ordainduta (tasa bat ordaindu behar dute, beren produktuek bizitza baliagarriaren amaieran sortzen dituzten hondakinen arabera)—, luzera begira merkeagoa eta erosoagoa da, ez dutelako abian jarri behar hondakinak bildu eta garraiatzeko eta tratatzeko mekanismorik.

KSI bat, beraz, produktuen/hondakinen bizitzaren bukaera kudeatzen duen entitate bat da («irabazteko asmorik gabe», legezko definizioaren arabera). Tokiko erakundeekin elkarlanean aritzen da teknikaren eta ekonomiaren alorretan, eta hondakinak gaika berreskuratzea babes-tu eta sustatzen du: hondakinak bildu, tratatu eta berriro merkaturatzen dituzte, espezializata dauden birziklapen-enpresen bitartez.

Produktuen kudeaketari dagokionez, legeak eragindako arlo bakoitzeko hainbat KSI daude:

- Ontziak eta bilgarriak kudeatzeko KSI.
- Tresna elektriko-elektronikoen hondakinak kudeatzeko KSI.
- Ibilgailuak bizitza baliagarriaren amaieran kudeatzeko KSI.
- Eta abar.

Ingurumen-adierazpenerako sistema moduan duten garrantzia ez datorkie bereziki aitortpen-lana dela kausa —enpresak bere produktuen bizitzaren amaiera modu iraunkorrean kudeatzen duela egiaztatzen baitute (izan ere, legeak behartzen du hori egitera)—; aitzitik, garrantzi horren arrazoa da KSI, oro har, produktuetan jartzen diren sinboloak erabiltzen dituztela, enpresa jakin bat KSI horretara atxikita dagoela eta horri buruzko legeria betetzen duela adierazteko eta egiaztatzeko. Eta, zenbaitetan, sinbolo horiek eta ingurumenaren alorrean egiten den lan egokia adierazteko sinboloak nahastu egiten dira.

²¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/12/EE Direktiba, 2006ko apirilaren 5koa, hondakinei buruzkoa.


²² Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Direktiba, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa, beste zenbait Direktiba indargabetzen dituena.

Hori adierazteko adibiderik garbiena ontziak, ontzi arinen hondakinak eta paperezko/kartoizko ontziak gaika bildu eta berreskuratzeko egitekoa duen Ecoembes KSI erabiltzen duen sinboloari lotuta dago. KSI horren sinboloa «Puntu Berdea» da, eta horren bidez adierazten du ontzia fabrikatu duen enpresa Ecoembesera atxikita dagoela eta bere ontziak kudeatzeko tasa bat ordaintzen duela, hau da, Ontziei eta Ontzi-hondakinei buruzko 11/97 Legea betetzen duela.







Alabaina, sinboloaren esanahia ezagutzen ez duen azken kontsumitzaileak, askotan, sinboloa lotzen du ontzia birziklatutako edo birziklagarria izan daitekeen materiala erabilia fabrikatzearekin, eta, hasiera batean, ez da horrela izan behar. Nahasketa hori gertatzen da elkarren arteko antzekotasun handia dutelako «Puntu Berdea» sinboloak eta Möbiusen sinboloak —eraztuna edo zirkulua—. Möbiusen zirkulua birziklapenaren nazioarteko sinbolo bihurtu da, eta, oro har, materialak birziklatutako lehengaien portzentaje bat duela, edo birziklagarria dela adierazten du.

Hala bada, jarraian jaso ditugu Estatuan dauden KSI garrantzitsuenak, horien sinboloak eta esanahia ezagutzera emateko.



4.1. KSI: ONTZI ETA BILGARRIEN HONDAKINAK

KSI: ONTZI ETA BILGARRIEN HONDAKINAK		
	IRISMENA:	Produktua Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa Ez
	OHARRAK:	Hirugarrenak Autoadierazpena

Legezko markaketak ► Borondatezko legezko markaketa ► Ingurumen-baloraziorik gabeak

Ontziei eta ontzi-hondakinei buruzko 11/97 Legea²³ indarrean sartu zenetik, ontziak fabrikatzen dituzten enpresek merkaturatzen dituzten produktuena ontzi-hondakinak berreskuratu behar dituzte, horiek birziklatu eta balorizatu ahal izateko. Eta, beren erantzukizun hori betetzeko, Legearen eskakizunak abian jar ditzakete beren aldetik, edo Ontzi-hondakinak Kudeatzeko Sistema Integratu batera (KSI) atxiki daitezke.

Kudeaketa-sistema integratuak kudeatzen dituzten irabazteko asmorik gabeko hainbat erakunde eta fundazio daude. KSI batzuk izaera orokorrekoa edo arlo anitzekoak dira, eta beste batzuk, berriz, ontzi mota jakin bati bakarrik lotuta daude. Orokorren barruan sar daiteke Ecoembes KSIa. Guzti-guztiek dituzte ontzian ipintzen diren sinboloak, enpresa fabrikatzailea KSI jakin horretara atxikita dagoela adierazteko, eta ontziak eta bilgarriak bizitza baliagarriaren bukaeran kudeatzeari buruz indarrean dagoen legeria betetzen duela egiaztatzeke.

Hona hemen merkaturatzen ontzietarako dauden KSI edo kudeaketa-sistema integratu nagusien zerrenda bat.

²³ 11/97 Legea, apirilaren 24koa, Ontziei eta Ontzi-hondakinei buruzkoa.

ONTZI ETA BILGARRIETARAKO KUDEAKETA SISTEMA INTEGRATUEN ZERRENDA

ELKARTEA	DESKRIBAPENA
	<p>Ecoembalajes España elkartearen eginkizuna erabilitako ontziak eta ontzi arinen eta paperezko/kartoizko ontzien hondakinak gaika biltzeko eta berreskuratzeko sistemak diseinatzea eta garatzea da. Autonomia-erkidegoekin eta tokiko erakundeekin (udalak, kontsorzioak, mankomunitateak...) hitzarmenak sinatu ditu, ohiko zabor-bilketarekin alderatuta ontziak gaika biltzeko erakundeei sortzen dizkien gailuak ordaintzeko, udalak baitira ontzi-hondakinen gaikako bilketa ezartzeko eta burutzeko ardura eta erantzukizuna dituztenak.</p> <p>Ontzi horiek gaika biltzearen ondoriozko gailuak finantzatzeaz gain, Ecoembesek aholkua ematen die erakundeei bilketa mota hori egiteko dauden ereduak buruz eta laguntza ematen du komunikazio- eta informazio-kanpainetan.</p> <p>Gaur egun, Ecoembesek hitzarmenak sinatu ditu ia Espainiako tokiko erakunde guztiekin, eta 46 milioi biztanle ingururi ematen die zerbitzua.</p> <p>www.ecoembes.com</p>
	<p>Duen gizarte-helburua da produktu fitosanitarioen ontziak aldizka biltzeko sistema bat antolatzea, azken erabilera egokia izan dezaten, ontzi eta hondakinei buruzko arau orokorra eta berariazko araudia betetzearren.</p> <p>www.sigfito.es</p>
	<p>Sendagai eta Ingurumenaren KSI hau sendagaien ontziak gaika biltzeko sistema da, eta Espainiako industria farmazeutikoak abian jarri du herritarrek hutsik dauden edo sendagai-hondarrak dituzten ontziak edota etxean dauzkaten eta iraungitze-data gaitu duten sendagaiak utzi ahal izateko.</p> <p>Horretarako, SIGREk edukiontzi bat jarri du farmazietan kontsumitzaileen eskura, helburu horretarako bereziki diseinatuta.</p> <p>www.sigre.es</p>
	<p>Beirazko ontzien hondakinak birziklatzearen kudeaketaz arduratzen da, Espainia osoan. Ecovidriok beiraren birziklapenarekin lotuta dauden alor guztiak hartzen ditu barnean: ontziratzaile eta botilaratzaileak, berreskuratzaileak eta fabrikatzaileak.</p> <p>www.ecovidrio.es</p>
	<p>Latorria Birziklatzeko Elkarte Ekologikoaren helburuak hauek dira: hiri-hondakinen artean dauden erabilitako altzairuzko ontziak berreskuratzea, hondakin horiek birziklatuko direla ziurtatzea, eta altzairuzko ontzi arinen hondakinen ingurumen-arazo eta -irtenbideen alorrean presakuntza eta informazioa ematea nahiz alor hori sustatzea, teknikaren nahiz dibulgazioaren ikuspegitik.</p> <p>www.ecoacero.com</p>
	<p>Aluminiozko Produktuak birziklatzeko Elkarteak erabateko eraginkortasuna ziurtatzen die elkarte-kideei aluminiozko ontzien sustapenean, ontzi horien birziklapenaren bitartez. Erabilitako aluminiozko ontziak eta edari-ontziak eta material beraz egindako beste produktu batzuk birziklatzea sustatzeko helburuz sortu zen, eta gaur egun Arpalen eginkizuna aluminiozko produktuak bildu eta birziklatzeko ohitura sustatu eta zabaltzeko ahalik eta ekimen gehien bultzatzea da.</p> <p>www.aluminio.org</p>
	<p>Plastikozko ontziak bizitza baliagarriaren bukaeran birziklatzeko konpromisoa hartu du, ontzi horiek dituzten erabilera guztietan —ontziak, nekazaritza, ibilgailuak, eraikuntza, etab.—. CICLOPLASTek plastikoaren arloko enpresa guztiak hartzen ditu barnean, bai lehengaien fabrikatzaileak, bai eraldatzaileak.</p> <p>www.cicloplast.com</p>
	<p>Berreskuratutako Egurrezko Biomasa kudeatzeko Espainiako Elkarte enpresa-erakunde bat da, zuraren hondakin, azpiproduktu eta produktuen kudeaketa sustatzeko lan egiten duena, produktu horiei guztiei irtenbiderik onena ematearren.</p> <p>www.aserma.org</p>

4.2. KSI: GAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINAK (RAEE)

KSI: GAILU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN HONDAKINAK (RAEE)			
	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:		Bai
			Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:			

Legezko markaketak ► Borondatezko legezko markaketa ► Ingurumen-baloraziorikgabeak

Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak (RAEE) etxeko erabilera edota erabilera profesionala izan duten gailu elektriko eta elektronikoa, horien osagarriak, kontsumigarriak eta tresnak osatzen dituzten azpialat guztiak dira, hondakin bihurtzen diren unetik aurrera.

2002/96/EE Direktibak²⁴ hainbat neurri ezartzen ditu, hondakin elektriko eta elektronikoen sorrera prebenitzeko eta hondakin horiek berrerabiltzea eta birziklatzea zein balorizatzeko beste modu batzuk sustatzeko, hondakin horien kopurua murriztu eta, aldi berean, horien kudeaketan parte hartzen duten ekonomia-eragileen ingurumen-eraginaren emaitzak hobetzeko helburuz. Horrez gain, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak balorizatzen eta deuseztatzen nahiz giza osasuna babesten laguntzeko, EBk gailu horietan substantzia arriskutsuen erabilera mugatzeko neurriak ere ezarri ditu, 2002/95/EE Direktibaren bidez²⁵.

2002/96/EE Direktiba Espainiako legedira aldatu da 208/2005 Errege Dekretuaren bitartez²⁶.

2002/96/EE Direktibak xedatutakoari jarraituz, Erkidegoko estatu kideek gutxienera murriztu behar dute tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak gaika bildu ez diren hiri-hondakinekin batera deuseztatzea, eta hondakin horien gaikako bilketa antolatu behar dute. Ildo horretan, estatu kideek honakoa bermatu behar dute:

- Azken erabiltzaileek eta banatzaileek hondakin horiek doan itzuli ahal izatea.
- Produktu berri baten banatzaileek produktu hori doan itzuliko zaizkiela bermatzea.
- Fabrikatzaileek, RAEEak kudeatzeko, banakako edo taldeko bilketa-sistemak (KSI) sortu eta ustiatu ahal izatea.

²⁴ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/96/EE Direktiba, 2003ko urtarrilaren 27koa, aparatu elektriko eta elektronikoen buruzkoa.

²⁵ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/95/EE Direktiba, 2003ko urtarrilaren 27koa, aparatu elektriko eta elektronikoen hainbat substantzia arriskutsuen erabilera mugatzen duena.

²⁶ Abuztuaren 13ko 208/2005 Errege Dekretua, aparatu elektriko eta elektronikoen (AEE) buruzkoa.

Beheko taulan, produktu elektriko eta elektronikoen merkatuan dauden kudeaketa-sistema integratu (KSI) nagusiak deskribatu ditugu.

PRODUKTU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN KUDEAKETA SISTEMA INTEGRATUEN ZERRENDA (KSI)

ELKARTEA	DESKRIBAPENA
	Produktu hauen kudeaketa burutzen du: kontsumorako elektronika, aire egokitua, elektronika profesionala eta elektromedikuntza, jostailuak, argiztapen-aparatuak, eta jardueraren beste arlo batzuk. www.ecotic.es
	AFECen idazkaritzapean (Klimatizazio-ekipoen Fabrikatzaileen Elkarte), klimatizazio-tresnen hondakinak kudeatzeaz arduratzen da. www.afec.es
	Talde-kudeaketa egiteko sistema moduan sortu zuten etxetresna elektriko handien eta txikien fabrikatzaile eta inportatzaileak ordezkatzeko enpresa-elkarateek. www.ecolec.es
	Espainiako Elektronika eta Komunikazio Enpresen Elkarte Multisektorialak hainbat kudeaketa-sistema integratu sortu ditu, horietako bakoitza elkarteak ordezkatzeko dituen arlo askotako batera zuzenduta. Hauek dira ASIMELEC osatzen duten KSI: — ECOASIMELEC — ECOPILAS — ECOFIMATICA — TRAGAMOVIL www.asimelec.es
	Elkarlanean aritzen da gainerako KSlekin eta eskumena duten administrazioekin, herritarrek sentikortzeko kanpainak antolatzen, erabiltzaileak jabe daitezen zein garrantzitsua den Asimeleceko gainontzeko KSlen barruan ez dauden tresna elektriko eta elektronikoko gaika biltzea. www.asimelec.es/raee/fundacionecoasimelec.asp
	Hau da KSI honen helburua: Espainiako merkatuan ari diren pila eta baterien ekoizle eta lehenengo merkaturatzaileen erantzunkidetasun-printzipioa ezartzea, produktu horiek bizitza baliagarriaren bukaerara iristean sortzen diren hondakinak kudeatzeko, prozesuan parte hartzen duten gainerako eragileekin batera. www.ecopilas.es
	Erreprografiako eta ofimatikako ekipoen eta haien kontsumigarrien hondakinak kudeatzeko sistema egituratu bat diseinatu, antolatu eta kudeatzea du helburu. www.ecofimatica.es
	Telefono mugigarrien (telefonoak eta osagarriak) hondakinak gaika biltzeko eta birziklatzeko sistema. www.tragamovil.es

.../...

PRODUKTU ELEKTRIKO ETA ELEKTRONIKOEN KUDEAKETA SISTEMA INTEGRATUEN ZERRENDA (KSI) (jarr.)

ELKARTEA



Lanparak birziklatzeko Elkartea da, lanparen hondakinak tratatzeko (Errege Dekretuan zehaztutako produktuen 5. kategoriaren barruan).
www.ambilamp.com

DESKRIBAPENA



Hauek dira Argiztapen Ekologikorako Fundazioaren helburuak: luminarien eta horiei lotutako ekipoen hondakinak bildu, tratatu, berrerabili, birziklatu, balorizatu eta kontrolatzea, eta produktu horiek berrerabiltzea eta birziklatzea errazteko elementuen diseinua eta ekoizpena sustatzea.
www.ecolum.es

OHARRA: «lanpara» kontzeptuaren barruan, berez, argi-iturria eta luminaria daude (eta luminaria, bestalde, transformadore, abiagailu eta abarrez osatuta dago).
 Luminarien hondakinak kudeatzeko ardura duen KSIa Ecolum da, eta argi-iturrien hondakinak Ambilamp-ek kudeatzen ditu.

4.3. KSI: ERABILTZEN EZ DIREN IBILGAILUAK

KSI: ERABILTZEN EZ DIREN IBILGAILUAK

IRISMENA:	Produktua	Enpresa
MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bai	
	Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:		

Produktuaren gaineko etiketa
identifikagarriak
gabeko sistema

Legezko markaketak ► Borondatezko legezko markaketa ► Ingurumen-baloraziorik gabekak

Europar Batasunak ibilgailuen hondakinak sortzea mugatzen du, eta ibilgailuak zein horien osagarriak bizitza baliagarriaren bukaerara iristen direnean berrerabiltzea, birziklatzea eta horiek balorizatzeko beste modu batzuk sustatzen ditu. Helburu bikoitz hori erdiesteko, Europako fabrikatzaileek bete beharreko hainbat eskakizun ezarri ditu, eta, hala, fabrikatzaileek erraz birziklatzen diren ibilgailuak diseinatu beharko dituzte.

Balio-bizitzaren amaieran (VFU) dauden ibilgailuei buruzko 2000/53/EE Direktiba²⁷ 1383/02 Errege Dekretuaren bidez²⁸ Estatura aldatzean, alderdi hauek bermatu nahi izan dira: ibilgailuen bilketa, berariaz baimenduta dauden tratamendu-zentroetan deskutsatzeko; ibilgailutik ateratako elementu eta osagarrien ingurumen-kudeaketa egokia; eta Erkidegoko Direktibak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko ezarritako helburuak betetzea.

Hauek dira Direktibak arautzen dituen ibilgailuak:

- Gutxienez lau gurpil dituzten ibilgailu motordunak, bidaiarien garraiorako erabiltzen diren eta gehienez ere bederatzirako eserleku dituztenak (M1 kategoria).
- Gutxienez lau gurpil dituzten ibilgailu motordunak, merkantzien garraiorako erabiltzen diren eta 3,5 tonatik beherako gehieneko pisua dutenak (N1 kategoria).
- Hiru gurpil dituzten ibilgailu motordunak.

Arauk erabiltzen ez diren ibilgailuak hondakin multzo gisa kudeatzeko modua ezartzen du, eta, halaber, ibilgailuak osatzen dituzten materialak deskutsatzeko (hondakin arriskutsuak izan daitezkeen osagarriak banandu eta era berezian birziklatzea), berrerabiltzeko eta birziklatzeko era arautzen du. Era berean, ibilgailuak bildu eta deskutsatzeko zentro baimenduen sare bat (CARD) sortzea aurreikusita dago Arauan, Estatuko lurralde osoan banatuta, erabiltzen ez diren ibilgailu guztiak bertara eramateko. Zentro horietan, likidoak eta gasak deskutsatu eta deuseztatuko dira, eta ibilgailuaren osagai guztiak bereiziko dira. Ondoren, hondakinak kudeatzaile espezializatuei bidaliko zaizkie, haiek birzikla eta berrabil ditzaten.

²⁷ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/53/EE Direktiba, 2000ko irailaren 18koa, Balio-bizitzaren amaieran (VFU) dauden ibilgailuei buruzkoa.

²⁸ 1383/2002 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, bizitza baliagarriaren amaierara iritsi diren ibilgailuen kudeaketari buruzkoa.

ERABILTZEN EZ DIREN IBILGAILUEN KUDEAKETA SISTEMA INTEGRATUEN ZERRENDA (KSI)

ELKARTEA

DESKRIBAPENA



Erabiltzen ez diren ibilgailuen ingurumen-tratamendua egiteko Espainiako Elkarteak da, eta ibilgailuen bizitza baliagarriaren bukaerako tratamendu-katean jarduten duten sektore nagusien ordezkariak diren elkarten arteko hitzarmenaren ondorioz sortu da.
<http://www.sigrauto.com>

4.4. KSI: ERABILTZEN EZ DIREN PNEUMATIKOAK

KSI: ERABILTZEN EZ DIREN PNEUMATIKOAK

IRISMENA:	Produktua	Enpresa
MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai	
	Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:		

Produktuaren gaineko etiketa
identifikagarriak
gabeko sistema

Legezko markaketak ► Borondatezko legezko markaketa ► Ingurumen-baloraziorik gabek

Hondakinei buruzko 10/98 Legeak hainbat motatako hondakinak barnean hartzen dituzten berariazko planak prestatzeko beharra ezarri zuen, autonomia-planak elkartzearen ondorioz. Agindu horren emaitza Erabiltzen ez diren Pneumatikoen I. Plan Nazionala izan zen (PNNFU), 2001eko urrian argitaratua. Bertan, betetzen konplexuak diren ekologia-helburu batzuk ezarri ziren, kudeaketa egiteko merkatu librearen esparruan.

Ildo horretan, abenduaren 30eko 1619/2005 Errege Dekretua, erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketari buruzkoa²⁹, 10/98 Legearen aginduak eta printzipioak ibilgailuen pneumatikoei zuzenean ezartzearen ondorio da. Errege Dekretuak duen berezitasunik nabarmenena da pneumatikoen ekoizleak (fabrikatzailea, inportatzailea edo eroslea) pneumatikoa erabili eta gero geratzen den hondakina —hau da, pneumatikoaren bizitza baliagarria bukatutakoan— berrerabiltzeko erantzukizuna duela xedatzea; ekoizleak zuzenean berrerabil dezake pneumatikoa, edo birkautxutzatzeko prozesua egin eta gero (gastatutako errodadura-bandaren ordez, berri bat jartzea).

Pneumatikoen ekoizleen erantzukizun hori zehaztuta dago, eta ordezko piezen merkatura urtero lehen aldiz irten den tona-kopurua da ipinitako muga, hau da, Espainian pneumatikoa besterentzen den lehenengo aldiko tona-kopurua, pneumatikoa Espainian bertan fabrikatuta egon, inportatua izan edo EBko beste herrialde batean erositako den kontuan izan gabe.

Merkatu nazionalen ipinitako pneumatikoak arauaren ezarpen-eremutik kanpo daude, bizikleta-pneumatikoak eta kanpoko diametroa mila eta laurehun milimetrotik gorakoa duten pneumatikoak izan ezik.

²⁹ 1619/2005 Errege Dekretua, abenduaren 230ekoa, erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketari buruzkoa.

ERABILTZEN EZ DIREN PNEUMATIKOEN KUDEAKETA SISTEMA INTEGRATUEN ZERRENDA (KSI)

ELKARTEA

DESKRIBAPENA



Duen helburu nagusia erabiltzen ez diren pneumatikoen tratamendu egokia bermatu eta kudeaketa horren kostuak optimizatzea da, eta, horretarako, pneumatikoak berriz baliatzeko teknika sustatu eta garatzen du. Sistema honetara atxikitako pneumatikoak biltzeko eta kudeatzeko guneetan ikusgarri ipini beharko da erakundearen sinboloa.


www.signus.es




Erabilitako Pneumatikoen Kudeaketa, SL (TNU) izeneko kudeaketa-sistema integratua erabiltzen ez diren pneumatikoak (EEP) ekoizten diren guneen erantzukizunari erantzuna eman nahian sortu zen, pneumatiko horien birziklapena eraginkortasunez kudeatzeko. Pneumatikoak birkautxuztatu, birziklatu, kudeatu eta ekoizten dituzten enpresa nagusiek TNU sortu dute EEPei buruzko errege-dekretu berriaren babespean, irtenbide errealak eta praktikoak ikertzeko eta garatzeko.

www.tnu.es/

ERABILTZEN EZ DIREN PNEUMATIKOEN KUDEAKETA ETA TRATAMENDUA



4.5. KSI: OLIO ERABILIAK

KSI: OLIO ERABILIAK		
IRISMENA:	Produktua	Enpresa
MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	Bai	
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa
BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:		

Legezko markaketak ► Borondatezko legezko markaketa ► Ingurumen-baloraziorik gabeak

75/439/EEE Direktiba³⁰ olio erabilien bilketa eta deuseztapen ez-kaltegarria sustatzeko sortu zen. Gaur egun indargabetuta dago, 2010eko abenduaz geroztik, eta, horren ordez, 2008/98/EE Direktiba³¹ da ordutik aurrera olioak bizitza baliagarria amaitzean kudeatzeari lotutako alderdiak arautzen dituena. Direktiba hori Estatu espainiarreko araudira aldatu zen, 679/2006 Errege Dekretuaren bidez³².

Hasiera batean eman zitzairen erabilera izateko desegokiak diren oinarri mineraleko industri olio edo lubrifikatzaile guztiek bete beharrekoa da. Araudiak ezartzen du erabilitako olioak bildu eta deuseztatzea bermatu behar dela (tratamenduaren edo suntsiketaren bidez, edota lur gainean edo lur azpian metatu eta gordeta), eta lehentasuna izango duela erabilitako olioari birsortze-tratamendua emateak, hau da, fintzeak. Prozedura hori egiten ez denean, beste metodo batzuk erabil daitezke, hala nola: erretzea, suntsitzea, metatzea edo gordetzea. Direktibak ezartzen ditu egoera bakoitzean ezarri beharreko baldintzak. Zehazki, baimendu egiten da enpresek olioak bildu eta deuseztatzea.

Beraz, debekatuta dago olio horiek lur azpiko uretara, itsasoko uretara edota huste-sistemetara botatzea, olioak lurrian gordetzea edo isurtzea ondorio kaltegarriak sortuz gero, eta olio erabilien tratamenduaren ondorio diren hondakinak kontrolik gabe botatzea.

Hala bada, olioak biltzen dituzten enpresa guztiak Estatu mailan erregistratu eta egoki kontrolatu behar dira, baimen-sistema barne, hala badagokio, eta olioak deuseztatzen dituzten enpresa guztiek horretarako baimena eskuratu behar dute.

³⁰ Kontseiluaren 75/439/EEE Direktiba, 1975eko ekainaren 16koa, olio erabilien kudeaketari buruzkoa..

³¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Direktiba, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa eta direktiba jakin batzuk indargabetzen dituena.

³² 679/2006 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, erabilitako industri olioien kudeaketa arautzen duena.

679/2006 Errege Dekretuak³³ III. eranskinean ezartzen ditu arauaren ezarpen-eremuaren barruan dauden oinarri mineral, sintetiko edo abere-jatorrizkoen antzeko olio lubrifikatzaileei dagozkien izendapen konbinatuaren kodeak.

ARAUA	ARAUAREN APLIKAZIO-EREMUA
OLIO LUBRIFIKATZAILEAK ETA GAINERAKOAK	
2710 19 71	Definitutako tratamendu zehatz bat izango dutenak.
2710 19 75	Definitutako tratamendu zehatz baten bidez eraldaketa kimikoa egingo zaienak.
2710 19 81	Motor, konpresore eta turbinen olioak.
2710 19 83	Transmisio hidraulikoetako likidoak.
2710 19 87	Engranaje eta erreduktoreetako olioak.
2710 19 91	Metalak lantzeko olioak, desmoldekatzeko olioak, korrosio-contrako edo herdoilaren kontrako olioak.
2710 19 93	Isolatze elektrikoa egiteko olioak.
2710 19 99	Gainerako olio lubrifikatzaileak eta gainerako olioak.
PETROLIO-OLIOAK EDO MINERAL BITUMINOSOEN OLIOAK DITUZTEN PRESTAKIN LUBRIFIKATZAILEAK	
3403.11.00	Ehun-gaiak, larruak edo beste gai batzuk tratatzeko prestakinak.
3403.19.10	Beste batzuk: % 70eko edo hortik gorako petrolio-edukia edo mineral bituminosoaren edukidutenak pisuan, oinarrizko osagaiak ez direnean.
3403.19.91	Makina, aparatu eta ibilgailuetan erabiltzeko prestakin lubrifikatzaileak.
3403.19.99	Gainerakoak.
3403.91.00	** Ehun-gaiak, larruak edo beste gai batzuk tratatzeko prestakinak.
GAINERAKO PRESTAKINAK	
3403.99.10	Makina, aparatu eta ibilgailuetan erabiltzeko prestakin lubrifikatzaileak, petrolio-olioak edo mineral bituminosoaren olioak dituztenak.
3403.99.90	Gainerakoak.
OLIO LUBRIFIKATZAILEEI GAINERATZEKO GEHIGARRIAK	
3811 21 00	Petrolio-olioak edo mineral bituminosoaren olioak dituztenak.
3811 29 00	Gainerakoak.
3811.90.00	Gainerakoak.
3819.00.00	Balazta hidraulikoetarako likidoak eta transmisio hidraulikoetarako gainerako prestakin likidoak, petrolio-oliorik edo mineral bituminosoaren oliorik ez dutenak, edo pisuan olio horien % 70etik behera dutenak.

³³ 679/2006 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, erabilitako industri olioen kudeaketa arautzen duena.

ERABILTZEN EZ DIREN OLIO ERABILIAREN SISTEMA INTEGRATUEN ZERRENDA (KSI)

ELKARTEA


DESKRIBAPENA



Sektoreko enpresa gehienek —industri olioen fabrikazioaren % 90etik gora— SIGAUSen sorrera bultzatu zuten 2006ko azaroan. SIGAUS atxikitako enpresa fabrikatzaileen ekarpenez finantzatzen da, eta ekarpen hori honetan datza: enpresa horiek kopuru jakin bat jartzen dute merkatu nazionalean lehenengo aldiz jarritako industria-olio kilo bakoitzeko (0,06 €/kg), eta diru hori erabiltako olioen bilketa eta kudeaketa-jarduerak finantzatzeko erabiltzen da. SIGAUSera atxikita egonez gero, identifikatzeko logotipoa erabili ahal izango da, enpresa KSIren barruan dagoela frogatzeko, eta olio-ontzietan ipini beharko da.
www.sigaus.es

05

BORONDATEZKO MARKAKETAK: INGURUMEN-BALORAZIOA EZ DUTENAK




Multzo honen barruan daude produktuei edo horien bilgarriari gehitzen zaizkion sinboloak/etiketak, kontsumitzaileei edo hondakinaren kudeatzaileei produktuari buruzko informazio gehigarria emateko, hala nola, produktua osatzen duten materialen osaera, edo, produktuaren bizitza baliagarria amaitzean, hondakina behar bezala erabiltzeko gomendioak.

Alabaina, etiketa hauetan ez da jasotzen produktuaren ingurumen-ezaugarriari buruzko informazioa, edo produktuaren iraunkortasun-mailari buruzkorik, eta horregatik «ingurumen-baloraziorik ez dutenak» multzoan sailkatzen dira.

Etiketa multzo hau oso zabala da, eta adibide-pare bat besterik ez dugu hemen jasoko, produktu askotan aurki daitezkeen sinbolo batzuk zehaztearren, sinbolo horiek nahasgarriak izan baitaitezke, sinboloak berez ingurumen-informazioa ematen duen edo ez jakiteko orduan.

Produktu bati buruzko ingurumen-aitorpen bezala ez dira ekoetiketak bezain ezagunak (izan ere, esan liteke ekoetiketa dela multzo honen antza handiena duen etiketatze-sistema, gainera, ezaugarri asko partekatzen dituzte eta); hala bada, ekoetiketak aparteko multzo batean jaso ditugu aurrerago, eta dagokien atalean azalduko ditugu horien ezaugarriak.

5.1. LEHENGAIK IDENTIFIKATZEKO KODEAK

LEHENGAIK IDENTIFIKATZEKO KODEAK			
	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai	
		Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
	OHARRAK:		

Borondatezko markaketak ► Ingurumen-baloraziorik gabeak

Materialak borondatez identifikatzeko sistemaren sinboloa hiru gezik eratutako hiruki bat da (gorago Möbiusen hiruki/eraztun/sinbolo izendatu duguna); hirukiaren erdian zenbaki batzuk eta laburdura bat jartzen dira, sinboloa daraman piezan erabilitako materialaren edo materialen izaera adierazteko.

Garrantzitsua da argitzea sinbolo horiek ez dutela aditzera ematen materiala birziklatutako lehengaiak erabilia egin denik, edo materiala birziklatua denik. Hirukiaren barruan ehuneko balio bat baldin badago, ordea, ulertu behar da birziklatutako lehengai-edukiari buruzko informazioa ematen ari dela, baina, orduan, sinbolo hori ez litzateke multzo honen barruan egongo, aurrezagoko atal batzuetan deskribatuko dugun multzoaren barruan baizik (izan ere, materialaren osaerari buruzko informazioa ematen du eta ingurumen-balorazioa egiten du).

Möbiusen Diagramaren adibidea: ezkerrean, material bat identifikatzeko; eta eskuinean, birziklatutako lehengai-edukia adierazteko












Nolanahi ere, sinbolo hau materialak gaika bereizteko kontzientziazioari lotuta erabiltzen da, material horiek bereizi eta, hala, kudeaketa egokia izan dezaten.

Zenbaitetan, sinbolo hori erabiltzea edo ez erabiltzea araututa dago. Adibidez, Batzordearen 97/129/EE Erabakiaren arabera³⁴, borondatezkoa da ontzien materialak identifikatzeko sistema erabiltzea, lehenengo fase batean behintzat. Gainera, 94/62/EE Direktiban³⁵ ezartzen den moduan, «Ontzien bilketa, berrerabilpena eta balorizazioa, birziklapena barne, erraztearren, ontzian adieraziko da erabilitako ontzi-materialaren edo -materialen izaera, horiek kudeatzen dituen industriak identifikatu eta kudeatu ahal izateko».

Behean jaso ditugu materialak markatzeko erabiltzen diren sinboloen adibide batzuk.

LEHENGAIK IDENTIFIKATZEKO KODEAK















	SINBOLOA	MATERIALA	LABURD.	ZK.	ADIBIDEAK
PLASTIKOA		Polietilen tereftalatoa	PET	1	Kristal-itxurako botila gardenak, erretiluak, zumitzak eta xaflak.
		Dentsitate handiko polietilenoa	HDPE	2	Esne-botilak, zabor-poltsak, leungarri-edo garbigarri-botilak.
		Binil polikloruroa	PVC	3	Ontziak, leihoak, hodiak eta kableak.
		Polipropilenoa	PP	5	Zelofana, elikagaiak biltzeko plastikoa, jogurt-ontziak, zereal-poltsak.
		Poliestirenoa	PS	6	Elikagaigintzan erabilitako erabili eta botatzeko erretiluak, etxetresna elektrikoak biltzeko babes-elementuak, salbamendu-jakak.
PAPERA ETA KARTOIA		Kartoi uzurtua	PAP	20	Esne-kaxak, pisu handiko objektuen bilgarriak (etxetresna elektrikoak).
		Papera	PAP	22	Oparitarako papera, paperezko poltsak, bulegoko papera eta inprimatzeko papera.
METALAK		Altzairua	FE	40	Kontserba-latak, pintura-potoak.
		Aluminioa	ALU	41	Freskagarri-latak.

.../...

³⁴ Batzordearen 97/129/EE Erabakia, 1997ko urtarrilaren 28koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ontzei eta ontzi-hondakinei buruzko 94/62/EE Direktibaren arabera ontziak egiteko materialen identifikazio-sistema ezartzen duena.

³⁵ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 94/62/EE Direktiba, ontzei eta ontzi-hondakinei buruzkoa.

LEHENGAIK IDENTIFIKATZEKO KODEAK (jarr.)

	SINBOLOA	MATERIALA	LABURD.	ZK.	ADIBIDEAK
ZURA		Zura	FOR	50	Paletak, eta altzariak orokorrean.
		Kortxoak	FOR	51	Edari-botiletako tapoiak, lurzoruko estaldurak.
EHUNAK		Kotoia	TEX	60	Mota guztietako arropa eta ehunak.
		Jutea	TEX	61	Biltzeko zakuak, sokak eta alfonbrak.
BEIRA		Beira koloregabea	GL	70	Freskagarri-botilak, etxean erabiltzeko edalontziak.
		Beira berdea	GL	71	Ardo- eta cava-botilak.
MATERIAL KONPOSATUAK		Papera eta kartoia + askotariko metalak			
		Papera eta kartoia + plastikoak		81	
		Papera eta kartoia + plastikoa + aluminioa		84	Esne-, zuku-, tomate-tetrabrikak, besteak beste.
		Papera eta kartoia + plastikoa + aluminioa + latorria		85	
		Plastikoa + aluminioa		90	Sendagaiak dituzten ontziak, catering eta ostalaritzan erabiltzeko ontziak.
		Plastikoa + latorria		91	
		Beira + plastikoa		95	
		Beira + aluminioa		96	

5.2. HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA SUSTATZEKO SINBOLOAK

HONDAKINEN KUDEAKETA EGOKIA SUSTATZEKO SINBOLOAK



IRISMENA:	Produktua	Enpresa
MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bai Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:		

Borondatezko markaketak ► Ingurumen-baloraziorik gabeak

Arautu gabeko markak dira, baina merkatuan oso zabalduta daudenak (bereziki ontzien eta bilgarrien merkatuan), eta horien bidez, produktuaren erabiltzaileak horren kudeaketa zuzena egitea lortu nahi da. Hala bada, batez ere gizalegea sustatzea dute helburu, ingurumenaren gaineko kezka sortzea baino areago.

Nolanahi ere, azken urteotan, beste bereizgarri batzuk agertu dira, gizalegezko jokaera horrekin batera, materialak beren osajeraren arabera behar bezala bereiztea bultzatzeko.

Sinbolo berri horien artean, Tetra Pak, bezeroekin alde aurretik adostuta, bere ontzietan ipintzen hasi zen sinboloa nabarmendu behar da. Sinboloaren mezua bidez, kontsumitzaileak kontzientziatu nahi dira, hondakinak sortzen diren unetik bereizteak eta, era horretan, birziklapena errazteak duen garrantziaz («Bereizi birziklatzeko») jabe daitezen; horrez gain, tetrabrik ontziak birziklatzeko non bota behar diren adierazten da («ontzi hau edukiontzi horira»), edukiontziaren ikonoa eta birziklatzeko gezia gehituta. Gaur egun, Tetra Pakek Espainian saltzen dituen ontzien % 98k mezu mota hori daramate.

Mota honetako sinboloen adibideak




Ontziak itzultzeko sistema abian jarri duten Europar Batasuneko herrialde batzuetan, horiez gain, beste sinbolo batzuk ere gehitzen dira; horien bidez, erabiltzaileei gogorazten zaie ontzi hori jasotzeko gunean ematean, itzuli egingo zaiela ontzia erostean ordaindu zuten dirukopurua. Alemanian, adibidez, oso zabaldua dago «Pfand» izeneko mugimendua.



06

BORONDATEZKO MARKAKETAK: INGURUMEN-BALORAZIOA DUTENAK



Multzo honen barruan daude kontsumitzaileei produktuaren ingurumen-ezaugarri buruzko informazio gehigarria emateko, oro har ingurumen-alderdi bakar bat kontuan izanda (adibidez, substantzia arriskutsuak isurtzea, produktua erabiltzean edo produktuaren bizitza baliagarrian), produktu horiei gehitzen zaizkion sinboloak/etiketak. Sinboloek, berez, ez digute informazio zuzenik emango produktu jakin bakoitzaren ingurumen-ezaugarri buruz, baina atzean sailkapen bat duen sistema bat osatzen dute (sailkapen hori jadanik azaldu dugun energia-eraginkortasunaren sailkapenaren antzekoa da), produktuaren iraunkortasuna eskala baten arabera antolatzeko.

Etiketa multzo hau ez da oso zabala, eta gehienetan arau tekniko edo kontrol-erregelamenduek zehazten dute horien inguruko prozedura.

Beraz, etiketatze-sistema bat bakarrik azalduko dugu jarraian, hain zuzen ere multzo honi buruzko adibide bat ematearren; izan ere, multzoaren ezaugarriak ingurumen-baloraziorik gabeko markaketen eta ingurumen-balorazioa duten markaketen erdibidean daude, eta gizarteari dagokionez, gehienbat lanbide-eremuetan jakiten da zein den sinbolo/etiketa horien esanahia.

6.1. FORMALDEHIDO-EDUKIA ZUREZKO TAULETAN

FORMALDEHIDO-EDUKIA ZUREZKO TAULETAN			
E1	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
E2		Bai	
E3	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
E4	OHARRAK:		

Borondatezko markaketak ► Ingurumen-balorazioa dutenak

Airean formaldehidoa egoten bada, barneko aireak kalitate txarra duelako izaten da gehienbat. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar formaldehidoak eragin kaltegarriak izan ditzakeela, epe luzera, bere eraginpean dauden pertsonen osasunean, baita kontzentrazio txikietan badago ere. Konposatu hori zuzenean erabil daiteke —gehienetan uretan eta egonkortzaile batean (formola) disolbatuta—, baina, batez ere, eraikuntzako edo apaintzeko elementuek isurtzen dute gai hori, bereziki zuretik eratorritako partikulez egiten diren tauletan, gero altzarien osagarri moduan, hormen dekorazioan panel moduan edo espazioak bereizteko elementu moduan erabiltzeko. Taula horien eta beste produktu batzuen oinarritzko osagarria den zur-hautsa trinkotzeko erabiltzen diren erretxinen deskonposizioaren ondorioz gertatzen da hori (edo erretxinak gaizki ontzearen ondorioz).

Prebentziorako arau tekniko batek arautzen du formaldehidoaren erabilera: «NTP 466: Airearen kalitatea: Formaldehidoaren ingurumen-zehaztapena eta edukiaren neurketa tauletan», eta produktuan ipintzen den logotipoan letra bat eta zenbaki bat agertzen dira. Zenbakiaren bidez, isuritako formaldehidoaren kopurua adierazten da.

Nolanahi ere, taulen fabrikatzaileak isurpen txikiko itsasgarriak erabiltzen ari dira, edo beste itsasgarri mota batzuk. Formaldehidoaren isurpena zehazteko, besteak beste, klima-ganberetan egindako gas-arraستهaren analisiak egiten dira, EN 717-2 Arauaren arabera. Taulen sailkapenari buruzko araudiaren sailkapenean (EN 13986:2002 Formaldehido-edukiaren eta -isurpenaren zehaztapena), E1 edo E2 izendatu dira, orduko eta taularen metro koadro bakoitzeko isurtzen diren formaldehido-miligramoetan oinarrituta. Gaur egun, zabaldua dago isurpen txikiko taulak (E1) erabiltzea.

Balorazio-irizpideen arabera ezarritako mugako ingurumen-balioak murriztuz joan dira azken urte hauetan, epidemiologiaren alorrean izandako aurkikuntzak kontuan hartuta. Horiei jarraituz, gero eta argiago ikus daiteke formaldehidoaren eraginpean egoteak zerikusi handia duela minbizi mota batzuekin.

Fabrikatzailea da kontrola egin behar duena, ezarritako prozesu baten arabera, eta emaitzak erregistratu eta estatistikaren ikuspegitik ebaluatu behar dira. Datuak bost urtetan gorde behar dira, eta ikuskapena egiten duten erakundeei eman behar zaizkie, hala eskatzen dutenean. Taula markatu behar da eman zaion sailkapenaren arabera, eta informazio hori jasota egon behar da bidalketa-agirian; bertan, markaketaz gain, fabrikatzailea, fabrikazio-hilabetea eta -urtea, eta egin zaion kanpo-kontrola ere adierazi behar dira.

6.2. PRODUKTU, ZERBITZU ETA/EDO ERAKUNDEEN KARBONO-ARRASTOA

PRODUKTU, ZERBITZU ETA/EDO ERAKUNDEEN KARBONO-ARRASTOA			
	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai	
		Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
	OHARRAK:	Ingurumen-alderdi bat bakarrik kontuan hartzen da.	

Borondatezko markaketak ► Ingurumen-balorazioa dutenak

Azkenaldian, planetaren tenperatura igo eta berotegi-efektuari lotutako ingurumen-arazoak gaineko kezka gero eta handiagoak bultzatuta, hainbat egiaztapen-sistema sortu dira, produktuen eta zerbitzuen karbono-arrastoaren kalkuluan oinarrituta.

Horren ondorioz, erakunde eta administrazioek estrategiak, eskakizunak eta, zenbaitetan, BEGak murrizteko berariazko legeriak garatu dituzte (Kyotoko Protokoloa betetzeko emandakoak, esate baterako³⁶).

Karbono-arrastoaren bidez deskriba daiteke erakunde, ekitaldi, jarduera edo produktu baten bizi-zikloari lotuta dauden BEG edo berotegi-efektuko gas guztien isurpenen buruzko kalkulua, Klimaren aldaketan duten eragina zehaztearren.

Berez, karbono-arrastoaren kontzeptua isuritako CO₂ren neurketa hutsa baino areagoko zer-bait da, izan ere, kontuan hartzen dira berotze globalean eragina duten BEG guztiak, gero gas bakoitzaren emaitzak CO₂ren baliokide diren emaitza bihurtzeko. Horregatik, termino zuzena Karbono-arrasto baliokidea izango litzateke, edo CO₂ isurpen baliokideak, nahiz eta praktikan, erosotasunez, Karbono terminoa soilik erabili.

Hala eta guztiz ere, «arriskutsua» da produktu/zerbitzu baten ingurumen-arazoak ingurumen-eraginaren kategorian bakar batean oinarrituta zehaztea (kasu honetan, eragin litekeen berotze globala). Ingurumen-eraginaren kategorian bat bakarrik kontuan izanda sistema baten ingurumen-eragina aztertzean, gerta liteke beste ingurumen-eragin batzuk baztertuta geratzea. Hau

³⁶ PKyotoko Protokoloa (2002ko maiatzaren 31). Protokoloa sinatu zuten herrialdeek konpromisoa hartu zuten sei BEG motaren isurpenak —karbono dioxidoa (CO₂), metano gasa (CH₄), oxido nitrosoa (N₂O), hidrofluorokarbonoak (HFC), perfluorokarbonoak (PFC) eta sulfuro hexafluoruro (SF₆)— orokorrean % 5,2 murrizteko 2008-2012 aldian, 1990ko baliokideen alderatuta. Herrialde bakoitzari helburu desberdin bat esleitu zitzaion, era askotako ekonomia- eta ingurumen-aldagaien arabera, «kargaren banaketa» printzipioan oinarrituta; era horretan, herrialde bakoitzari esleitutako helburua betez gero, erdietsi ahal izango zen % 5,2ko murrizketaren helburu orokorra. Europar Batasunak isurpenak % 8 murrizteko helburua adostu zuen; hala ere, Espainiari dagokionez, hartutako konpromisoa ez zen isurpenak murriztea, isurpenak % 15etik gora ez gehitzea baizik, oinarritzko urtearekin alderatuta. Geroago, 2007ko urtarrilaren 10ean, Europar Batasunak, «Europako Energia Politika Estrategikoa» delakoaren esparruan, BEGak murrizteko ezarritako portzentajea handitzeko konpromisoa hartu zuen, hain zuzen ere % 20ra arte 2020. urterako.

da, litekeena da aztertutako sistemak, CO₂ isurpenei dagokienez, arazo berezirik ez izatea, baina bai ingurumen-eraginaren beste kategoria batean. Arazo hau azaltzeko adibiderik garbiena zentral nuklear batean energia elektrikoa ekoiztea da. Fisioa egin eta elektrizitatea sortzeko prozesuan, berez, ez da CO₂ isurpenik egiten, baina hondakin nuklear arriskutsu ugari sortzen ditu, eta, gainera, kontsumitzen den energia sortzeko bestelako ingurumen-eraginak egin dira.

ISO ARAUA ETA METODOLOGIAK KARBONO-ARRASTOAREN INGURUAN

Jarduera, produktu edo zerbitzu jakin baten karbono-arrastoaren metodologia normalizatzeko xedez, hainbat metodologia sortu eta garatzen ari dira.

ISO 14064tik 14069ra bitarteko arau multzoaren helburua da BEGen isurpenari buruzko txostenak eta BEGak murrizteko edo ezabatzeke adierazpenak sinisgarri egin eta ziurtatzea. Arauak ez dira lerrokatu eskema jakin baten arabera, aitzitik, ez dute loturarik eta merkataritzan edo isurpenak murrizteko proiektuetan nahiz borondatezko mekanismoetan parte har dezaketen erakundeek erabil ditzakete. Arauek BEG mota guztiak hartzen dituzte barnean, eta ez dira mugatzen CO₂ra.

- ISO 14064:2006: Arau honen helburua da BEG edo berotegi-efektuko gasen isurpenei buruzko txostenak eta BEGak murrizteko edo ezabatzeke adierazpenak sinisgarri egin eta ziurtatzea. Hiru zati eta hainbat irizpide ditu BEGak neurtzeko eta egiaztatzeke. Arauek BEGei buruzko datu eta informazioen kudeaketa, txosten eta egiaztapenak egiteke nazioarteko jardunbiderik hobereak definitzen dituzte. Isurpenei buruzko datuak neurtzeko eta egiaztatzeke ikuspegi normalizatuak erabiltzeak ziurtatzen du, adibidez, tona bat CO₂ beti tona bat CO₂ izatea, isurtzen edo metatzen den lekua edozein dela ere.
 - ISO 14064-1:2006. *Greenhouse gases-Part 1: Specification with guidance at the organization level for quantification and reporting of greenhouse gas emissions and removals* (Berotegi-efektuko gasen isurpenak eta deuseztapena neurtu eta horri buruzko txostenak egitea).
 - ISO 14064-2:2006. *Greenhouse gases- Part 2: Specification with guidance at the project level for quantification, monitoring and reporting of greenhouse gas emission reductions or removal enhancements* (BEGen zenbaketa eta txostena, proiektuei dagokienez).
 - ISO 14064-3:2006. *Greenhouse gases- Part 3: Specification with guidance for the validation and verification of greenhouse gas assertions* (BEGei buruzko baieztapenak balioztatzea eta egiaztatzea).
- ISO 14065:2007: berraztertzeke prozesuan dagoen «ISO 14065:2007: Greenhouse gases - Requirements for greenhouse gas validation and verification bodies for use in accreditation or other forms of recognition» araua, egiaztapen- eta balioztapen-prozesuak ziurtatzeko garatu da, eta BEGen egiaztapenak edo balioztapenak egiten dituzten erakundeek bete beharreko baldintzak definitzen ditu. Erakunde horiek ISO 14064-3 Arauaren arabera edo berariazko beste irizpide batzuen arabera —hala nola, isurpenen merkataritzari buruzko eskemak edo arau korporatiboak— kudeatutako datuen egiaztapenak egin ditzakete.
- ISO 14066: «ISO 14066 Greenhouse gases - Competence requirements for conducting greenhouse gas validation and verification engagements with guidance for evaluation» Arauak BEGen balioztapen eta egiaztapenak egiteke beharrezkoak diren eskumen-baldintzak definitzen ditu. ISO 14066 Arauak xehetasunak emango ditu BEGak balioztatu eta egiaztatzen dituzten organismoak egiaztatzeke ISO 14065 Arauan jasota ez dauden eskumen pertsonalei buruz.
- ISO 14067: gaur egun garapen-fasean dagoen «ISO 14067 Carbon footprint of products» Arauak produktuek soilik, eta ez erakundeek, sortutako karbono-arrastoari buruzko kalkulua deskribatuko du. Arauak bi zati izango ditu: lehenengoan, produktuaren beraren

karbono-arrastoaren zenbaketa deskribatuko da, eta bigarreanean, aldiz, hori jakinarazteko era zehaztuko da.

- ISO 14069: era berean garapen-fasean dagoen «ISO 14069 GHG - Quantification and reporting of GHG emissions for organizations (Carbonfootprint of organization) - Guidance for the application of ISO 14064-1» Arauan, ISO 14064-1 Araua ezartzeko oinarritzko ildoak jasoko dira. Helburua erakundeen karbono-arrastoa zehazteko sistematika definitu eta, geroago, BEG isurpenei buruzko informazioa taxutzea da.

ISO arauetz gain, «erreferentziako metodologia edo arau» moduan pixkanaka finkatuz eta kontuan hartuz joan diren hainbat metodologia ere badaude. Metodologia horien bitartez, hainbat alderdi zehazten dira, hala nola: zer BEG kontuan hartu behar den, zer irismen daukan aztertzen ari den produktu/zerbitzuaren bizi-ziklo osoak, zeintzuk diren Karbono-arrastoa kalkulatzeko baimenduta dauden datu-baseak eta ezaugarriak finkatzeko faktoreak, etab. Praktikan, metodologia horiek Karbono-arrastoaren neurketa egiteko proiektu bat burutzeko jarraitu behar den gida dira.

- IPCC: Munduko Meteorologia Erakundeak (WMO) eta Nazio Batuen Ingurumen Programak (UNEP) «Gobernuarteko Aditu Taldea» (IPCC, ingelesezko siglak) sortu zuten. Hau da talde horren helburua: giza jarduerak eragindako Klima-aldaketak berekin duen arriskuari lotutako elementu zientifikoak, aldaketak izan ditzakeen eraginak eta horietara egokitze nahiz aldaketak berak arintzeko aukerak ulertzeko garrantzitsua den informazio zientifiko, tekniko eta sozioekonomikoa zorrotasunez, objektibotasunez, irekitasunez eta gardentasunez aztertzea. Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmena babesten du, berotegi-efektuko gasei buruzko inbentario nazionalen inguruko metodologiaren gaineko lanaren bitartez.
- PAS 2050:2008. Produktu eta zerbitzuen karbono-arrastoaren bizi-zikloaren ikuskapena egiteko zehaztapena: «Carbon Trust» erakundeak eta Erresuma Batuko Gobernuak sortua da «BSI British Standards» izenekoaren bitartez; erakundeek produktu jakin baten bizi-ziklo osoari lotutako BEG isurpena ebaluatu ahal izateko metodologia bat ezarri duen lehenengo estandar edo erreferentziala da.
- PAS 2060:2010. Karbonoaren neutraltasunerako zehaztapena: Enpresetan karbonoaren neutraltasunerako bete beharreko baldintzak ezartzen ditu. Erakundeei karbonoaren neutraltasuna egiaztatze baldintzak eskaintzen dizkie, materia jakin bati dagokionez, jarduerak, produktuak, zerbitzuak, eraikinak, proiektu eta garapen garrantzitsuak, herriak eta hiriak, eta ekitaldiak barne.
- GHG PROTOCOL: «World Resources Institute» eta «World Business Council for Sustainable Development» erakundeek sortutako metodologia da. «Kontabilitate eta Txostena egiteko Estandar Korporatiboa» izendatzen dutena garatu dute. BEGei buruzko inbentarioa prestatzen ari diren konpainia eta beste erakunde batzuei estandarrak eta orientazioa eskaintzen dizkie. Hainbat estandar ditu, desberdinak direnak baina elkarri lotuta daudenak:
 - BEGen protokoloko kontabilitate- eta txosten-estandarra: enpresentzako gida bat da, enpresek egiten dituzten BEG isurpenak neurtzeko eta horri buruzko txostena egiteko.
 - BEGen protokoloko proiektuak neurtzeko estandarra: berariazko proiektuen ondorio diren BEG isurpenen murrizketak neurtzeko gida.
 - Garapen-fasean dago produktu eta hornikuntza-kateen BEGen neurketa eta txostena egiteko estandar berri bat. Estandar berriak barnean hartuko ditu orientazio-agiriak, bizi-ziklo osoko neurketak egiteko.

Epe luzera, litekeena da gaur egun garapen-egoeran dauden ISO 14067 eta 14069 arauak PAS 2050, PAS 2060 eta baita GHG Protokoloa ordezkatzeko. Metodologia horiek oso tresna egokiak dira, eta nazioarteko estandarretan oinarrituta daude, baina ez dira mundu osora zabaldu (adibidez, Japonian edo Alemanian, besteak beste, ez dago oso garatuta, eta horien ordezkokoak sortzen ari dira); hala bada, nazioarteko ISO arau baten bidez, irizpideak bateratu nahi dira.

KARBONO-ARRASTOA NEURTZEKO PROZEDURA, ETA AZALDU DUGU ZER LOTURA DAGOEN PROZEDURAREN ETAPEN ETA PROZESUAN PARTE HAR DEZAKETEN HIRUGARREN ERAKUNDEEN ARTEAN ESKEMA

1. BEG isurpenen inbentarioa

- **Identifikatzea** iturriak eta hustubideak, aztertutako sistemaren irismenaren barruan.
- **Metodologia** desberdinak.

2. Karbono-arrastoaren neurketa

- **Metodologia** desberdinak.
- Software-tresnak, karbono-arrastoa neurtzeko kalkulagailuak, etab.

3. BEG isurpenak mugatzea eta murriztea

- Kutsadura gutxiago sortzen duten teknologiak ezarrita, edo isurpenak murrizteko beste estrategia batzuen bidez.
- Enpresak BEGak murrizteko **programa/ekimenetan** parte hartzea.

4. BEG isurpenak konpentsatzea

- Isurpenak konpentsatzeko proiektuetan parte hartzea, aztertutako sisteman sortzen diren BEG isurpenak neutralizatzeko.

5. Emaitzen berri ematea: **EKOETIKETAK**

- Egindako isurpen-murrizketa egiaztatzen dute.
- Enpresa BEGak murrizteko **programa/ekimenen** batera atxikita dagoela ziurtatzen dute.

PAS 2050/2060



GHG PROTOCOL



IPCC



EKOETIKETAK KARBONO-ARRASTOAREN INGURUAN

Dokumentazio honen irismenaren esparruan (ekoetiketate-sistemak), karbono-arrastoari buruzko etiketek frogatzen dute enpresak betetzen duela egiten duen jarduerari edo fabrikatzen duen produktuari (lortu nahi duen etiketa motaren arabera) lotutako BEGak identifikatzeko eta neurtzeko eta horien Karbono-arrastoa kalkulatzeko prozedura bat. Horrez gain, etiketa horiek ziurta dezakete enpresa BEG isurpenak murrizteko programa edo ekimenen batera atxikita dagoela, eta horren bidez, isurpenak murrizteko prozedura bat ezartzeko konpromisoa hartu duela.

Era berean, etiketa batzuek egiaztatzen dute enpresak karbono-arrastoaren konpentsazioa egiten duela, isurpenak konpentsatzeko proiektuetan (IKP) parte hartuta, aztertutako sisteman egiten diren BEG isurpenak konpentsatzeko³⁷.

KARBONO-ETIKETEN ADIBIDEA



ITURRIA: www.carbon-label.com

³⁷ Isurpenen konpentsazioak ez du berekin izan behar aztertutako proiektu edo produktuak ingurumen-hobekuntzako estrategiaren bat izatea, edo produktua «ekologikoa» izatea. Hori izan da zenbait enpresaren asmoen inguruko zailtasun iturria, izan ere, enpresa horiek egindako publizitate-kanpainetan jokaera ekologiko hori aldarrikatu dute, eta erakutsitako informazioa ez da guztiz gardena, gezurra ez bada ere.

Horren adibide bat da produktu edo jarduera bat karbono neutroa edo CO₂=0 dela baieztatzea. Ulertarazi nahi da ekologikoa dela edo ez duela isurpenik sortzen, baina, egiaz egin den bakarra izan da BEG isurpenak kalkulatu eta dagokiena ordaintzea, IKP baten bidez konpentsatzeko.

Egia da isurpenak konpentsatzeko sistema askotako betebeharretako bat dela isurpenak murrizteko estrategiak burutu izana, baina hori ez da beti gertatzen, eta, horregatik, hainbat administrazioi aditzera eman dute Iraunkortasunaren Behatokia erregistro bat abian jarriko dutela, kontrol objektibo bat bermatzeko.

KARBONO-ARRASTOA



«The Carbon Neutral Company»-ren marka da. Protokolo bat erabiltzen du (Carbon neutral Protocol), atxikitako enpresek BEG isurpenak neurtu eta konpentsazioaren bidez murriztu dituztela egiaztatzeko.

«GHG Protocol» metodologian oinarrituta dago.

www.carbonneutral.com



Carbon Trust enpresak (irabazteko asmorik gabeko elkarteak) sortutako etiketa da, enpresek beren karbono-arrastoa neurtu dutela eta hurrengo bi urteetan arrastoa murrizteko helburuak zehaztu dituztela egiaztatzeko.

«PAS 2050» metodologian oinarrituta dago.

www.carbon-label.com



Estatu Batuetan, isurpenak neurtzeko eta horien murrizketan eta konpentsazioan aholkatzeko ardura duen irabazteko asmorik gabeko erakunde garrantzitsuenetako batek, Carbonfund.org izenekoak, sortu du etiketa hau, enpresek beren karbono-arrastoari dagokionez burutzen dituzten jardunbide egokiak egiaztatzeko.

Berak garatutako metodologian oinarritzen da, datuak «U.S. Department of Energy's Energy Information Agency» erakundetik hartuta.

www.carbonfund.org



«Ecología y Desarrollo» eta «Accionatura» fundazioek batera garatu duten ekimena da, eta Estatuko hainbat administrazio publiko eta udalerriren nahiz INCAE Business School-en babesa du. ZeroCO₂ zigilua bereizgarri bat da, ZeroCO₂-k klima-aldaketaren aurrean osoko konpromisoa —isurpenak kalkulatzeko, murrizteko eta konpentsatzeko prozesuan zorrotasun-irizpideak erabilita— erakusten duten erakundeei ematen diena.

Enpresaren jarduera garatzeko parametro jakin batzuei ezaugarritzeko faktoreak ezartzean oinarrituta dago (IPCCren datuak kontuan hartuta).

www.ceroco2.org

AENOR



CO₂ Calculado gr CO₂

CO₂ compensado

CO₂ reducido

AENOR Espainiako Normalizazio eta Ziurtagiri Elkarteak hiru ziurtagiri eta markaketa mota sortu ditu, karbono-arrastoaren inguruan:

- Kalkulatutako CO₂eq isurpenen AENOR Medio Ambiente marka: karbono-arrastoa nazioartean onartutako erreferentzialak erabilita kalkulatu du (PAS 2050, GHG Protokoloa...). Erabiltzeko eskubidea urtero ematen da.
- Konpentsatutako CO₂eq isurpenen AENOR Medio Ambiente marka: karbono-arrastoa eta horren ondorioz sortutako tonak, konpentsatzen direnak, kalkulatu ditu.
- Murriztutako CO₂eq isurpenen AENOR Medio Ambiente marka: karbono-arrastoa kalkulatu du, eta erakundeak frogatu behar du gutxienez % 3ko murrizketa egin duela, aurreko urtearekin alderatuta.

.../...

BEG-AK MURRIZTEKO EDOTA KONPENSATZEKO PROGRAMAK

EKOETIKETAK

DESKRIBAPENA



Naider euskal erakundeak sustatuta, Eusko Jaurlaritzarekin, EAeko udal nagusiekin eta euskal aurrezki-kutxeekin lankidetzan. Neurrira egindako zerbitzu bat du enpresa edo administrazioentzat, erakundeak sortutako isurpenak zenbatesten eta konpentsazio-plan bat prestatzen lagundu eta prozesu osoa egiaztatzeko.

www.ekopass.org

BESTE BATZUK




PERTSONEN, ERAKUNDEEN ETA JARDUEREN KARBONO-ARRASTOA NEURTZEKO ONLINE KALKULAGAILUAK

(Ez dute zertan ekoetiketa lotuta izan, baina sinbologia «marka identifikagarri» moduan erabiltzen da)



07

BORONDATEZKO MARKAKETAK: EKOETIKETAK



Ekoetiketak enpresen behar bati erantzuteko sortu ziren, izan ere, enpresen produktuen ingurumen-ezaugarriak ezagutzera ematea ahalbidetzen zien sistema bat behar zuten, konkurrentziako produktuen aurrean, eta baita kontsumitzaileen aurrean ere, identifikatu ahal izateko.

Etiketa horiek, hasiera batean, kontsumitzaile mota jakin bat erakartzen zuten, hain zuzen ere, kontsumo-ohituren bidez ingurumen-eraginak murrizteko era bilatzen ari ziren kontsumitzaileak. Hala ere, informazio hori emateko modu estandarrik ez zegoenez gero, eta ekoetiketak garatzeko eta esleitzeko prozesuan parte hartzen zuen hirugarrenik ez zegoenez gero, kontsumitzaileei, azkenean, oso zaila eta nahasgarria gertatzen zitzairen gaiaren inguruan sortu ziren sinbolo ugariak identifikatzea, eta, hala, zalantza handiak zituzten produktuetan ipinitako baieztapenen egiazkotasuna sinisteko.

Ingurumenaren ikuspegitik iraunkorra den kontsumoari buruz gizartearen eta merkatuaren artean zegoen komunikazio-arazo hori konpondu nahian, era ofizialean sortu eta definitu ziren hiru mekanismo, nazioarteko araudiek araututa:

- ISO 14020: Etiketa Ekologikoak eta ingurumen-adierazpenak. Printzipio orokorrak.
- ISO 14024: Etiketa Ekologikoak eta ingurumen-adierazpenak. I motako etiketa ekologikoa. Printzipio orokorrak.
- ISO 14021: Etiketa Ekologikoak eta ingurumen-adierazpenak. Ingurumen-autoadierazpenak (II motako etiketa ekologikoak).
- ISO 14025: Etiketa Ekologikoak eta ingurumen-adierazpenak. III motako etiketa ekologikoak.

ISO 14020 Etiketa Ekologikoak eta ingurumen-adierazpenak. Printzipio orokorrak	I MOTAKO ETIKETAK Ekoetiketak
ISO ARAUA	ISO 14024
ESANAHIA	Etiketa hau daraman produktuak aurretiaz definitutako ingurumen-baldintza batzuk betetzen ditu, onespena duten erakundeek adostuak eta jendeari helarazten zaizkionak.
PRODUKTU «EKOLOGIKOAK» IDENTIFIKATZEN DITU	BAI
BIZI-ZIKLO OSOA BARNEAN HARTZEN DU	BAI
EGIAZTATZEA / ZIURTATZEA	* Egiaztatzea: nahitaezkoa > Hirugarren alderdi independentea * Ziurtatzea: BAI (3. alderdia)
SINESGARRITASUNA	HANDIA
INGURUMEN-BALDINTZA/IRIZPIDE BATZUK BETETZEKO ESKAKIZUNA	BAI
EMATEN DUEN INGURUMEN-INFORMAZIOAREN KOPURUA	GUTXI
KOSTUA	ERTAINA / ALTUA
EZAGUTZE-MAILA	* BEZEROA (B2B): HANDIA * KONTSUMITZAILEA (B2C): TXIKIA Helburua «Best in Class» produktuak saritzea da
ZIURTAGIRIEN ADIBIDEAK	


Borondatezko markaketak ere oro har «ekoetiketak» izendatzen badira ere, hemen, etiketa ekologikoei buruzko ISO 14020 arau-familiak arautzen dituen sistemak zehaztuko ditugu.

Laburbilduta, ekoetiketek honetarako balio dute:

- Fabrikatzaileak egiazta dezan etiketa duen produktuari ezargarri zaizkion ingurumen-baldintzak borondatez betetzen dituela.
- Kontsumitzaileak ingurumenaren ikuspegitik iraunkoragoak diren produktuak identifika ditzan.

II MOTAKO ETIKETAK Ingurumen-autoadierazpenak	III MOTAKO ETIKETAK Produktuaren ingurumen-adierazpena <i>Environmental product declaration</i>	I MOTAKOEN ANTZEKO ETIKETAK
ISO 14021	ISO 14025 (UNE 150.025:2003_ISO 14025)	Araurik ez
Fabrikatzaileak berak egiten ditu bere ingurumen-etiketak —sinboloak edo grafikoak—, bere ingurumen-irizpideak definituta.	Produktu baten ingurumen-portaerari buruzko datu garrantzitsuenak laburbiltzen dituen txosten teknikoak.	Etiketa hau daraman produktuak aurretiaz definitutako ingurumen-baldintza batzuk betetzen ditu, onepena duten erakundeek adostuak eta jendeari helarazten zaizkionak.
BAI, baina ez dute I motako en irismen zabala.	EZ	BAI
EZ	BAI	EZ
* Egiaztatzea: nahitaezkoa > Hirugarren alderdi independentea * Ziurtatzea: bai (berezkoa)	* Egiaztatzea: nahitaezkoa > Hirugarren alderdi independentea * Ziurtatzea: borondatezkoa (3. alderdia)	* Egiaztatzea: nahitaezkoa > Hirugarren alderdi independentea * Ziurtatzea: bai (3. alderdia)
ERTAINA	HANDIA	HANDIA
Borondatezkoa Orokorrak edota berariazkoak	EZ	BAI
ALDAKORRA	ASKO	GUTXI
ERTAINA	ALTUA	ERTAINA / ALTUA
* BEZEROA (B2B): ERTAINA * KONTSUMITZAILEA (B2C): HANDIA Markaren «irudia» bilaka daiteke azkenean	* BEZEROA (B2B): HANDIA * KONTSUMITZAILEA (B2C): TXIKIA Informazio teknikoak, produktuaren azken kontsumitzaileari iristen ez zaiona	* BEZEROA (B2B): HANDIA * KONTSUMITZAILEA (B2C): HANDIA Helburua ahalik eta produktu-kopururik handienera iristea da
		

7.1. ETIKETA EKOLOGIKOAK: I MOTAKOAK-EKOETIKETAK

ETIKETA EKOLOGIKOAK: I MOTAKOAK-EKOETIKETAK			
	IRIS MENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bai	
		Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
	OHARRAK:	ISO 14024	

Borondatezko markaketak ► Ingurumen-balorazioa dutenak

I motako etiketak (oro har, ekoetiketa esaten zaie), ingurumen-etiketak jartzeko borondatezko sistemak dira, eta modu ofizialean identifikatu eta ziurtatzen dute etiketa duten produktuek edo zerbitzuek eragin txikiagoa dutela ingurumenean, bizi-ziklo osoan.

Ekoetiketen artean, hainbat sistema daude, baina guztiek ezaugarri berak partekatzen dituzte funtzionamenduari eta araututa dauden moduari dagokienez (denak definitu behar direlako ISO 14024 Arauaren zehaztapenen arabera); hala ere, desberdintasunak daude haien artean, beren ekoetiketa emateko eskatzen dituzten ingurumen-eskakizunak betetzeko irizpideei dagokienez.

Ziurtatzaile moduan jarduten duen izaera inpartzialeko hirugarren erakunde batek ematen ditu ekoetiketak. Ekoetiketak emateko sistema bakoitzak eskumena duen beste organismo bat du, eskatutako irizpideak kudeatu eta ekoetiketa ematea onartzeko ardura duena.

Ekoetiketa duten produktuek ingurumen-irizpide zorrotzak betetzen dituzte. Ingurumen-irizpideak «produktu multzoen» arabera definitzen dira, eta ekoetiketak emateko sistema bakoitzak bere produktu multzoak definitzen ditu, berariazko ingurumen-irizpideetan oinarrituta. Multzo horiek berariazkoak izan daitezke (garbigailuetan erabiltzeko garbigarriak) edo oso orokorrak (birziklatutako plastikoaz egindako produktuak).

Eskatutako irizpideek produktuaren bizi-zikloaren etapa guztiak hartzen ditu barnean: produktua fabrikatzeko erabilitako materialen osakeratik hasi eta produktuaren bizitzaren amaieran bukatuta, erabilera- edo/eta banaketa-etapak barne.

Ingurumen-irizpide horiek balio-denbora jakin bat dute. Denbora hori igarotakoan, irizpideak berraztertu eta zorrotzago bihur daitezke —merkatuaren eta zientzian eta teknologian izandako aurrerapenen arabera—, ekoetiketa duen produktuak ingurumen-portaera hobea izan dezan. Era horretan, ziurtatu egiten da merkatuan dauden produktuen portzentaje jakin bati soilik eman zaiola ekoetikea: horren bidez, ingurumenaren ikuspegitik hoberenak diren produktuak

«sartu» nahi dira, eta, hala, merkatuko produktuen % 10 - % 20 baino gehiagok ekoetiketa duenean, irizpideak berraztertzen dira, eta ziurtagiriak ere berraztertzen dira. Horren bidez, halaber, etengabeko hobekuntza lortzen da ingurumen-berrikuntzaren alorrean. Ekintza horiek «Best in Class» kontzeptua sustatzera bideratuta daude, hau da, ingurumenaren ikuspegitik hoberenak diren produktuek soilik ekoetiketa eduki ahal izango dutela ziurtatzera.

Oro har, kanpo geratzen dira elikagaiak, edariak eta farmazia-produktuak, eta baita substantzia edo prestakin arriskutsuak ere, edo pertsonentzat edo ingurumenarentzat kaltegarriak diren prozeduren bidez fabrikatu direnak, horiek arautzeko berariazko legeria dagoelako.

Fabrikatzaileek beren produktua ekoetiketa baten bidez ziurtatu nahi dutenean, harremanetan jarri behar dira bere produktuak dagokion multzoari ezarritako irizpideak betetzen dituela egiaztatzeko aukeratutako ekoetiketa emateko eskumena duen organismoarekin. Organismo eskumendun bakoitzak zehazten ditu enpresak etiketa eskuratzeko ordaindu behar dituen tasak, eta horretarako kontuan hartzen ditu enpresak merkaturatzen dituen produktuen kopuruaren arabera aldatzen diren tasak edo prezio finkoko tasak, besteak beste.

Europar, ekoetiketak emateko hainbat sistema nazional daude, eta, halaber, Europako Etiketa Ekologikoa (Europako Lorea ere esaten zaio); azken horren bidez, herrialdeetako sistema guztiak bateratu nahi dira eta ziurtagiriak emateko nazioarteko ekoetiketa-sistema europarra sortu. Fabrikatzaileek beren produktuak egiaztatu ditzakete beren herrialdeko etiketaren bidez, beste herrialde bateko etiketa jarrita, edo Europako Lorearen bidez.


Sistema bakoitzak erabilitako sinboloari buruz esan behar da definitzen dituen produktukategoria guztiek partekatzen dutela sinbolo hori. Adibidez, Europako etiketa ekologikoaren kasuan, Europako Lorea erabiltzen da sistema horren ziurtagiria duten produktu guztietarako, zer produktu multzotakoak diren alde batera utzita.

I motako etiketei dagokienez, «Global Ecolabelling Network (GEN)» izeneko erakundea dago, irabazteko asmorik gabeko erakundea, 1994. urtean sortua, I motako ziurtatze-sistema guztiak batu, irizpideak bateratzen saiatu, ziurtapen-sistema guztiak aldi berean mantendu eta ekiteka horiek sustatzeko asmoz.

Erakunde horretara atxiki eta bertako partaide izan daitezkeen hala nahi duten sistema guztiek. Erakundearen eginkizuna ez da sistemak kontrolatzea, baina sistema berri bat kide bihurtu baino lehen, ISO 14020 eta 14024 betetzen dituela egiaztatuko du.



Ekoetiketate-eredu nazionalak dituzten Europako herrialdeak



Ekoetiketate-eredu nazionalak dituzten mundu osoko herrialdeak



ETIKETATZE-SISTEMA NAGUSIAK, EUROPAKOAK NAHIZ MUNDU OSOKOAK

IZENDAPENA	SINBOLOA	ORGANISMO ESKUDUNA	HERRIALDEA/ ESKUALDEA	WEB ORRIALDEA
Europako Etiketa Ekologikoa		Europako Batzordea	Europa	ec.europa.eu/environment/ecolabel/
Umweltzeichen «Blauer Engel»		Alemaniako Ingurumen Ministerioa	Alemania	www.blauer-engel.de
Nordic Ecolabel / Nordic white Swan		Eskandinaviako Kontseilua (Nordic Ecolabelling)	Norvegia, Finlandia, Islandia, Suedia eta Danimarka	www.svanen.nu
NF Environment		AFNOR (Normalizaziorako Frantses Elkarteak)	Frantzia	www.afnor.org
Stichting Milieukeur		Etxebizitza, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Ministerioa	Holanda	www.milieukeur.nl
AENOR Medio Ambiente		AENOR (Espainiako Normalizazio eta Ziurtapen Elkarteak)	Espainia	www.aenor.es
Ekoznacka		Ministry of the Environment	Txekiar Errepublika	www.ekoznacka.cz
The Polish ecolabel		Polish Centre for Testing and Certification	Polonia	www.pcbc.gov.pl
Mzopu		Ministry of Environmental Protection and Physical Planning	Kroazia	www.mzopu.hr
The Slovak ecolabel		National Programme of Environmental Assessment and Ecolabelling in the Slovak	Eslovakia	
The Hungarian ecolabel		The Hungarian Ecolabelling programme, the use of «Environmentally friendly» label	Hungaria	www.kornyezetbarat-termek.hu
Distintiu		Departament de Medi Ambient	Katalunia	www.gencat.es
Environmental choice Australia		Good Environmental Choice Australia (GECA) Ltd	Australia	www.geca.org.au

ETIKETATZE-SISTEMA NAGUSIAK, EUROPAKOAK NAHIZ MUNDU OSOKOAK (jarr.)

IZENDAPENA	SINBOLOA	ORGANISMO ESKUDUNA	HERRIALDEA/ ESKUALDEA	WEB ORRIALDEA
Environmental choice New Zealand		Environmental choice New Zealand	Zeelanda Berria	www.enviro-choice.org.nz
Green Seal		Green Seal Inc.	Estatu Batuak	www.greenseal.org
Green label		Standard Institute of Israel	Israel	www.sii.org.il
Environmental Choice		Environmental Choice Program	Kanada	www.terrachoice.com
ABNT – Qualidade ambiental		Associação Brasileira de Normas Técnicas (ABNT)	Brasil	www.abnt.org.br
Eco Mark Program		Eco Mark Office, Japan Environment Association	Japonia	www.ecomark.jp
Environmental label certificate		Environmental labelling certificate center of SEPA	Txina	www.zhb.gov.cn
Green Mark Program		Environment and Development Foundation	Taiwan	www.greenmark.org.tw
Koeco		Korea Eco-Products Institute	Korea	www.kela.or.kr
Green label		Green Council	Hong Kong (GC)	www.greencouncil.org
Eco-Mark		Central Pollution Control Board	India	www.cpcb.delhi.nic.in
Green choice		Clean & Green Foundation, Inc.	Filipinak	
Singapore Green Label Scheme		Singapore Environment Council	Singapur	www.sec.org.sg
Green label		Thailand Environment Institute	Thailandia	www.tei.or.th
ANAB		Arkitektura Bioekologikoko Elkarte Nazionale	Italia	www.anab.it

Hala ere, oztopo handiak daude ekoetiketatzea garatu ahal izateko. Horien artean, hauek dira aipagarriak:

- Herraldeetan ekoetiketatze bateraturik ez egotea, funtsean ekonomia, gizarte, politika eta teknikaren arloetako alderdi askotarikoen ondorioz. Hala eta guztiz ere, gero eta ekintza gehiago egiten dira, ekoetiketatze irizpideak harmonizatze eta, era horretan, produktu ekologikoen eskaintza egiaztatua eta ekoetiketak mundu osoan aintzatestea bultzatzeko (adibidez, Europako Lorearen aldetik).
- Prozesuaren konplexutasuna. Eskatzen diren ingurumen-baldintza guztiak betetzen direla frogatzea garestia eta nekeza izan daiteke askotan. Produktuaren inguruko probak eta saiakuntzak egin behar dira, dokumentazio teknikoa prestatu eta eskaeraren onespena lortu, egokiak diren tasak ordainduta.
- Sistema mundu-mailakoa ez izatea, izan ere, ekoetiketatze-sistema bakoitzean, produktu-kategoria jakin batzuei soilik zuzenduta dauden ingurumen-eskakizunak finkatuta daude. Gainera, produktu-kategoria batek ez ditu sistema guztietan eskakizun berak bete behar.
- Kostua. Urtero egiten diren saiakuntzen eta ordaintzen diren tasen ondorioz, ekoetiketa bat lortzeak kostu bat du, enpresak kontuan hartu behar duena, eta hori oztopoa da enpresa askorentzat, nahiz eta beren produktuak eskatutako irizpideak bete. Hori sistemaren beraren aurkakoa da, ez baitira beti ingurumen-kaliterik handiena duten produktuak ekoetiketa dutenak.
- «Best in Class» kontzeptuak mugatu egiten du ekoetiketa horiek dituzten produktuen kopurua, eta, beraz, kontsumitzaileak ez daude ohituta ekoetiketak produktuetan ikusten.
- Ezagutze-maila txikia herritarren artean. Adierazitako guztiaren ondorioz (ekoetiketa-eredu desberdinak, berez ekoetiketak ez diren gainerako bereizgarri eta markak, kostua, etiketak dituzten produktuen kopuru txikia...), kontsumitzaileek, orokorrean, ez dira ekoetiketaren sinboloa edo zer etiketatze-sistemaren irudia den ezagutzeko gauza.

Hala eta guztiz ere, komenigarria da jakitea zeintzuk diren produktu-kategoria bakoitzean aurkitzen diren ekoetiketatze-sistemak, izan ere, askotan, etiketa ekologikoaren prestazio-maila produktuentzat arau bihurtu da geroago.

Ez dugu ahaztu behar ekoetiketen bertute bat, alegia, portaera teknikoaren maila bat zehazten dutela —ingurumenari dagokionez, teknologiaren ikuspegitik lor daitekeena eta ekonomiaren aldetik bideragarria dena (eta horren froga da merkatuan irizpide horiek betetzen dituzten eta ekonomikoki lehiakorrek diren produktuak egotea)—; beraz, oso oinarri ona osatzen dute etorkizunean ingurumenaren alorrean araubide eta legediak emateko.

Ondoren, sistema garrantzitsuen ezaugarriak azalduko ditugu. Hala ere, Europako Etiketa Ekologikoa sistema soilik aztertuko dugu sakontasunez, nazioartean Europako adierazgarriena delako eta sistema guztiek antzeko ezaugarriak dituztelako funtzionamenduari eta arautzeko moduari dagokienez (den-denak definitu behar baitira ISO 14024 Arauaren zehaztapenei jarraituz).

Informazio guztia ingurumen-aitorpena emateko sistema bakoitzaren web orrialdetik atera dugu.

7.1.1. EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA

EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA

SINBOLOA:



JARDUERA-EREMUA:

Europako Batasuna



SORRERA URTEA:

1992

ERAKUNDE ARDURADUNA:

Estatu kide bakoitzak bereak ditu

ZIURTAGIRIA DUTEN ENPRESAK:

1.200 enpresa inguru³⁸

ZIURTAGIRIA DUTEN PRODUKTUAK:

7.750 produktu, gutxi gorabehera³⁹

KATEGORIA-KOPURUA:

24

Borondatezko markaketak ► Ekoetiketak

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 66/2010 Erregelamenduak, EEko etiketa ekologikoari buruzkoak, arautzen du Europako Etiketa Ekologikoaren garapena. Bertan, oinarritzko parametroak zehaztu dira, estatu kide bakoitzeko erakunde eskudunak sortzeari eta EEko etiketatze ekologikoa emateko batzordeari dagokienez, eta baita irizpideen eskakizun orokorrei, irizpideak berraztertze prozedurari, etiketa emateko baldintzei eta abarri dagokienez ere.

Produktu multzo gehiago daude —hamar bat—, gaur egun aztertzen ari direnak, epe finkorik gabe, halere. EEko etiketa ekologikoaren irizpideak oinarrituta daude produktuen ingurumen-portaeran, ingurumenaren esparruan Europako Erkidegoak dituen helburu estrategiko berrienak kontuan hartuta.

³⁸ 2011ko iraila arte.

³⁹ 2011ko iraila arte.

PRODUKTU-KATEGORIAK

PRODUKTU MULTZOAK

Erabilera orokorreko garbigarriak eta sukaldeak eta bainuak garbitzeko produktuak	Landatzeko baliabideak eta medeatzeak
Ontzi-garbigailurako garbigarriak	Bonbillak
Baxera eskuz garbitzeko garbigarriak	Bero-punpak
Garbigarriak	Lubrifikatzaileak
Xaboiak, xanpuak eta ile-moldatzaileak	Koltxoia
Ehun-gaiak	Papera
Oinetakoak	Zeta-papera
Pinturak eta bernizak	Kanpin-zerbitzuak
Ordenagailu pertsonalak	Turismoko ostatu-zerbitzuak
Ordenagailu eramangarriak	Zurezko estaldurak
Telebistak	Ehunezko estaldurak
Lurzoru gogorreko estaldurak	Egurrezko altzariak

Irizpide horiek era zientifikoa zehaztuko dira, produktuen bizi-ziklo osoa aztertu eta gero. Irizpide horiek zehazteko orduan, oinarri izango dira alderdi hauek:

- Ingurumen-eragin garrantzitsuenak. Bereziki, Klima-aldaketaren gaineko eragina, naturaren eta Biodibertsitatearen gaineko eragina, energiaren eta baliabideen kontsumoa, hondakinak sortzea, natur ingurune guztietara isurpenak egitea, efektu fisikoen bidezko kutsadura, eta substantzia arriskutsuak erabiltzea eta askatzea.
- Substantzia arriskutsuen ordezkariak diren beste batzuk erabiltzea, edo hautazko material edo diseinuak erabiltzea, betiere teknikoki bideragarria bada.
- Iraunkortasuna dela-eta ingurumen-eragina murrizteko aukera, eta produktuak berrerabilgarri izatea.
- Aztertutako produktuen bizi-zikloaren fase guztietan dagoen ekologia-kargen eta -onuren arteko ingurumen-oreka garbia, osasunaren eta segurtasunaren alderdiak barne.
- Egokia denean, etika- eta gizarte-alderdiak.
- Beste etiketa ekologiko batzuen irizpideak, eta bereziki nazio- edo eskualde-mailan era ofizialean onartu diren I motako EN ISO 14024 ingurumen-etiketak, produktu-kategoria horretarako daudenean, sinergiak hobetzeren.
- Ahal den neurrian, aberekin saiakuntzak egitea murrizteko helburua.


Adierazi behar da Europako Etiketa Ekologikoa ez zaiela emango irizpide batzuen arabera sailkapen jakin baten barruan dauden substantzia edo prestakinak dituzten produktuei, eta zehazki era honetan sailkatuta daudenei: toxikoak, arriskutsuak ingurumenarentzat, kartzinogenoak, mutagenoak edo toxikoak ugalketarako (CMR), Europako Parlamentuaren 1272/2008 Erregelamenduari jarraituz⁴⁰. Era berean, ez zaie emango 1907/2006 Erregelamenduaren (REACH) 57. artikuluan jasotako substantziak dituztenei⁴¹.

⁴⁰ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1272/2008 Erregelamendua, 2008ko abenduaren 16koa, substantzia eta nahasketak sailkatzeari, etiketatzeari eta ontziratzeari buruzkoa.


⁴¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 Erregelamendua, 2006ko abenduaren 18koa, substantzia eta prestakin kimikoen erregistro, ebaluaketa, baimen eta murrizketari buruzkoa (REACH), Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia sortzeko.

Batzordeak neurri zehatzak hartu ahal izango ditu aurreko paragrafoan aipatutako substantziak erabiltzeko salbuespenak ematearren, substantzia horiek dituzten produktuak berariazko kategorien kasuan (baldin eta teknikoki bideraezina bada horien ordez beste batzuk erabiltzea, edo hautazko material edo diseinuen bidez) edo kategoria bereko produktuena baino ingurumen-eraginkortasun orokor handiagoa duten produktuak direnean.

ETIKETA 1992AN SORTU ZENETIK EMANDAKO ZIURTAGIRI-KOPURUA (2010EKO ABUZTU ARTE⁴²)




ZIURTAGIRI-KOPURUA HERRIALDE BAKOITZEKO. ESPAINIA HIRUGARREN POSTUAN DAGO, 71 BAIMEN EMANDA (2010EKO ABUZTU ARTE⁴³)



⁴² http://ec.europa.eu/environment/ecolabel/about_ecolabel/facts_and_figures_en.htm

⁴³ http://ec.europa.eu/environment/ecolabel/about_ecolabel/facts_and_figures_en.htm

PRODUKTU MULTZOAK ETA EMANDAKO BAIMEN-KOPURUA (2010EKO ABUZTU ARTE⁴⁴)



ERAKUNDE ESKUDUNAK

Estatu kide bakoitzak izendatu behar ditu 66/2010 Erregelamenduan jasotako eginkizunak betetzeko ardura duten organismoak, gobernuako ministerioen barruan edo horietatik kanpo. Erakunde eskudun horiek berrmatuko dute ebaluatu behar den operadorearekin zerikusia ez duen eragile batek egiaztatze prozesua modu koherente, neutro eta fidagarrian burutuko duela, eta prozesua produktuei ziurtatze-sistemak ezartzen dituzten erakundeak arautzen dituzten Estatuko, Europako eta nazioarteko arau eta prozeduretan oinarrituko dela.

EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA EMATEKO ESKUMENA DUTEN ERAKUNDEAK

ERAKUNDEAK

EUROPA



- European Commission Directorate – General Environment.
- Directorate D (Implementation and enforcement).
- ENV.D3 (Industry and Implementation).

ESPAINIA



- Ingurumen Ministerioa.
- Ingurumen Idazkaritza Nagusia.
- Ingurumenaren Kalitate eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia.
- Ingurumenaren Ebaluazio eta Arloko Jarduketetako Zuzendariordetza Nagusia.

EUSKADI



- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza Eta Arratza Saila.
- Ingurumen Sailburuordetza - Ingurumen Plangintzako Zuzendaritza.

⁴⁴ http://ec.europa.eu/environment/ecolabel/about_ecolabel/facts_and_figures_en.htm

2008ko abenduan, 202/2008 Dekretua⁴⁵ argitaratu zen EHAAn; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza izendatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eskudun. Eskumen horiek bere gain hartzearen ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegora lekualdatu dira Euskadiko enpresek, lehenago, ordezko izaeraz, Kataluniako Generalitateko Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza Nagusiaren bidez lortu zituzten ekoetiketen espedienteak eta berriz esleitutako erregistro-zenbakiak; horren ondorioa da, halaber, Euskadiko Ingurumeneko sailburuordeak Europar Batasunaren Etiketa Ekologikoko ziurtagiri berriak ematea⁴⁶.

EUROPAR BATASUNeko ETIKETA EKOLOGIKORAKO BATZORDEA

Europako Batzordeak «Europar Batasuneko Etiketa Ekologikorako Batzordea» sortu du (EBEEB), estatu kide guztietako erakunde eskudunek eta beste interesdun alderdi batzuek osatua. Batzorde horrek lagundu egiten du Eeko etiketa ekologikoa emateko irizpideak zehazten eta berraztertzen, eta Eeko etiketa ekologikoaren sistema ezartzeko beharrezkoak diren berrazterketa guztiak egiten.

Nolanahi ere, batzordearen helburu nagusia da produktu-kategoria bakoitzaren aldetik interesatutako alderdi guztien parte-hartze orekatua lortzea —hala nola, erakunde eskudunak, ekoizleak, fabrikatzaileak, zerbitzuen hornitzaileak, handizkariak, txikizkariak, eta bereziki ETEak, eta ingurumena babesteko elkarrekin nahiz kontsumitzaileen elkarrekin—.

ZIURTAGIRIAREN KOSTUA

Oro har, maila hauek ezarri dira ziurtagiria hasieran erregistratzeko eta urtero berritzeko tasetan:

TASA ⁴⁷	GUTXIENEOA	GEHIENEOA	BEHERAPENAK
ERREGISTROKO HASIERAKO TASA	200€	1.200€	<ul style="list-style-type: none"> – % 20 gutxiago, ISO 14001 edo EMAS ziurtagiriak dituzten enpresei. – 600€ gutxiago (gehienez), ETE eta garapen bidean dauden herrialdeetako eskatzaileei. – 350€ gutxiago (gehienez), mikroenpresentzat.
URTEKO TASA	–	1.500€	<ul style="list-style-type: none"> – 750€ gutxiago (gehienez), ETE eta garapen bidean dauden herrialdeetako eskatzaileei. – 350€ gutxiago (gehienez), mikroenpresentzat.

Hala ere, erakunde eskudun bakoitzak ziurtatzen dituen produktuei ezarriko dizkien tasen eta beharpenen zenbateko zehatza adierazteko erantzukizuna du.

Euskadin, tasa horiek zehaztu eta eskatuko zaizkie eskatzaileei EAEko Tasa eta Prezio Publikoek buruzko Legea aldatzen den unean.

⁴⁵ 202/2008 Dekretua, etiketa ekologikoa emateko europar sistema eguneratuari buruzko uztailaren 17ko 1980/2000 Araudian jasotako eginkizunetarako erakunde eskuduna esleitzeko.

⁴⁶ http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-orokorra/es/contenidos/noticia/ecoetiqueta/es_ecolabel/indice.html

⁴⁷ http://ec.europa.eu/environment/ecolabel/ecolabelled_products/application_procedure_en.htm


ETIKETA EKOLOGIKOA EMATEKO IRIZPIDEAK SORTU EDOTA BERRAZTERTZEA. PRODUKTU MULTZO BERRI BAT SORTZEA

Etiketa Ekologikorako Batzordeari kontsulta egin eta gero, estatu kideek, erakunde eskudunek eta beste interesdun alderdi batzuek hasiera eman ahal izango diote Eeko etiketa ekologikoa emateko irizpideak prestatzeari edo berraztertzeari eta jarduketa hori zuzendu. Aipatutako interesdun alderdiek irizpideen prestatzeari zuzentzeko ardura dutenean, frogatu behar izango dute produktuaren sektorean ezagutza espezializatuak dituztela, eta prozesua neutraltasunez zuzentzeko gaitasuna dutela. Horiek horrela, lehentasuna izango dute interesdun multzo batek baino gehiagok osatuta dauden kontsultzioek.

Eeko etiketa ekologikoa emateko irizpideen prestatzeari edo berraztertzeari hasi edo zuzentzen duen alderdiak, 66/2010 Erregelamenduaren I. eranskineko A zatian zehaztutako prozedurari jarraituz, agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Aurretiazko txosten bat.
- Irizpideak proposatzeko proiektu bat.
- Irizpideak proposatzeko proiektuaren aldeko txosten tekniko bat.
- Amaierako txosten bat.
- Gidaliburu bat, Eeko etiketa ekologikoa erabil dezaketen pertsona eta erakunde eskudunentzat.
- Gidaliburu bat, kontratu publikoak esleitzen dituzten agintarientzat.

I motako EN ISO 14024 ingurumen-etiketen eskakizunak betetzen dituen beste etiketa ekologiko baten arabera irizpideak finkatu direnean Eeko etiketa ekologikoa emateko irizpideak zehazturik ez dauzkan produktu-kategoria bati ezartzeko, etiketa ekologikoaren beste sistema hori onartua duten estatu kide guztiek aipatutako irizpide horiek proposatu ahal izango dituzte, EBko Batzordearekin eta Etiketa Ekologikorako Batzordearekin kontsultatu eta gero, Eeko etiketa ekologikoaren sisteman gara daitezten.



EUROPAKO ETIKETA EKOLOGIKOA LORTZEKO PROZESUA ETA ETIKETA ERABILTZEKO BALDINTZAK

Eeko etiketa ekologikoaren bidez produktu bat edo gehiago ziurtatu nahi duten enpresa guztiak eskaera bat aurkeztu behar dute (erakunde eskudunak 66/2010 Erregelamenduan jasotakoaren arabera definitutako eskaera-eredua) eskumena duen organismoaren aurrean. Eskaeretan, operadorearekin harremanetan jartzeko datu guztiak jaso behar dira, eta baita zer produktu-kategoria den ere, eta produktuaren osoko deskribapena egiteaz gain, erakunde eskudunak eskatzen duen bestelako informazioa ere eskainiko da.

Eeko etiketa ekologikoa produktuari ezargarri zaizkion Eeko etiketa ekologikoaren irizpideak betetzen direnean soilik erabili ahal izango da produktuan, eta etiketa eman zaion produktuan bakarrik.

Eskaera jasotzen duen erakunde eskudunak egokiak diren tasak ordaintzea eskatuko du. Eeko etiketa ekologikoa erabiltzeko baldintza izango da tasak garaiz ordaintzea.


Eskaera bat jaso eta bi hilabeteko epean, erakunde eskudunak egiaztatuko du agiri guztiak aurkeztu direla, eta, horren arabera, jakinarazpena igorriko dio operadoreari. Erakunde eskudunak eskaera baztertu ahal izango du, operadoreak aipatutako jakinarazpena eman eta sei hilabeteko epean agiri guztiak aurkezten ez baditu.

Dokumentazioa osorik dagoenean eta erakunde eskudunak frogatzen duenean produktua Eeko etiketa ekologikoaren irizpideak eta ebaluazio-eskakizunak betetzen dituela, erakunde eskudunak erregistro-zenbaki bat esleituko dio produktuari.

Enpresa eskatzaileek ordaindu beharko dituzte Eeko etiketa ekologikoaren irizpideen arabera egindako saiakuntzen eta ebaluazioaren kostuak.

Ekoizpen-instalazioek Eeko etiketa ekologikoa emateko irizpideei jarraituz eskakizun jakin batzuk bete behar dituztenean, etiketa daraman produktua fabrikatzeko instalazio guztietan bete beharko dira eskakizun horiek. Erakunde eskudunak *in situ* egiaztapenak egingo ditu, egokia bada, edo baimendutako pertsona bat izendatuko du horretarako.

ETIKETA ESKATZEKO PROZEDURAREN LABURPENA



Enpresa eskatzaileak Eeko etiketa ekologikoa produktuan ipini ahal izango du erakunde eskudunaren eta enpresaren arteko kontratua sinatu denean. Enpresa eskatzaileak, halaber, erregistro-zenbakia ipiniko du etiketa ekologikoa daraman produktuan.

- Eskaera-eredua: erakunde eskudunari eskatzen zaion dokumentua; bertan, informazio hau jaso behar da: enpresa eskatzailea, ziurtatu beharreko produktua, eta jarduera indarrean dagoen araudiaren arabera egiten ari dela egiaztatzen duten agiriak (irekitzeko baimena, sailkatutako jardueran aritzeko baimena...). EMAS erregistroan inskribatuta egonez gero, nahikoa izango da egoera horri buruzko berariazko adierazpena aurkeztea.
- Ebaluazio-txostena: produktuak produktu-kategoria bakoitzari esleitutako ekologia-irizpide bakoitza eta guztiak betetzen dituela egiaztatzeko. «Application Pack» txosten-ereduak daude produktu-kategoria bakoitzari buruzko fitxan: http://ec.europa.eu/environment/ecolabel/ecolabelled_products/product_categories_en.htm
- Egiaztatzeko txostena: Eeko etiketa ekologikoak barnean hartzen duen produktu-kategoria bakoitzari esleitutako irizpideak betetzen direla egiaztatzeko. Txostena operadorea ez den erakunde akreditatu independenteak egin behar du. Ihobe, S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak burutuko ditu egiaztatzeko txostenak.
- Tasaren ordainketaren agiria: Une honetan (2010eko otsailaren 1ean) ezin da dokumentazio hori eskuratu. Tasak eskatzaileei eskatuko zaizkie, EAEko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legean egokia den aldaketa egin eta gero.

Europako etiketa ekologikoa daramaten produktuak dituzten euskal enpresa batzuk



7.1.2. BLAUER ENGEL (AINGERU URDINA)

BLAUER ENGEL (AINGERU URDINA)

SINBOLOA:

JARDUERA-EREMUA:
Alemania

SORRERA URTEA:

1978

ERAKUNDE ARDURADUNA:

 Alemaniako Ingurumen Ministerioa.
The Federal Ministry for the Environment
Nature Conservation and Nuclear Safety

ZIURTAGIRIA DUTEN ENPRESAK:
12.540 enpresa⁴⁸
ZIURTAGIRIA DUTEN PRODUKTUAK:

5.657 produktu

KATEGORIA-KOPURUA:

107

Borondatezko markaketak ► Ekoetiketak

Etiketaren titularra Alemaniako Ingurumen Agentzia da (The Federal Environment Agency). Agentziak, Ekoetiketako Departamentuaren bitartez («Eco-labelling, Eco-declaration and Eco-procurement» department), produktu multzoen inguruko irizpideak garatzen ditu. Kalitatea Ziurtatzeko eta Seinalatzeko Institutua (RAL e.V.) ziurtapena egiteko eginkizuna duen erakundea da.

PRODUKTU-KATEGORIAK

PRODUKTU MULTZOA

RAL-UZ 2

Returnable Bottles and Glasses

RAL-UZ 5

Sanitary Paper Products made of Recycled Paper

RAL-UZ 12a

Low-pollutant Varnishes (Edition July 2010)

RAL-UZ 12a

Low-pollutant Varnishes (Edition April 2010)

RAL-UZ 116

Photovoltaic Products

RAL-UZ 117

Low Emission Upholstered Furniture

RAL-UZ 118

Gas powered Heat Pumps

RAL-UZ 119

Mattresses

.../...

⁴⁸ 2011ko iraila arte.

PRODUKTU MULTZOA (jarr.)

RAL-UZ 13 Salt-free Abrasives	RAL-UZ 120 Elastic Floor Coverings (Edition February 2011)
RAL-UZ 14 Recycled Paper	RAL-UZ 120 Elastic Floor Coverings (Edition April 2010)
RAL-UZ 17 Compostable Plant Containers and other Moulded Parts	RAL-UZ 121 Energy-Efficient Heat Pumps using an Electrically Powered Compressor
RAL-UZ 21 Low-noise Waste-Glass Containers for Noise-Sensitive Areas	RAL-UZ 122 Office Equipment with Printing Function (Printers, Copiers, Multifunction Devices)
RAL-UZ 24 Environmentally Acceptable Pipe Cleaners	RAL-UZ 123 Low-Emission Sealants for Interior Use
RAL-UZ 27 Returnable Transportation Packagings	RAL-UZ 124 Energy-Efficient Hot Water Storage Tanks
RAL-UZ 30a Products made from Recycled Plastics	RAL-UZ 125 Baby Monitors
RAL-UZ 32 Water-saving Flushing Boxes	RAL-UZ 126 Carbon Dioxide Cleaning Services
RAL-UZ 34 Non-Toxic Indoor Pest Control and Prevention	RAL-UZ 127 Digital Projectors
RAL-UZ 35 Wallpapers and Woodchip Wall Coverings primarily made of Recycled Paper	RAL-UZ 128 Low-Emission Textile Floor Coverings
RAL-UZ 38 Low-Emission Wood Products and Wood-Base Products	RAL-UZ 129 Low-Noise and Low-Pollutant Garden Tools
RAL-UZ 47 Solar-powered Products as well as Mechanical Clocks and Torches	RAL-UZ 130 Wooden Toys
RAL-UZ 48 Rapidly Biodegradable Chain Lubricants for Motor Saws	RAL-UZ 131 Digital cordless phone
RAL-UZ 53 Low-noise Construction Machinery	RAL-UZ 132 Low-Emission Thermal Insulation Material and Suspended Ceilings for Use in Buildings
RAL-UZ 54 Low-Noise Garden Shredders	RAL-UZ 133 Water boilers, electric kettles
RAL-UZ 55 Reprocessed Toner Modules	RAL-UZ 134 power strip with master/slave switching
RAL-UZ 56 Recycled Cardboard	RAL-UZ 135 Netbooks
RAL-UZ 57 Thermal Processes (Hot-air Technique) to Control Ligniperdous Insects	RAL-UZ 136 Espresso Machines /Coffee machines with high pressure

.../...

PRODUKTU MULTZOA (jarr.)

RAL-UZ 59 Low-Noise and Low-Pollutant Municipal Vehicles and Buses	RAL-UZ 137 Washing machines
RAL-UZ 61 Low-emission and Energy-saving Gas-fired Calorific-Value Heating Devices	RAL-UZ 138 Refrigerators
RAL-UZ 64 Rapidly Biodegradable Lubricants and Forming Oils	RAL-UZ 139 Gas cooker and gas-fired cooking appliances
RAL-UZ 65 Unbleached Filter Papers for Use with Hot or Boiling Water	RAL-UZ 140 External Thermal Insulation Composite Systems (ETICS)
RAL-UZ 67 Lead-free Products	RAL-UZ 141 Eco-Friendly Ship Design
RAL-UZ 72 Printing and Publication Papers	RAL-UZ 142 Household Energy Meters
RAL-UZ 73 Solar Collectors	RAL-UZ 143 Electric Ovens for Household Use
RAL-UZ 76 Low-emission Composite Wood Panels	RAL-UZ 144 DVD Recorders, DVD Players, Blu-ray Disk Players
RAL-UZ 77 Fabric Towel Rolls Supplied in Towel Dispensers	RAL-UZ 145 Television Sets
RAL-UZ 78 Workstation Computers - Tastaturen	RAL-UZ 146 Compact Hi-Fi Systems
RAL-UZ 78 Workstation Computers - Systemeinheiten	RAL-UZ 147 Household Cooker Hoods
RAL-UZ 78 Workstation Computers - Tragbare Computer	RAL-UZ 148 Low-emission upholstery leathers
RAL-UZ 78 Workstation Computers - Bildschirmgeräte	RAL-UZ 149 Microwave Ovens
RAL-UZ 78a Computer	RAL-UZ 150 Voice over IP
RAL-UZ 78b Key Boards	RAL-UZ 151 lamps
RAL-UZ 78d Portable Computers	RAL-UZ 152 Household Dishwashers
RAL-UZ 79 Rapidly Biodegradable Hydraulic Fluids	RAL-UZ 153 Technically Dried Wood Chips / Wood Pellets
RAL-UZ 81 Electronic Ballasts for Fluorescent Lamps	RAL-UZ 154 Textiles
RAL-UZ 82 Low-Waste Change-Top Brushes	RAL-UZ 155 Shoes
RAL-UZ 84a Sanitary Additives Compatible with Wastewater Treatment Plants	RAL-UZ 156 Flooring Underlays

PRODUKTU MULTZOA (jarr.)

RAL-UZ 84b Flushing-Water Additives Compatible with Clarification Plants	RAL-UZ 158 E-Book Reader
RAL-UZ 87 Low-Energy Hot-Air Hand Driers	RAL-UZ 159 Textile Toys
RAL-UZ 89 Low-Noise and Fuel-Saving Automobile Tires	RAL-UZ 160 Router
RAL-UZ 92 Rechargeable Alkaline/Manganese-Batteries	
RAL-UZ 99 Movement Area De-Icers for Airfields	
RAL-UZ 100 Car Sharing (Edition July 2010)	RAL-UZ 111 Wood pellet stoves (Edition February 2011)
RAL-UZ 102 Low-Emission Wall paints	RAL-UZ 111 Wood pellet stoves (Edition February 2007)
RAL-UZ 103 Soda Makers	RAL-UZ 112 Wood pellet boilers (Edition February 2011)
RAL-UZ 104 Wet-Cleaning Services	RAL-UZ 112 Wood pellet boilers (Edition February 2007)
RAL-UZ 106 Mobile Phones	RAL-UZ 113 low emission floor-covering adhesives and other covering materials
RAL-UZ 108 Small-Scale Gas-Fired Cogeneration Modules	RAL-UZ 115 Low-Solvent Roof Coatings and Bitumen Adhesives
RAL-UZ 109 Small-Scale Liquid-Fired Cogeneration Modules	RAL-UZ 110 Environment-conscious Ship Operation

ZIURTAGIRIAREN KOSTUA

Erregistro-tasa finkoaz gain, urteko tasa ziurtatu behar den produktu/zerbitzuaren salmentabolumenaren arabera da.

URTEKO SALMENTAK (milioi €)	ERREGISTRO-TASA	URTEKO TASA
0.25 arte	250€	270€
0.25 eta 1.0 bitartean		540€
1.0 eta 2.5 bitartean		1.080€
2.5 eta 5.0 bitartean		2.110€
5.0 eta 15.0 bitartean		3.050€
15.0 eta 25.0 bitartean		4.500€
25.0-tik gora		6.000€

7.1.3. NORDIC ECOLABEL–NORDIC SWAM (ESKANDINAVIAKO BELTXARGA)

NORDIC ECOLABEL–NORDIC SWAM (ESKANDINAVIAKO BELTXARGA)

SINBOLOA:

JARDUERA-EREMUA:

Herrialde Eskandinaviarrak


SORRERA URTEA:

1989

ERAKUNDE ARDURADUNA:

The Nordic Ecolabelling Board

ZIURTAGIRIA DUTEN ENPRESAK:

1.300 enpresa inguru⁴⁹

ZIURTAGIRIA DUTEN PRODUKTUAK:

5.600 produktu eta zerbitzu inguru

KATEGORIA-KOPURUA:

66

Borondatezko markaketak ► Ekoetiketak

Duela 20 urte baino gehiagotik hona, eskandinaviako ekoetiketa/eskandinaviako beltzarga ekoetiketa ofiziala izan da Europako iparraldeko herrialdeetan. Berez, hainbat sistema nazionalen multzo bat da, Ipar Europako herrialdeek irizpide, etiketa eta prozedurak partekatuta eratu dutena. Era horretan, produktu batek Europako iparraldeko herrialdeetako batean Nordic Ecolabel ziurtagiria lortzen duenean, gainontzeko herrialdeetako Nordic Ecolabel lortzeko aukera dauka, eskabide erraz bat eginda. Gaur egun, herrialde hauek ematen dute ziurtagiri hori: Islandia, Norvegia, Suedia eta Finlandia.

PRODUKTU-KATEGORIAK

PRODUKTU MULTZOAK

Alternative dry cleaning

Audiovisual equipment

Base module

Batteries, Primary

Biofuel Pellets

Candles

Car and boat care products

Imaging equipment

Indoor paints and varnishes

Industrial cleaning and degreasing agents

Laundries/ Textile Services

Laundry detergents and stain removers

Laundry detergents for professional use

Lubricants

.../...

⁴⁹ 2011ko iraila arte.

PRODUKTU MULTZOAK (jarr.)

Chemical building products

Chemical List

Chemical module

Cleaning agents for use in the food industry

Cleaning Products

Cleaning services

Closed Toilet Systems

Coffee filters

Compost bins

Compressors

Computers

Copy and printing paper

Cosmetic products

De-icers

DID-list

Dishwasher detergents

Dishwasher detergents for professional use

Dishwashers

Disposable bags, tubes and accessories for health care

Durable wood Alternative to conventionally impregnated wood

Fabric cleaning products containing microfibres

Filmforming floor care products

Floor coverings

Fuel

Furniture and fitments

Grease-proof Paper

Machines for parks and gardens

Outdoor furniture and playground equipment

Panels for the building, decorating and furniture industry

Paper envelopes

Photographic developments services

Printing Companies

Rechargeable batteries and battery chargers

Refrigerators and freezers

Restaurants

Sanitary Products

Small houses, apartment buildings and pre-school buildings

Solid Biofuel Boilers

Stoves

Supermarket Grocery Stores

Textiles, skins and leather

Tissue paper

Toner cartridges

Toys

Washing machines

Vehicle Tyres

Vehicle wash installations

Windows and exterior doors

Writing Instruments

Hand Dishwash Detergents

Heat pumps

Hotels and youth hostels

ZIURTAGIRIAREN KOSTUA⁵⁰

Erregistro-tasa finkoaz gain, urteko tasa bat ordaindu behar da, ziurtatu beharreko produktu/zerbitzuaren itzulkin ekonomikoaren arabera. Tasa produktu, baimen eta ekoizpen-zentro bakoitzeko ezartzen da. Horrez gain, erregistroko hasierako tasari 500€ gehitzen zaizkio, eskandinaviar herrialdeetatik kanpoko enpresetan egiaztatzeko bititak egiteko, eta 1.500€ EEtik kanpoko enpresetara joateko, enpresa eskatzailearen kargura. Gehienetan, urteko tasa ziurtatu diren produktuen itzulkin ekonomikoaren % 0,3 da, eta ezarrita dago gutxieneko eta gehieneko bat. Produktu multzoren bati dagozkion irizpideak berraztertzen direnean, baimen bakoitza ere berraztertzen du, horrek 10.000 SEK inguruko kostua duela.

HERRIALDEA	ERREGISTRO-TASA	URTEKO TASA		
		Itzulkin ekonomikoaren %	Gutxienekoa	Gehienekoa
SUEDIA	20.000 SEK [2.500€ inguru]	% 0,3	14.000 SEK [1.600€ inguru]	350.000 SEK [39.800€ inguru]
DANIMARKA	+ Gastuak:	% 0,3	11.250 DKK [1.520€ inguru]	250.000 DKK [33.800€ inguru]
FINLANDIA	500€ Europa Iparraldeko herrialdeetatik kanpoko enpresak	% 0,3	1.200€	34.000€
ISLANDIA	– 1.500€ EEtik kanpoko enpresak	% 0,4	–	200.000 ISK [800€ inguru]
NORVEGIA		% 0,3	10.000 NOK [1.280€ inguru]	300.000 NOK [38.460€ inguru]

SEK = Suediako koroa (1€ = 8,8 SEK) ISK= Islandiako koroa (1€ = 249,7 Islandiako koroa)
DKK= Danimarkako koroa (1€ = 7,4 DKK) NOK= Norvegiako koroa (1€ = 7,8 NOK)

⁵⁰ <http://www.svanen.se/en/Svanenmarka/Fees/>

7.1.4. MILIEUKEUR

MILIEUKEUR

SINBOLOA:



JARDUERA-EREMUA:
Holanda



SORRERA URTEA: 1992

ERAKUNDE ARDURADUNA: Ingurumena kontrolatzeko Fundazioa (Sitching Milieukeur)

ZIURTAGIRIA DUTEN ENPRESAK: 611 enpresa inguru⁵¹

ZIURTAGIRIA DUTEN PRODUKTUAK: 684 produktu eta zerbitzu inguru

KATEGORIA-KOPURUA: 90 inguru

Borondatezko markaketak ► Ekoetiketak

Ekoetiketa hau oso ezaguna da kontsumitzaile holandarren artean. Berez, hainbat azterlanek egiaztatu dute kontsumitzaileen % 60-70 inguru Milieukeur logotipoa ezagutzeko gauza dela.

Sistema honen bereizgarritasun bat da elikagaiak (abere- eta landare-jatorrikoak) eta nekazaritza-rekin lotuta dauden produktuak barnean hartzen dituen produktu-kategoriak dituela.

PRODUKTU-KATEGORIAK

PRODUKTU MULTZOAK

ELIKAGAIK EZ DIREN PRODUKTUAK

Autoshampoo/wax	Autoentzako argizaria	Reinigingsmiddelen autowasinstallaties	Autoak garbitzeko garbigarriak
Autowasstraat	Auto-garbigeta	Ruitenreinigers	Distira-emaileak eta/edo xurgagailuak
GFT-afvalzakken	Zabor-poltsak	Sieraden	Bitxigintza
Grasland	Larreak	Speeltoestellen	Haur-jostailuak
Groene elektriciteit	Elektrizitate berdea	Toepassing glyfosaat op verhardingen	Sasitza kontrolatzeko glifosato-oinarriko eragileak

.../...

⁵¹ 2011ko maiatza arte.

PRODUKTU MULTZOAK (jarr.)

ELIKAGAIK EZ DIREN PRODUKTUAK

Koffers	Poltsak	Betonbanden	Hormigoizko zintarri aurrefabrikatuak
Kool	Egur-ikatz	Betonstraatstenen	Hormigoizko zoladurak
Linoleum	Linolioa	Betontegels	Hormigoizko teilak
Ondervloeren	Zoru azpikoak	Bewerkte producten	Eraldatutako produktuak
Toiletvloeistoffen	Komun-garbigarriak	Brandblusmiddelen	Su-itzalgailuak
Toner cartridges	Toner-kartutxoak	Kattenbakvulling	Katuentzako hondarra
Meubelen	Altzariak	Keukens	Sukaldeak osorik
Papier: Kantoorpapier (Europees Ecolabel)	Bulegoko papera		

ELIKAGAIK

Aardappelen	Patatak	Champignons	Perretxikoak
Aardbeien	Marrubiak	Gerst	Garagarra
Andijvie	Endibiak	Glasgroenten	Barazkiak
Appels	Sagarrak	Graszaden	Gramineo-haziak
Asperge	Zainzuriak	Groente - bewerkte	Prozesatutako barazkiak
Bier	Garagardoa	Groente - verwerkte	Prozesatutako barazkiak
Bieten (suiker en voeder)	Erremolatxa (azukrea eta bazka)	Haver	Oloa
Bladselderij	Apioa	Karwij	Txarpoila
Blauwe bessen	Ahabiak	Kiemgroenten	Landare-ernamuinak
Blauwmaanzaad	Lo-belarrak	Knolselderij	Arbiak
Bloemen en planten onder glas	Berotegiko loreak eta landareak	Koolraap	Arbiaza
Bodemplaten	Alikatatuak	Kruiden	Belarrak
Bolbloemen en bloembollen	Erraboilak eta erraboil-loreak	Luzerne	Luzerna
Boomkwekerijproducten	Haztegiko produktuak	Mais	Artoa
Bruine bonen	Babarrunak	Meststoffen	Ongarriak
Cichorei	Txikoria	Paddenstoelen	Perretxikoak
Conservenerwten	Ilar-kontserbak	Peen	Azenarioak
Cressen	Berroak	Peren	Madariak
Daikon	Daikon	Peterselie	Perrexila
Ei	Arrautzak	Peulen	Lekak
Etiketten	Etiketak		

PRODUKTU MULTZOAK (jarr.)

ELIKAGAIAK

Pluimvee	Oilategiko hegaztiak	Schorseneren	Saltsak, errefauak eta/edo zainzuriak
Pootaardappelen (NAK-certificaat)	Patata-haziak	Sla	Letxugak
Prei	Porruak	Spelt	Eskanda
Rettich	Errefaua	Spinazie	Espinakak
Rogge	Zekalea	Sprouts	Ernamuinak
Rucola	Errukula	Stamslabonen	Stamslabonen (babarrun edo ilar mota bat)
Rund	Haragia	Tarwe	Garia
Rundvleesproducten	Haragikiak	Tuinbonen	Babarrunak

EGILEAREN OHARRA: Etiketatzeko ekologikoaren sistema honen web orrialdea nederlanderaz bakarrik idatzita dago. Beheko taulan jaso dugun zerrenda online itzulpen-tresnen bidez eta gida hau idatzi duen taldearen interpretazioaren arabera lortu dugu. Helburua ekoetiketa honek barnean hartzen dituen produktu-kategoriei buruzko ideia orokor bat eskaintzea da, eta, beraz, baliteke itzulpena guztiz zehatza ez izatea.

ZIURTAGIRIAREN KOSTUA

Ekoetiketatzeko sistema holandarrak tarifa-sistema desberdina du zer produktu mota den kontuan hartuta (elikagaia edo elikagaia ez dena), eta elikagaien barruan, tasa desberdina da, baita ere, produktuaren jatorriaren arabera, edo aberearen arabera. Sistema oso-oso da, beraz, eta ondorengo taulan laburbildu dugu.

Tarifa-sistemari buruzko informazio zehatzagoa lotura honetan aurki daiteke:
<http://www.smk.nl/nl/s497/SMK/Programma-s/Milieukeur/c704-Tarieven>

TARIFA-SISTEMA PRODUKTU MOTAREN ARABERA

	TASA	GUTX.	GEHI.
Hasierako erregistro-tasa	470€	-	-
ELIKAGAIK EZ DIREN PRODUKTUAK			
Urteko tasa	1,5€, ziurtatutako produktuaren negozio-bolumenaren mila euroko	370€	25.000€
LANDARE-JATORRIKO ELIKAGAIK			
Urteko tasa hektareako	5€/ha-tik 47€/ha arte, produktu motaren arabera	-	-
ABERE-JATORRIKO ELIKAGAIK			
Urteko tasa	Abere bakoitzeko 0,02€tik —hegazti-produktuetan— 0,38€ arte 0,15€ bakoitzeko	-	-

7.1.5. DISTINTIU DE GARANTIA DE QUALITAT AMBIENTAL

DISTINTIU DE GARANTIA DE QUALITAT AMBIENTAL

SINBOLOA:

JARDUERA-EREMUA:

Katalunia (Espainia)


SORRERA URTEA:

1994

ERAKUNDE ARDURADUNA:

Direcció General de Qualitat Ambiental del Departament de Medi Ambient i Habitatge de la Generalitat de Catalunya

ZIURTAGIRIA DUTEN ENPRESAK:

 451 enpresa eta establezimendu⁵²
ZIURTAGIRIA DUTEN PRODUKTUAK:

1.106 produktu

KATEGORIA-KOPURUA:

31

Borondatezko markaketak ▶ Ekoetiketak

«Distintiu de garantia de qualitat» delakoa Kataluniako Generalitatek 316/1994 Dekretuaren bidez 1994an sortutako ekoetiketatze-sistema da. 96/1998 Dekretuaren bidez, ziurtagiriaren irismena zerbitzuetara zabaldu zen.

Bereizgarria eskatzen dutenak Katalunian industria-instalazioak dituzten produktuen fabrikatzaileak nahiz berezko markakoak diren eta Katalunian merkaturatzen diren produktuen banatzaileak soilik izan daitezke. Zerbitzuei dagokienez, titularrak zerbitzu horiek eskaini behar ditu Kataluniako lurraldearen esparruan. Beraz, Katalunian fabrikatu edo merkaturatzen diren produktuak soilik etiketatu ahal izango dira sistema honen bidez.

⁵² 2011ko maiatza arte.

PRODUKTU-KATEGORIAK

PRODUKTU MULTZOA

Plastikoa egiteko lehengaiak eta birziklatutako plastikozko produktuak	Egurrezko produktuak
Paperezko produktuak	Tindategiak
Ura aurrezteko produktu eta sistemak	Kautxua ekoizteko lehengaiak eta birziklatutako kautxuzko produktuak
Birziklatutako kartoizko eta kartoi finezko produktuak	Agregakin birziklatuz egindako produktuak
Kortxozko produktuak eta kortxo eraldatuaz egindakoak	Beira ekoizteko lehengaiak eta birziklatutako beirazko produktuak
Oinarrizko olioak eta olio horiek dituzten produktuak	Herritarren arretarako bulego-sareak
Soinu kontrako hesiak trafikorako	Bulego-eraikinak
Kanpinak	Birziklatutako materiala erabilia aurrefabrikatutako hormigoizko produktuak
Material konpostagarriaz egindako produktuak	Zaratak eta berotik isolatzeko produktuak, birziklatutako materialez eginak
Ibilgailu-lantegiak	Ibilgailu-parkeak
Larruz egindako artikulua	Elikadura-merkataritzako establezimendu-sareak
Gazteentzako instalazioak	Jostailu elektriko eta elektronikoak
Ostalaritzako establezimenduak	Birkautxuztatutako pneumatikoak
Etxeke gas-galdarak eta -berogailuak	Argazki-akabera egiteko establezimenduak
Gasolina-zerbitzuguneak eta hornikuntza-unitateak	

ZIURTAGIRIAREN KOSTUA

Erregistro-tasa nahiz berritzeko tasa finakoak dira (ez dago urteko tasarik), eta ez dago salmentan dauden produktuen kopuruaren edo beste parametro batzuen baitan.

TASA	BEHERAPENAK
Hasierako erregistro-tasa 337,85€	– % 50 gutxiago, ETE eta mikroenpresentzat. – % 100, irabazi asmorik gabeko erakunde publiko eta pribatuentzat. – % 100, erakunde autonomoetan partaidetza duten erakundeentzat edo Kataluniako Generalitatearen mende dauden enpresentzat, betiere partaidetza kapitalaren % 50etik gorakoa bada.
Urteko tasa 0€	
Berritzeko tasa 3 urtean behin 225,25€	– % 50 gutxiago ETE eta mikroenpresentzat. – % 15 gutxiago, ISO 14001 edo EMAS ziurtagiriak eskatzen dituztenentzat. – % 100 gutxiago, Distintuak barnean hartzen dituen produktu multzoekin bateragarriak diren produktu multzoetan Europako Etiketa Ekologikoa lortu duten eskatzaileentzat.

7.1.6. NF ENVIRONMENT

NF ENVIRONMENT

SINBOLOA:



**JARDUERA-
EREMUA:**
Frantzia



SORRERA URTEA:

1991

ERAKUNDE ARDURADUNA:

AFNOR -Association Française de Normalisation

ZIURTAGIRIA DUTEN ENPRESAK:

150 enpresa inguru⁵³

ZIURTAGIRIA DUTEN PRODUKTUAK:

Eskura ez dagoen edo eskaini ez den informazioa

KATEGORIA-KOPURUA:

23

Borondatezko markaketak ► Ekoetiketak

Gobernu-erakunderik ez, ziurtagiri-erakunde independente batek baizik sortu duen eta kudeatzen duen ekoetiketa da, ezaugarri horietako lehenengoetako bat. Erakundea Europako Etiketa Ekologikoa emateko ahalmena duen organismoa da, halaber, eta, beraz, AFNOR erakundeak batzen eta sustatzen ditu bi sistema horiek.

PRODUKTU-KATEGORIAK

PRODUKTU MULTZOA



NF094 Compost bins for garden	NF300 Interior fitting and decorative profiles for consumer use	NF391 Exercices books
NF130 Paints, varnishes and related products	NF316 Envelopes and postal pockets	NF397 Electric coffe machines
NF170 Refuse bags - Bags for collection and pre-collection of waste	NF331 Paints for horizontal road markings	NF400 Writing elements
NF180 Balls of washing	NF335 Toner cartridges	NF401 Adhesivos
NF193 Cat litters	NF336 Absorbants all liquids used on ground floors	NF413 Blocs d'éclairage de sécurité
NF206 Adhesivos para revestimientos de suelos	NF340 Cabas bags	NF438 Products to dilute or solve
NF217 Furniture	NF374 Mechanical remanufacturing service for automobile parts	NF446 Painting fillers
NF265 Coffee filters	NF376 Universal colorants	

ZIURTAGIRIAREN KOSTUA

Eskura ez dagoen edo eskaini ez den informazioa.

⁵³ 2011ko ekaina arte; hala ere, produktu-kategoria guztiak ez daude webean eguneratuta.

7.1.7. AENOR-INGURUMENA

AENOR-INGURUMENA	
SINBOLOA:	
JARDUERA-EREMUA:	Espainia
	
SORRERA URTEA:	1994
ERAKUNDE ARDURADUNA:	AENOR, Espainiako Normalizazio eta Ziurtapen Elkarte
ZIURTAGIRIA DUTEN ENPRESAK:	120 enpresa inguru ⁵⁴
ZIURTAGIRIA DUTEN PRODUKTUAK:	Eskura ez dagoen edo eskaini ez den informazioa
KATEGORIA-KOPURUA:	11

Borondatezko markaketak ► Ekoetiketak

Aurrekoa bezala, ziurtapen-erakunde independente batek sortu eta kudeatzen du, eta ez gobernu-erakunde batek. Erakunde honek, halaber, ahalmena dauka Europako Etiketa Ekologikoa emateko, eta, beraz, AENOR erakundeak batu eta sustatzen ditu bi ekoetiketate-sistemak.

PRODUKTU-KATEGORIAK

PRODUKTU MULTZOA

UNE 1180:1998 EX	Artxibatze eta sailkatze zorroak. Irizpide ekologikoak.
UNE-EN 14602:2005	Oinetakoak. Irizpide ekologikoak ebaluatzeko saiakuntza-metodoak.
UNE 1181:1998 EX	Paperezko etiketak. Irizpide ekologikoak.
UNE 71903:1999 EX	Inprimagailuak. Irizpide ekologikoak.
UNE 71902:1999 EX	Fax-makinak. Irizpide ekologikoak.
UNE 71901:1997 EX	Erreprografia-makinak. Irizpide ekologikoak.
UNE 206001:1997 EX	Modulu fotovoltaikoak. Irizpide ekologikoak.
UNE 156000:1998 EX	Paperezko gutun-azalak. Irizpide ekologikoak.
UNE 53971:1996 EX	Plastikoak. Polietilenoazko (PE) zabor-poltsak. Irizpide ekologikoak.
UNE 53970:1996 EX	Plastikoak. Polietilenoazko (PE) poltsak, elastiko motakoak. Irizpide ekologikoak.
UNE 56200:2003 EX	Zurezko atekak. Irizpide ekologikoak.

ZIURTAGIRIAREN KOSTUA

Eskura ez dagoen edo eskaini ez den informazioa.

⁵⁴ 2010eko abendura arte.

7.2. ETIKETA EKOLOGIKOAK: I MOTAKOEN ANTZEKOAK

ETIKETA EKOLOGIKOAK: I MOTAKOEN ANTZEKOAK



IRISMENA:	Produktua	Enpresa
MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bai	
BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
OHARRAK:	Hirugarrenak	Autoadierazpena
	Ez die ISO araei jarraitzen	

Borondatezko markaketak ► Ekoetiketak

Erakundeek enpresen produktuen ingurumen-ezaugarri buruzko informazioa emateko beharri era normalizatuan erantzuten dioten administrazio-tresnak sortzeari ekin baino lehen ere, baziren komunikazio-gai hauetan lanean ari ziren elkarteak.

Elkarte horiek lehentasunezko zatitza jotzen zituzten alderdi batzuek bete beharreko ingurumen-irizpideak definitzeko ardura hartu zuten beren gain (ISO 14024 Arauak barnean hartzen dituen I motako ekoetiketatze-sistemen antzera), eta irizpide horiek betetzeko mugak jartzeaz gain, betetze hori etiketa baten bidez egiaztatu zuten.

Irizpide horiek ez ziren beti produktuaren bizi-zikloaren alderdi guztietara zabaltzen, eta, halaber, ez zeuden adostuta erakunde publiko, sektoreko elkarte edo fabrikatzaile eta kontsumitzaileen elkarten partaidetzaren bitartez. Beraz, ez diote 14020 arau multzoak markatutako eskemari jarraitzen, baina, sistema horietako askok I motako ekoetiketen onarpen-maila, edo are handiagoa, lortu dute, eta ospe, tradizio zein aitortzea dituzte gizartean.

Hortaz, ingurumen-etiketen multzo garrantzitsua osatzen dute, eta sendotasun handia erdietsi dute produktuei ingurumen-aitortzea emateko sistemen barruan; hala bada, multzo bereizi osatu dute sistema horiek aipatutako etiketak biltzeko ahaleginetan.

Etiketak gizarte-erakunde, sektoreko elkarte, enpresa fabrikatzaile, erakunde independente eta abarrenak izaten dira, eta duten helburu nagusia da ahalik eta produktu gehien sistema honen barruan ziurtatzea erdiestea, kontsumitzaileen artean ahalik eta onespene handiena lortzeko.

I motako ekoetiketatze-sistemak bezala, hainbat irizpide publikotan oinarrituta daude, eta etiketa eskuratu nahi duten produktuek irizpide horiek bete behar dituzte. Hala frogatzen duten produktuek bereizgarri hori erakusteko aukera izango dute, balioztatu eta sistemara atxiki eta gero.

Multzo honen barruan ekoetiketatze-sistema ugari daude, eta, askotan, I motako antzeko etiketa I motakoetatik bereizteko muga oso lausoa da. Gainera, etiketatze sistemak ez dute

alderdi hori zehazten, eta, beraz, oso zaila izaten da ekoetiketa jakin bat multzo baten edo beste baten barruan dagoen ala ez jakitea.

Hala bada, etiketa mota hau aurki daitekeen sektore nagusi batzuk deskribatuko ditugu orokorrean, sistema horietako bakoitza zehaztu gabe, izan ere bakoitzak bere irizpide eta jarduteko prozedurak ditu, eta partekatzen dituzten alderdi bakarrak azaldu berri ditugunak bakarrik dira.

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA

Nekazaritza ekologikoa erraz defini daiteke, honela hain zuzen ere: nekazaritza-tekniken multzo bat da, eskuarki nekazaritza eta abeltzaintza sintesi-produktu kimikoak baztertzen dituen, hala nola, ongarriak, plagizidak, antibiotikoak, eta abar. Helburua ingurumena zaintzea, lurzorua emankortasuna mantendu edo handitzea eta natur ezaugarri guztiak dituzten elikagaiak eskaintzea da.

Ekoizpen ekologikoa 834/2007 (EE) Erregelamenduan⁵⁵ eta 889/2008 (EE) Erregelamenduan⁵⁶ araututa dago.

Estatu espainiarrean, nekazaritza-ekoizpen ekologikoaren kontrola eta ziurtapena Autonomi Erkidegoen eskumena da, eta, gehienbat, kontrol-agintaritzak publikoek betetzen dute eginkizun hori, erkidego bakoitzeko nekazaritza-sailaren edo departamentuaren mende dauden nekazaritza ekologikoaren Lurralde-kontseilu edo -batzordeen bitartez, edo erakunde publiko horietako zuzendaritza nagusiek betetzen dute egitekoa zuzenean. Nolanahi ere, Andaluzia eta Gaztela-Mantxako Autonomia-erkidegoetan, erakunde pribatuak baimendu dituzte egiteko horiek betetzeko, eta Aragoiko Erkidegoan, eskumena duten agintariek kontrol-agintaritzak publiko bat izendatu dute eta, halaber, kontrol-erakunde pribatuak baimendu dituzte horretarako.

Kontsumitzaileek nekazaritza ekologikoaren produktuak merkatuan ezagutu ahal izateko, ontziratutako unitate guztiek bakoitzaren marka eta nekazaritza ekologikoari buruzko berriazko aipamenen bat ez ezik, agintaritzaren eta kontrol-erakundearen kodea ere inprimatuta eduki behar dituzte, edo berriazko logo bat, kontrol-erakundearen izena eta kodea idatziak dituen. Era berean, AE nekazaritza ekologikoaren Europako Erkidegoaren logoa eduki behar dute inprimatuta, 2010eko uztailaz geroztik nahitaezkoa baita.

Nekazaritza ekologikoaren zigiluaren bereizgarri ofiziala, nekazaritza ekologikoaren Europako Erkidegoaren logoa



Euskadiko bertsioa



⁵⁵ Kontseiluaren 834/2007/EE Erregelamendua, produktu ekologikoen ekoizpen eta etiketatzeari buruzkoa eta 2092/91/EE Erregelamendua indargabetzen duena.

⁵⁶ Batzordearen 889/2008/EE Erregelamendua, ekoizpen ekologikoari, eta hori etiketatzeari nahiz kontrolari dagokienez 834/2007/EE Erregelamendua ezartzekoa.

Hala ere, beste hainbat erakunde ezaugarri horiek beste sinbolo batzuk erabili erakusten dituzte. Hona hemen horietako batzuk.

ELIKAGAIEN SEKTORETAKO ETA NEKAZARITZA-PRODUKZIO EKOLOGIKORAKO ETIKETEN ZERRENDA

ETIKETA	DESKRIBAPENA
	Bio-suisse elkarteak Suitzako ekoizle organikoak ordezkatzeko ematen duen «ernamuina» duen etiketa ematen du. Bio-Suisse 1981ean sortu zen, eta urte berean argitaratu ziren elkarteak emandako lehenengo arauak. Gaur egun, 30 erakunde baino gehiago dira bertako kide, eta 6.200dik gorako lursail organiko ditu elkarteak. Bio-Suisseren arauen arabera ekoizten duten ekoizleek lursail osoan erabili behar dute ekoizpen-sistema organikoa. http://www.bio-suisse.ch
	Belgikan, «Biogarantie» zigiluak ziurtatzen du produktua organikoa dela. Estatu Kontseiluak 1984az geroztik aintzatetsia duen PROBILA-UNITRAB elkarte profesionalak bere baitan hartzen ditu nekazaritza organikoko produktuaren eraldaketa- eta banaketa-sektorean ari diren enpresa ia guztiak. Etiketa honen bidez, kontsumitzaileek berehala identifika ditzakete produktu organikoak.. http://www.biogarantie.be
	«Soil Association» elikagai organikoetarako ziurtagiria ematen dien erakunderik garrantzitsuenak da Britainia Handian. Nekazari, zientzialari eta elikadura-adituen talde batek sortu zuen 1946an, lurra landu, landatu, abere, giza osasun eta ingurumen-osasunaren arteko lotura zuzenaz oinarritu eta gero. http://www.soilassociation.org
	«Agriculture Biologique» Frantziako elkarteak printzipio hauetan oinarritutako lan-metodoak erabiltzen ditu: sintesi-produktu kimikoez ez baliatzea, materia organikoak birziklatzea, laboreak txandakatzea eta borroka biologikoa. Zigilu hau daukaten abeltzainek abeltzaintza estentsiboan jarduten dute, eta sendagai naturalak erabiltzen dituzte. Era berean, manipulatuak diren produktuak eraldatzen dituzte lehengaiaren izaera ekologikoa errespetatuz, eta nekazaritzakoak ez diren osagaiak (gehigarriak, osagarriak eta teknologikoak) oso gutxitan erabiltzen dituzte. http://www.agencebio.org/
	Alemanian, Ministerio Federalak nekazaritza eta elikagaigintza ekologikoko produktuei ematen dien etiketa da, kontsumitzaileak, elikagaiak eta nekazaritza babesteko helburuaz. Etiketa emateko baldintzak oso zorrotzak dira ekoizpen, eraldaketa, merkataritza eta kontrolari dagokienez. Urtero egiten dira kontrolak, eta produktuaren ekoizpenetik bildu arteko fase guztiak kontrolatzen dira. http://www.bio-siegel.de
	MSC irabazteko asmorik gabeko mundu-mailako erakunde independentea da. Gehiegizko arrantza-ustiapenaren arazoari irtenbidea emateko sortu zen 1997an, munduko arrain eta itsaskien eroslerik handiena den Unilever konpainiaren eta WWF natura zaintzeko nazioarteko erakundearen babespean. MSCk ziurtatzen ditu ingurumena errespetatuz beren jarduerak kudeatu eta burutzen duten arrantza-enpresak, eta produktuan jartzeko etiketa urdina ematen die. Etiketa horrek bermatzen du ondo kudeatuta dagoen eta ingurumenean gehiegizko ustiapenaren bidez arazorik sortzen ez duen arrantza-enpresa baten produktua dela. http://es.msc.org

BESTE BATZUK



ENERGIA KONTSUMOA

Energia ekoizteko hidrokarburoak erabiltzearen ondorioz, planea osoan eragina duten eta gaur egun ikusgarriak diren ingurumen-arrisku larriak sortzen dira. Petrolioia eta deribatuak fintzeko eta prozesatzeko prozesuetan ohikoak diren isurpenen kontrolik ezak ozono-geruza ahultzea eragin du —ahultze-prozesu hori maximoetara iritsi da azken urteotan—, eta, horrez gain, planetaren tenperatura orokorra ere igo egin da.

Ezaugarri horiek dituen energia-kontsumoa minimizatu eta optimizatzea da ingurumen-arazo horiek konpontzeko neurri zorrotzenetako bat. Era horretan sortu da energia-eraginkortasunaren kontzeptua: produktu batek bere antzekoen eginkizun bera betetzen du, horretarako askoz ere energia-kopuru txikiagoa erabilia.

ENERGIA-ERAGINKORTASUNERAKO ETIKETEN ZERRENDA

ETIKETA	DESKRIBAPENA
 	<p>Etiketa honen bidez, energia-eraginkortasunaren irizpideak (Ingurumena babesteko Estatu Batuetako Agentziak ezarritakoak) betetzen dituzten hainbat produktu identifikatzen dira. Ordenagailuen monitoreak, inprimagailuak, eskanerrak, bideoak eta gremioko edozein saltokitan aurki daitezkeen produktuak.</p> <p>Europako Erkidegoak parte hartzen du programa honetan, 2003ko apirilean Estatu Batuetako Gobernuarekin sinatutako hitzarmen baten bidez: http://www.energystar.gov (AEBko bertsioa). http://www.eu-energystar.org (Europako bertsioa).</p>
	<p>Langile profesionalen Suediako konfederazioak (TCO), natura zaintzeko Suediako elkarteak eta Suediako energiaren administrazio nazionalak garatu zuten etiketa-eskema hau elkarlanean.</p> <p>Eskemaren barruan, hainbat arau jaso dira, bulegoetan ohikoak diren produktuek —hala nola, inprimagailuak, fotokopiagailuak, etab— bete beharreko ingurumen-baldintzak arautzen dituztenak.</p> <p>Hala bada, jadanik ezagunak diren TCO02, TCO05 eta TCO 99 etiketen ondoren, hauek atera dira: TCO03 display-etarako, TCO05 ordenagailu eramangarri eta dorreetarako, eta TCO06 monitoretarako. http://www.tcodevelopment.com</p>
	<p>Alemaniko energia-etiketak tresna elektronikoen energia-eraginkortasunari buruzko informazioa ebaluatzeko programa bat du oinarrian, herrialde horretan gero eta handiagoa den gailu elektronikoen kontsumoari erantzuteko. Etiketaren bidez, energia eraginkortasun-metodoen arabera funtzionatzen duten gailuak bereizi eta sustatu egiten dira, hala nola «stand-by» aukera baztertzea, edo kontsumo-mugak jartzea. Etiketaren baldintzak urtero berraztertzen dira produktu-kategoria bakoitzeko, gaian izan diren azken berrikuntza teknologikoak egokitu ahal izateko. http://www.energielabel.de</p>
	<p>Energy Saving Trust sistema britainiarra da, ematen duen etiketa daramaten produktuek batezbestekoak baino energia gutxiago kontsumitzen dutela eta, beraz, Karbono-arrastoa planetan murrizten laguntzen dutela egiaztatzen duena. http://www.energysavingtrust.org.uk</p>
	<p>EPEAT produktu elektronikokoak ebaluatzeko tresna bat da, eta sektore publiko eta pribatuko erosle instituzionalei EPEATen ingurumen-ezaugarrietan oinarrituta dauden mahaiko ordenagailuak, notebook-ak eta monitoreak ebaluatzen, alderatzen eta erosten laguntzeko sortu zen. Era berean, produktuak diseinatzeko, erraz betetzeko modukoak eta sendoak diren irizpideak ematen ditu, eta produktuen ingurumen-eragina murrizteko ahaleginak egiten dituzten fabrikatzaileei merkatuan onspena lortzeko aukera eskaintzen die. http://www.epeat.net</p>

ENERGIA GARBIRAKO ETIKETEN ZERRENDA

ETIKETA	DESKRIBAPENA
 <p>100% energia verde</p>	<p>Italiako «100% energia verde» sistemak egiaztatzen du enpresa hornitzaileak % 100ean berriztagarria den energiaz hornitzen duela, hau da: haize-energia, eguzki-energia, energia geotermikoa, energia hidrauliko iraunkorra, biogasa, marea-energia, biomasa eta bioerregaia. Energiaren % 20 gehienez ere energia hidrauliko ez-iraunkorra izan daiteke (urtegi handiei lotutako zentral handiak). http://www.centpercentoverde.org</p>
	<p>«Energyvision» 2000an sortutako fundazioa da, energia ekologikoaren merkatuaren liberalizazioa sustatzeko eta bultzatzeko helburuaz. «Ingurumen-erabilera osagarria» izeneko etiketaren irizpide nagusietako bat honakoa da: energiaren hornitzaileak bermatu behar du, kuantifikatutako gutxieneko baldintzak betez, baliabide berriztagarrien minimo bat erabiltzen duela. http://www.ok-power.de</p>
	<p>«EUGENE» estandarra «European Green Electricity Network» erakundeak (EUGENE) sortu zuen. Etiketa gaur egun erabiltzen diren ohiko energiak baino ekologikoagoa den energia onaren erabileraren sinboloa da. Europako Lorea bezala, EUGENE estandarra energia ekologikoak ziurtatzeko beste programa batzuekin batera daiteke (hala nola, «OK power» edo «Naturemade»). http://www.eugenestandard.org</p>
	<p>«Green-e» programa independentea da, energia berriztagarriak eta energia mota hori erabiltzen duten konpainiak ziurtatu eta egiaztatzeko ardura duena. Logoaren bidez, kontsumitzaileei aditzera ematen die erakundeak normalizatutako estandarrak betetzen direla. http://www.green-e.org</p>
	<p>EKOenergyk haize-energia, bioenergia, energia hidraulikoa eta energia fotovoltaikoa erabiltzen dituzten energia-zerbitzu iraunkorrak sustatzen ditu (elektrizitatea, beroa...). Sistemaren bereizgarria da % 100ean bateragarria Suediako Bra Miljöval I motako ekoetiketarekin, eta, beraz, sistema baten ziurtagiria eskuratuz gero, era automatikoki lor daiteke bestea. http://www.ekoenergy.org/</p>
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">BESTE BATZUK</p>	

ZURAREN ERABILERA

Hauek dira bereizi gabeko baso-mozketaren bi arrazoi nagusiak: alde batetik, batez ere herrialde industrializatuetan, zuraren eta bere deribatuen arloan dagoen eskaera handia; eta bestaldek, nekazaritza intentsiboa egiteko gero eta lursail gehiago egokitzea. Baso-baliabideak bereizi gabe kontsumitzeak ingurumen-arazo larriak eragiten ditu. Toki-mailan, ekosistema galtzea da eragin zuzena. Lurrak pobretu egiten dira, sedimentuak ezin dira iragazi eta, euriaren bitartez, ibaietara iristen dira, hezetasun-maila aldatu eta, horren ondorioz, tokiko klima ere aldatu egiten da, etab. Basoberritzea arazoa konpontzeko behin-behineko irtenbideetako bat da, baina ondorio hauek izan ditzake: landaretza eta sasitza agertzea, substratua kalteturik suertatzea, eta abar. Esparru zabalagoan, baso-soiltzearen eraginez, karbono dioxidoa xurgatzen duen elementu bat desagertzen da, eta, hala, planeta osoaren berokuntza areagotu egiten da.

BASOLAN-ZIURTAGIRIETARAKO ETIKETEN ZERRENDA

ETIKETA	DESKRIBAPENA
	<p>Forest Stewardship Council (FSC), Basoa Kudeatzeko Kontseilua, nazioarteko erakundea da, munduko basoen kudeaketa arduratsua sustatzeko sistema errespetatua eta produktu-etiketa onartua dituen.</p> <p>FSC nazioarteko kideek osatutako erakundea da, irabazteko asmorik gabea; bere baitan, hainbat jende talde biltzen ditu, basoko jardunbide desegokiek eragindako arazoak konpontzeko eta basoen kudeaketa egokia saritzeko asmoz.</p> <p>www.es.fsc.org/</p>
	<p>Programme for the Endorsement of Forest Certification schemes (PEFC), Baso-ziurtagirien Sistemak Onartzeko Programa, basogintzaren sektore pribatuaren borondatezko ekimena da, Europako basoak babesteko Helsinkiko (1993) eta Lisboako (1998) ministerioen arteko Konferentzietan adostu ziren irizpide eta adierazleetan oinarrituta. PEFC-k esparru bat eskaintzen du, ziurtagiri nazional konparagarrien sistemak ezartzeko eta sistema horiek Europa osoan elkar onartzeko.</p> <p>www.pefc.es</p>
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">BESTE BATZUK</p>	<div style="display: grid; grid-template-columns: repeat(5, 1fr); gap: 10px;"> <div data-bbox="311 1377 518 1579">  <small>AFS/01-10-01</small> </div> <div data-bbox="542 1377 742 1579">  CERTFOR </div> <div data-bbox="774 1377 965 1579">  <small>RAL</small> </div> <div data-bbox="997 1377 1204 1579">  <small>MINIMUM 70%</small> </div> <div data-bbox="1236 1377 1436 1579">  <small>www.florverde.org</small> </div> <div data-bbox="327 1612 518 1780">  <small>CONTROL BY FOP N°INT/000</small> </div> <div data-bbox="550 1612 742 1780">  Naturland </div> <div data-bbox="790 1612 989 1780">  <small>www.sfi-program.org</small> </div> <div data-bbox="1029 1612 1220 1780">  </div> <div data-bbox="1236 1612 1436 1780">  <small>EST 1987</small> </div> </div>

EHUN-GAIK

Ehungintzaren sektorean arazo asko daude, batez ere ehunen bizi-zikloan eragina duten fabrikazio-prozesuak direla-eta: ehuntzea, tindatzea, estanpatzea, akabera ematea... Prozesu horietako bakoitzak, gainera, ingurumenean eragina duten alderdi esanguratsuak eta desberdinak ditu.

Orokorrean, garrantzitsuenen artean, prozesuan kontsumitzen den ur- eta energia-kopuru handia eta koloratzaile eta osagai gehigarrien erabilera nabarmendu behar dira. Uraren kontsumoari dagokionez, hondakin-uren kudeaketaren arazoa gehitu behar da, izan ere, osasunarentzat kaltegarriak diren substantzien kontzentrazio handia izaten dute. Halaber, koloratzaileak erabiltzean, konposatu organiko lurrunkorak isurtzen dira, koloratzailearen osaera eta koloratzaileen ontzien kudeaketa-lanak direla kausa.

EHUNGINTZA-SEKTORERAKO ETIKETEN ZERRENDA

ETIKETA

DESKRIBAPENA



Europako bereizgarria da, ehun-gaien eraldaketa-prozesu osoan, eta azken kontsumitzaileari iritsi arte, substantzia kaltegarriak ez dagoela bermatzen duena.
<http://www.oeko-tex.com>



Aitek-ek sustatutako ziurtagiri ekologiko eta soziala da, nazioartekoa, mundu osoko ehun-ekoizpenaren zigilu berde berri bezala onartua izateko helburuaz sortua.
<http://www.madeingreen.com>



Alemanian bi etiketa hauek 2000. urtean sortu zituen Internationaler Verband der Naturtextilwirtschaft (IVN) erakundeak, eta ehun-gai askok lortu dituzte ordudanik. IVN (ehun-industria naturalen nazioarteko elkarte) arloko konpainien elkarte garrantzitsua da; konpainiak horiek kalitate handiko ehun-gai naturalak ekoizten dituzte, irizpide ekologiko eta sozial zorrotzen arabera. «Naturtextil» etiketa daramaten produktuak zuntz naturalez egiten dira beti. Ekoizpen-prozesuan ez da baimentzen ekologiaren aldetik osasunarentzat kaltegarriak diren substantziak erabiltzea. Horrez gain, irizpide sozial zorrotzak ezartzen dira, ekoizpen-prozesu osoan jarduten duten langileen lan-baldintzak egokiak direla bermatzeko.
<http://www.naturtextil.com>



SKAL International Fundazioak ematen du EKO marka. Ziurtapen-programa bi printzipio nagusitan oinarrituta dago: lehendabizikoaren arabera, erabilitako zuntzak modu organikoan hazitako zuntz naturalak izan behar dira. Bigarrenari jarraituz, ekoizpen-prozesu osoa kontuan hartu behar da, hau da, prozesuaren urrats bakoitzak «Skal International standards for sustainable textile production» estandarren barruan jasotako irizpideak bete behar dituela.
<http://www.controlunion.com>

BESTE BATZUK



ERAIKUNTZA ETA ETXEGINTZA IRAUNKORREKO MATERIALAK

Eraikuntzaren sektorea garapen ekonomikoaren funtsezko oinarrietako bat da. Gorago deskribatutako sektoreen eta eraikuntzaren arteko desberdintasun nagusiak bi alderdi ditu: alde batetik, eraikuntza-proiektu berean parte hartzen duten eragileen kopuru handia, eta bestetik, proiektu bakoitzaren produktuak, eraikinak, duen izaera berezia.


Horren ondorioz, sektore horretan elkartzen diren ingurumen-alderdiak askotarikoak dira. Garantzitsuenek baliabideen kontsumoarekin —bai lehengaiak, bai energia— eta eraikitzeke lurzoruaren erabilerekin zerikusia dute. Horien artean, nabarmentzekoa da erabiltzen den bitartean eraikinak kontsumitzen duen energia eta, hori kontuan izanda, eraikina klimatizatzeke sistema eraginkorrak, kalitatezko itxiturak eta isolamenduak eta abar sustatu behar dira, kanporantz doan beroaren galera minimizatzeke.

ERAIKUNTZA ETA ETXEGINTZA IRAUNKORREKO MATERIALETARAKO ETIKETEN ZERRENDA

ETIKETA	DESKRIBAPENA
	<p>IBER Bioeraikuntzaren eta Energia Berriztagarrien Institutua irabazteko asmorik gabeko erakundea da, 1998an eratu zena. Hauek dira IBERek erdietsi nahi dituen helburuak: bioeraikuntza zabaltzea eta sustatzea, eraikuntza iraunkorra sustatzea eta alor horretan prestakuntza eskaintzea, bioeraikuntza eta energia berriztagarrietarako egokiak diren teknologiak ikertzea eta garatzea eta kalitateari buruzko arauak ematea, eta, horiez gain, ezarritako kontrol-sistemak betetzen dituzten enpresa eta erakundeei nahiz produktu eta eraikinei ziurtagiria ematea.</p> <p>http://www.bioconstruccion.biz</p>
	<p>Eraikin berdeen eraikuntzarako sortu den LEED sistema borondatzeko estandarra da, industrian onartua, errendimendu handiko eraikin eta barrualde iraunkorrak definitzen dituena. Eraikin horiek osasungarriagoak dira, ingurumena errespetatzen dute, eta egitura errentagarriagoak dituzte. U.S. Green Building Council (USGBC) erakundeak 6 estandar garatu ditu eraikuntza-giro guztiak kalifikatzeko: LEED-NC: eraikuntza berriko eraikinak eta birmoldaketa handiak, LEED-EB: lehendik dauden eraikinen funtzionamendua eta zainketa, LEED-CI: barnealdeko birmoldaketak, LEED-CS: estalkia eta egitura (Iberdrola dorrea), LEED-H: familia bakarreko etxeak, LEED-ND: hirigintzako garapenak. Ebaluazioa amaitzean, proiektua urre, zilar edo brontze mailetako batean egon daiteke, eta, era horretan, eraikuntzak puntuatzeko eta sailkatzeko sistema konparatiboa sortu da.</p> <p>http://www.usgbc.org/</p>
	<p>«Building Research Establishment Environmental Assessment Method –BRE (BREEAM)» sistema ingelesak eraikuntzen hainbat alderdi ebaluatzen ditu: energiaren erabilera, uraren erabilera eraginkorra, hondakinen kudeaketa eta materialen erabilera. Ebaluazioa amaitzean, proiektua lau maila hauetako batean egon daiteke: nahikoa, ona, oso ona eta bikain. Era horretan, eraikuntzak puntuatzeko eta sailkatzeko sistema konparatiboa sortu da.</p> <p>http://www.breem.org</p>
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">BESTE BATZUK</p>	

7.3. II MOTAKO ETIKETA EKOLOGIKOAK: AUTOADIERAZPENAK

II MOTAKO ETIKETA EKOLOGIKOAK: AUTOADIERAZPENAK



IRISMENA:	Produktua	Enpresa
MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bai	
	Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:	ISO 14021	

Borondatezko markaketak ► Ekoetiketak

Merkatuan dagoen edozein produktuk hainbat ezaugarri aipagarri izan ditzake, eta horiek jakitera eman ahal zaizkie produktuaren azken erabiltzaileari. Produktu-kategorien kopuru zehatz bat eduki behar da eta, beraz, asko dira portaera hori ezagutzera emateko modu onartu eta normalizaturik ez duten produktuak. Eskaintzen diren ekoetiketak dituzten produktu batzuek ere interesa izan lezakete ingurumen-ezaugarri jakin batzuk bakarrik ezagutzera emateko, edo sistema horien irizpideen barruan jasotakoaz haragoko balio handia frogatzeko.

Fabrikatzaileak berak bere produktuari buruz egindako baieztapen horiek —testuak, sinboloak edo grafikoak erabilia— «autoadierazpenak» izenekoak dira, eta ISO 14021 arauak jasotzen ditu, II Motako Etiketa Ekologikoa izendapenez.

EMAN BEHAR DEN GUTXIENKO INFORMAZIOA

- Erabilitako arau edo metodoa.
- Frogagiriak, baldin eta adierazpena amaitutako produktuari saiakuntzak eginda egiaztatzerik ez badago.
- Saiakuntzen emaitzak, adierazpena egiaztatzeko beharrezkoak direnean.
- Saiakuntzak alderdi independenteak eginak badira, alderdi horren izena eta helbidea.
- Adierazpenek produktuaren bizi-ziklo osorako balio behar dute.
- Adierazpenak eragina duen eremuan egokiak izan behar dira.
- Beste produktu batzuekin alderaketa eginen bada, argi eta garbi jasota egon behar dira erabilitako metodoaren deskribapena, produktuei egindako saiakuntzen emaitzak eta egindako edozein hipotesi.
- Adierazpena eginen duenaren ebaluazioaren bidez egiaztatu behar da produktuaren gaineko ingurumen-autoadierazpena egiazkoa dela produktu hori merkatuan egongo den aldian eta baita ondorengo aldi batean ere, produktuaren bizitza kontuan hartuta.

Adierazpena egiten duenak (enpresa fabrikatzailea) ebaluazioaren ardua izan behar du, eta ingurumen-autoadierazpenak egiaztatzeko beharrezkoak diren datuak eskaini behar ditu. Ingurumen-autoadierazpen bat egiaztagarria izango da, bakar-bakarrik, egiaztapen hori negoziolari buruzko informazio konfidentziala ukitu gabe egitea badago.

I motako etiketek bereizgarri jakin bat izan behar badute ere, II motako etiketetan sinboloak ipintzea aukerakoa da. Sinbolo horiek baldintza hauek bete behar dituzte:

- Sinpleak izan behar dira.
- Erraz bereizi behar dira beste sinbolo batzuetatik.
- Ez dira objektu naturalen sinboloak erabili behar, baldin eta objektuaren eta adierazitako abantailaren arteko lotura zuzen eta egiaztagarri ez badago.
- Ingurumen-sinboloek gain, beste informazio bat emateko terminoak, zenbakiak edo sinboloak ere erabil daitezke, materialak identifikatzeko, suntsitzeko jarraibideak emateko edo arriskuaz ohartarazteko.

Etiketa mota horiek dira, hain zuzen ere, kontsumitzaileen nahiz enpresen artean nahasketa handiena sor dezaketenak, horiek autoadierazpenetan egiten diren baieztapenak egia diren frogatu nahi dutenean; izan ere, enpresa bera da adierazpena bere buruari emateko bete beharreko ingurumen-irizpide egokiak zehazten dituenak. Gainera, marketina nabarmena da adierazpen horietan, eta, beraz, produktua erabiltzeak ingurumenari egiten dion onura puzteko joera dago, benetakoarekin alderatuta.

Beraz, kontsumitzaileek ez dituzte honelako terminoak kontuan hartu behar:

- «Adiskidetsua», «berdea», «ingurumenaren aldetik segurua», «adiskidetsua lurrarekin», «ez du kutsatzen»..., izan ere, adierazpen zehaztugabeak dira, errealitatea islatzen ez dutenak.
- «Iraunkorrak», oso termino konplexua baita, ezaugarri bat adierazteko.
- «...gabea», «ez du...», frogagarria ez bada.

Eta, aitzitik, kontuan hartu behar dituzte honelakoak:

- Baieztapen zehatzak eta ez-engainagarriak egiten dituztenak.
- Produktuaren bizi-zikloaren faseekin lotutako ingurumen-alderdi egokiak aipatzen dituztenak.
- Informazio mamitsua, egiaztatua eta egiaztagarria ematen dutenak.
- Baieztapena produktu osoari edo zati batzuei buruzkoa den argi adierazten dutenak.
- Ingurumen-eraginak produktuaren bizi-zikloko etapa batetik bestera igaro daitezkeela kontuan hartzen dutenak.

Ondorengo taulan jaso dira ISO 14021 Arauan adierazitako produktu-ezaugarrien definizioak. Definizioak emateko arrazoiak da kontsumitzaileek produktuaren ezaugarriak ezagutzeko orduan interpretazio okerrak egin ditzaten saihestea.




ISO 14021 ARAUAN JASOTZEN DIREN EZAUGARRIEN DEFINIZIOAK

INGURUMEN-ADIERAZPENA	DEFINIZIOA
Konpostagarria	Produktu, ontzi edo horien osagarri baten ezaugarri honi esker, elementu horiek biodegrada daitezke, nahiko homogeenoa eta egonkorra den substantzia bat, humusaren antzekoa, sortzean.
Degradagarria	Produktu edo ontzien ezaugarri honek baldintza zehatz batzuetan produktuak tamaina jakin bateraino, eta denbora jakin batean, zatikatzea ahalbidetzen du.
Desmuntatzeko diseinatua	Produktuaren diseinuak duen ezaugarria da: produktuaren zatiak bereizi daitezke bizitza baliagarriaren bukaeran, eta, era horretan, osagarriak eta zatiak berrerabili, birziklatu, eta energia bihurtuta edo beste modu batean berreskuratu egin daitezke, hondakin-saretik bereizita.
Bizitza luzeko produktua	Erabilera luzea izateko diseinatutako produktua da; oinarriak iraunkortasunaren hobekuntza eta eguneratzea dira, eta era horretan murrizten dira baliabideen erabilera edo hondakinak.
Berreskuratutako energia	Hondakin bezala bota baina kudeaketa-prozesuen bidez jaso diren materialetan edo energian oinarrituta berreskuratu den energia erabiliz egin den produktuaren ezaugarri bat da.
Birziklagarria	Produktu, ontzi edo horien osagarri baten ezaugarri honi esker, elementu horiek hondakin-katetik desbideratu daitezke prozesu eta programen bitartez, eta jaso, prozesatu eta itzuli daitezke, lehengai edo produktu moduan berriro erabiltzeko.
Birziklatutako edukia	Produktu edo ontzi batek duen birziklatutako materialaren masa-proporzioa.
Birziklatutako materiala	Berreskuratutako materiala manufaktura-prozesu baten bidez landu eta azken produktu bihurtu den edo produktu bati gehitzeko osagarri bihurtu den materiala.
Berreskuratutako materiala	Hondakin bezala tratatu edo energia berreskuratzeko erabili beharrean, birziklatzeko edo manufakturatuzeko prozesu baten bidez jaso eta sarrerako material moduan, eta ez lehengai moduan, berreskuratu (berrerabili) den materiala.
Energia-kontsumo murriztua	Produktuaren erabilerari lotuta dagoen energiaren kontsumo txikiagoa, produktuak bere eginkizuna betetzen duenean eta eginkizun baliokidea duten beste produktu batzuek erabiltzen duten energiarekin alderatuta.
Baliabideen erabilera murriztua	Murrizketa, produktu edo ontzi edo horiei lotutako berariazko osagarriak ekoizteko edo banatzeko erabiltzen den material-, energia- edo ur-kopuruan.
Ur-kontsumo murriztua	Produktuaren erabilerari lotuta dagoen uraren kontsumo txikiagoa, produktuak bere eginkizuna betetzen duenean eta eginkizun baliokidea duten beste produktu batzuek erabiltzen duten urarekin alderatuta.
Berriz erabili eta bete daitekeena	Produktu edo ontzi mota hau sortu eta diseinatu da bere bizi-zikloan, helburu bera izanda, hainbat joan-etorri egin eta txandakatze edo erabilera izan dezan.
Hondakinen murrizketa	Hondakin-katean sartzen den materialaren murrizketa, produktu, prozesu edo ontzian egindako aldaketa baten ondorioz.

ISO 14021 ARAUAREN ARABERAKO INGURUMEN-AUTODEKLARAZIOAK

ETIKETA	EZAUGARRIAK	DESKRIBAPENA
	Birziklatua eta/edo birziklagarria	Möbiusen diagrama. Etiketa honek bi esanahi izan ditzake: ontzia edo produktua birziklatutako materialez egin dela, eta ontzia birziklagarria dela. Zenbaitetan, birziklatutako materialaren portzentajea adierazten da.
	Beira % 100 birziklatua	Beirako mosaikoak fabrikatzen dituen EZARRI Euskadiko enpresak, Möbiusen sinboloaren bidez egiaztatu eta ziurtatu du bere adierazpena, «lehengai moduan erabiltzen duten beira % 100 birziklatua dela», alegia.
	Baliabideak aurreztea, birziklagarritasuna	Etiketa honen bidez, OMRON enpresak bere produktuen artean ingurumena gehien errespetatzen dutenak nabarmentzen ditu. Marka honen lorpena, bere produktuei dagokienez, oinarrituta dago enpresak berak ezarritako barneko estandarretan; horien artean, hauek dira aipagarriak: erabilera-fasean, gutxienez % 30eko murrizketa materialetan; erabilera-fasean, % 30eko murrizketa energiaren kontsumoan, batezbestekoarekin alderatuta; eta biziklapen- eta berrerabilpen-maila handia osagarrietan.
	Birziklagarritasuna, baliabideak aurreztea	ADVANTEST enpresak ISO 14021 Arauaren arabera egindako zigilua du; horren bidez, bere produktuek ingurumenean duten onura azpimarratzen du, birziklagarritasun-maila handia dutelako, energia eta baliabideak aurrezten dituztelako, eta substantzia arriskutsurik erabiltzen ez delako.
	Produktu ekologikoa	NEC-en «ekosinboloa» 1998ko abenduan sortu zen, barne-soinuaren hardwarea etiketatzeko sistemaren barruan. 2010. urtera arte indarrean egon den NEC-en gerentziaren ingurumen-ikuspegiaren bidez, etiketaren irismena zabaldu egin da, softwarea, zerbitzuak eta bestelako irtenbideak barne hartuta.
	Birziklagarria	RICOH enpresak sinbolo hau erabiltzen du ingurumen-ezaugarriak dituzten bere produktuak errazago ezagutu ahal izateko. Hauek dira produktu horien ezaugarri nagusiak: enpresak ezarritako elementu birziklagarrien estandarrak betetzea, produktuen zati berrerabilien masa % 40tik gora izatea, eta % 90tik gorako erabateko birziklagarritasuna.

7.4. III MOTAKO ETIKETA EKOLOGIKOAK: PRODUKTUAREN INGURUMEN-ADIERAZPENAK

III MOTAKO ETIKETA EKOLOGIKOAK: PRODUKTUAREN INGURUMEN-ADIERAZPENAK			
   	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bai Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
	OHARRAK:	ISO 14025	

Borondatezko markaketak ► Ekoetiketak

Egunetik egunera zabalduago dagoen eskaera bat da produktuen arteko alderaketa egiteko estandar bat izatea, produktu mota baten ingurumen-alderdi esanguratsuenak kontuan hartzen dituen, eta horien artean iraunkorrena zein den balioestea baztertu eta informazio objektibo eta egiaztagarria eskaintzen duena.

Behar hori bezeroen eta hornitzaileen arteko hartu-emanetan sortu da batez ere, harreman horien bitartez hornitzaileari bere produktuaren ingurumen-arazoei edo eskaintzen duen zerbitzuari buruzko informazioa eskatzen baitzaio.

Eskaera horri erantzuna emateko, ISO 14021 Arauak erregulatzen dituen III Motako Etiketa Ekologikoa – Produktuaren Ingurumen adierazpena izeneko sistemak sortu dira («Environmental Product Declaration» edo EPDa).

ISO 14020 arau multzoak arautzen dituen gainerako bi sistemekin erkatuta dagoen aldea honetan datza: mota honetan ez dira definitzen bete beharreko gutxieneko ingurumen-eskakinak edo -balioak, bakar-bakarrik identifikatu egiten baitira ingurumen-alderdi batzuk, horiei buruzko informazioa emateko eta, era horretan, duten ingurumen-portaerari buruzko irudi bat eskaini ahal izateko. Hau da, III motako etiketa edo produktuaren ingurumen-adierazpena duten produktuak ez du zertan ingurumenaren ikuspegitik hobeia izan, etiketa hori ez duen beste produktu batek baino. Aditzera ematen dena da produktu horren fabrikatzaileak bere produktuaren portaerari buruzko informazioa eman duela, aukeratutako adierazpen-sistemaren arabera.

Hala bada, EPDa inbentario bat dela esan daiteke, eta horren barruan «aurrez zehaztutako parametro-kategoriak dituen produktu bati buruzko ingurumen-datu kuantifikatuak daude, bizi-zikloari buruzko analisia arautzen duten ISO 14040 arau multzoan oinarrituta. Horrek ez du baztertzeko III motako ingurumen-adierazpenaren programaren barruan ematen den ingurumen-informazio gehigarria eskaintzea». Beraz, informazio tekniko duen zehaztasun handiko txostena da, eta ez sinbolo edo logotipo bat besterik gabe.

EPDa egiteko ISO 14025 eta ISO 14040 arauak zehaztutakoa bete daiteke, eta alderdi independente batek egiaztatzea bizi-zikloaren azterketa eta adierazpena arau horiei jarraituz egin direla.

Nolanahi ere, EPDak ziurtatzeko programek zehazten dute, produktu multzo bakoitzeko, bizi-zikloaren azterketa eta EPDa egiteko era zehatzagoa, eta sinbolo bat ematen dute, txostenari gehitzen zaiona eta ingurumen-ziurtagiriaren eginkizunak betetzen dituena.

Programa horiek ISO 14025 Arauan berariaz ezarritako baldintzen arabera sortzen dira, eta «Product Category Rules» (PCR, siglak direla eta) izeneko agirietan jasotako lan-prozedurak edo -arauak garatzen dituzte.

PCR horien barruan, bizi-zikloaren azterketan sartu beharreko gutxieneko datuak, erabili beharreko eragin-metodologia eta EPDaren edukia jasota daude. I motako etiketekin bezala, produktu multzoren batek bete beharreko PCR-rik definituta ez badago, programak erabaki dezake horiek enpresa fabrikatzailearekin eta interesa duten hirugarren alderdiekin lankidetzan garatzea, erabil daitezkeen PCR eta EPDen eskaintza handitzearen.

Beraz, enpresa batek EPD bat egin nahi badu EPDak ziurtatzeko dauden programetako batean oinarrituta, lehenik eta behin ziurtagiripean jarri nahi duen produktu multzoarekin bat egiten duen PCR-ren bat badagoen edo ez egiaztatu behar du eta EPDan sartu nahi duen informazioa aztertu.

Enpresek onura handiak lor ditzakete adierazpen horiei esker:

- Beren produktuen ingurumen-funtzionamendua egiaztatutako modu kuantitatiboan deskribatzeko aukera izan dezakete, bizi-ziklo osoaren ikuspegitik eta objektibotasunez.
- Beste produktu edo/eta zerbitzu batzuk lortzeko eta erosteko informazio-tresna moduan erabil daiteke.
- Multzoka sailkatuta egonda, erkaketak egin daitezke funtzionalki baliokideak diren produktuen artean.
- Egiaztatuta dagoen erakunde independente batek ziurtatu eta baliozta dezake, eta, halaber, adierazpenean jasotako informazioa sinisgarria eta egiazkoa dela berma dezake.

Sistema mota hauek, duten izaera dela medio, oso egokiak dira enpresen eta bezeroen artean informazioa trukatzeko, baina ez azken kontsumitzailearentzat, EPDak duen informazioa oso tekniko eta zehatza delako.

Mundu osoan, hainbat erakunde garatzen dituzte EPDei ziurtagiria emateko PCRak. Erakunde horien helburua da merkatuan dauden EPDek «arau» partekatu batzuk betetzea, prestaketari eta idazketari dagokienez. Horren ondorioz, planetako hainbat eskualdetan balio kontrastatua duten EPDak garatzea lortu da.

III motako etiketen kasuan, gainera, «Global Environmental Declarations Network (GED)» izeneko erakundea dago. Irabazteko asmorik gabeko erakundea da, eta helburu hauek ditu: III motako ziurtagiri-sistemak elkartzea, irizpideak bateratzen saiatzea, ziurtapen-sistema guztiak batera existitzea bideragarri egitea, eta adierazpen horiek sustatzea.

Erakunde honetara atxiki daitezke hala nahi duten sistemak, erakundearekin bat egiteko. Erakundearen egitekoa ez da sistemak kontrolatzea, baina sistema berri bat kide bihurtu baino lehen, ISO 14020 eta 14025 arauak betetzen direla egiaztatuko du.



Komenigarria da, jarraitu baino lehen, sistema mota honetan sakontzean aurki ditzakegun terminoak eta nomenklaturak laburbiltzea. Ildo horretan, ingelesezko terminoak erabiliko dira etiketa mota horien berezitasunak deskribatzeko, hizkuntza hori nagusi baita etiketei buruzko informazioa eta bibliografia gehienetan.

— **EPD: Environmental Product Declaration/Produktuaren Ingurumen Adierazpena (PIA):**

- Aztertutako sistemaren ingurumen-informazioa bildu eta ingurumen-eraginaren emaitzak jasotzen dituen dokumentua/txostena.
- EPD programaren baten barruan garatuz gero, PCRn dagokion produktu multzoarentzat eskatutakoa ere jasoko da bertan.

— **PCR: Product Category Rules/Produktu-kategoriaren Arauak (RCP):**

Bizi-zikloaren azterketari buruzko azterlana egiteko jarraitu beharreko arauak definitzen ditu, eta EPDan azaldu beharreko informazioa zehazten du; oro har, ISO 14040 (bizi-zikloaren azterketa) eta 14025 (EPD) arauak xedatutakoa baino zehaztasun handiagokoak dira.

- PCR-ren irismen-esparruaren barruan sartzen diren produktuen definizio zehatua.
- Adierazpenean sartu beharreko materialen zerrenda.
- Azterlanaren unitate funtzionalaren definizioa.
- Aztertu beharreko sistemaren mugen definizioa.
- Produktuaren bizi-zikloaren fase bakoitzean sartu eta kontuan hartu behar den informazioari buruzko zehetasunak.
- Azterlanean erabiliko diren datu mota eta datu-base bateragarri eta onartuen aukeraketa.
- Ingurumen-eraginaren sailkapena, bizi-zikloaren azterketaren emaitzak erakusteko.
- Emaitzak agertzeko unitateen aukeraketa.

— **Erakunde egiaztatzailea (Certification body/Individual verifier)**

- Bizi-zikloaren azterketari buruzko azterlana nahiz EPD dokumentua ISO 14040 eta 14025 arauetan xedatutakoa betez burutu eta idatzi direla egiaztatzen duen erakundea.
- EPD programaren barruan jardunez gero, dagokion produktu multzoarentzat ezarritako PCRa bete dela ere egiaztatuko da.









— **EPD Programa (Registration body/Programme operator)**

- Enpresari ziurtagiri bat eman eta burututako EPDari dagokion programaren sinboloa erabiltzeko eskubidea onartzen dion erakundea.
- Bere programaren barruan dauden PCRen sorrera eta erabilera kudeatzen dituen erakundea.

ETIKETATZE-SISTEMA NAGUSIAK EUROPAN ETA MUNDU OSOAN


 Global Type III Environmental Product Declarations Network - **GED.net**

Multisektorialak

-  **The International EPD® system (environdec)**
-  Japan - ECO LEAF
-  Norway - NHO
-  South Korea - KOEKO EPD
-  Denmark - MVD EPD
-  Italy - Futura Re-edición (antes ANPA)
-  Canada - EPDS programme
-  Germany - German Building Materials Association

Sektorialak

-  Finland - RTS, Building Information Foundation
-  France - AFNOR, French Standardisation Organisation
-  The Netherlands - Milieu Relevante Product Informatie, MRPI
-  Sweden - Byggvarudeklarationer, BVD
-  Switzerland - SIA, Swiss Association of Engineers and Architects
-  UK - Environmental Profiles for Construction Materials, BRE
-  US - Building for Environmental and Economic Sustainability, BEES
-  España - Declaración ambiental de Productos de Construcción, DAPc



PRODUKTUAREN INGURUMEN-ADIERAZPENEN ZIURTAGIRIEN PROGRAMEN ZERRENDA

ETIKETA

DESKRIBAPENA



Suedian egoitza duen «The international EPD Consortium» erakundea sistemaren administratzailea da. EPDak garatzeko eta ziurtatzeko lehenetsitako nazioarteko sistema bihurtzeko asmoz eratu zen. EPD formatua, beraz, mundu osoan aplikatu daiteke.

<http://www.environdec.com>



«The Japan Environmental Management Association for Industry-JEMAI» erakundeak sortua, hiru kategoriatan egituratuta dago:

- P.E.A.D. (Product Environmental Aspect Declaration). Produktuari buruzko funtsezko informazioa, bizi-zikloan izandako ingurumen-eraginaren laburpena barne.
- P.E.I.D.S. (Product Environmental Information Data Sheet). Produktuaren bizi-zikloan izandako ingurumen-eragin guztiei buruzko informazioa zenbakizko baliotan.
- Product Data Sheet. PEIDSi buruzko bizi-zikloaren azterketen emaitzak eskuratzeko informazioaren oinarria.

<http://www.jemai.or.jp/english/ecoleaf/>



«Korean Ecoproducts institute KOEKO» eta «Korean Ministry of Environment» erakundeek kudeatzen dute programa hau. Koreako programaren helburua produktuei buruzko informazio alderagarria, gardena eta zehatza eta ingurumenaren alorrekoa eskaintzea da.

<http://www.edp.or.kr>



Norvegiako enpresen konfederazioak (NHO) EPDak garatzeko programa bat ezarri zuen 2000. urtean. Gaur egun, sistema «Norwegian EPD Foundation» erakundearen bidez administratzen da. Fundazio horren bitartez, halaber, Norvegia elkarlanean aritzen da Eskandinaviako beste herrialde batzuekin, EPDak garatzeko.

<http://www.nho.no>



Alemanian «Institut Construction and Environment (IBU) e.V.» institutuak kudeatuta dago, eta eraikuntzako produktuei ziurtagiria ematen die. Une honetan, PCR hauek ditu:

- Building Metals.
- Floor coverings/PCR Floor Coverings.
- Glass Reinforcement Mesh/PCR Glass Reinforcement Mesh.
- Wood Materials/PCR Wood Materials.

<http://bau-umwelt.de/hp481/Environmental-Product-Declarations-EPD.htm>



Duela gutxi Frantziako enpresa pribatuek, sindikatuek eta administrazio publikoak sortua da, elektrizitate, elektronika eta aireztapen/aire-hozkuntza zein -berokuntzaren sektoreko produktuaren ingurumen-adierazpenen sistema bat sortzeko asmoz.

<http://www.pep-ecopassport.org/>



«Colegi d'aparelladors, arquitectes tècnics i enginyers d'edificació de Barcelona» elkargoa administratzailea da eta Kataluniako Generalitat babeslea. Informazio objektibo, egiaztagarria eta banakatu ematen dute fabrikazio-prozesuan izandako baliabide naturalen kontsumoari buruz (ura, energia eta baliabide berriztagarriak), atmosferara egindako igorpenei buruz, eta uretara nahiz lurrera egindako isurpenei buruz. Berriki sortutako adierazpena da, eta, orain arte, bi PCR dituzte bi produktu-kategoriarentzat:

- Bero-isolatzaileak.
- Zeramikazko estaldurak.

<http://es.csostenible.net/el-sistema-dapc-2/>

PRODUKTU MULTZOAK

I motako etiketatze-sistemetan bezala, EPDen ziurtagiri-sistema bakoitzak bere produktu-kategoriak ditu, bakoitzari dagokion PCRa bereizgarri duela.

Beheko taulan, konparaziorako adibide gisa, sistema horietako lauk dituzten PCRak jaso ditugu⁵⁷.

PRODUKTU MULTZOAREN ZERRENDA

INTERNATIONAL EPD SYSTEM	NHO	ECO LEAF	KOECO EPD
			
<ul style="list-style-type: none"> – Olive oil, crude – Dairy Products and Egg Products – Processed liquid milk – Grain mill products – Groats, meal and pellets of wheat and other cereals – Pastry goods and cakes – Bakers' wares – Uncooked pasta, not stuffed or otherwise prepared – Sauces; mixed condiments; mustard flour and meal – Beverages – Wine – Yarn and thread – Textile articles other than apparel – Textile products used for thermal insulation of buildings – Leather and leather products – Products of wood, cork, straw and plaiting materials – Pulp, paper and paper products – Paper products – Coke products; refined petroleum products; nuclear fuel – Basic chemicals – Ethanol (Fuel) – Plastics in primary forms – Other Chemical products – Rubber and plastic products – Glass 	<ul style="list-style-type: none"> – Seating – Beds and Mattresses – Table – Textiles – Wild caught fish – Roof waterproofing, mechanical fixed single ply membranes – Chemical Products for Building and Construction Industry – Building boards – Mechanical equipment for Buildings – Insulation Materials – Steel as Construction Material – Windows and doors – Solid wood products 	<ul style="list-style-type: none"> – Electrophotographic Dry Process Photocopier – Insulation Material (polystyrene foam type) – Single-Use Camera – EP(Electrophotographic Printer) & IJ(Ink Jet) – Analog Camera (with silver film) – Digital Printer-Duplicator – Data Projector – Facsimile – Thermal Transfer Card Printer – Water Meter Box – Communication Cable – Bidet Toilet Seat – Structural Aggregate – Digital Camera – Porcelain products – Office Desk – Notebook Computer – Grid Electricity – Drain Ditch Cover – Photo Print Scanner – Save Electricity – Equipment for Fax – Interphone – Telephone – Electronic board – Instant Photo Printer – Optical Disc Drive – Beverage can – Paper container – Raised floor (free access to the PC) – Wholesale electricity 	<ul style="list-style-type: none"> – Refrigerators – TFT-LCD monitors – CRT glass substrates – Toilet papers – PDP TVs – PC built-in optical disk drives – Microwave ovens – Video media players/recorders – Air conditioners – Washing machines-drum type – Gasoline – Tires for passenger cars – Automobile air filters – EP rubbers – Hand dishwashing detergents – Laundry detergents – Laser printers – Mobile phones – Liquefied natural gas – TFT-LCD modules – TFT-LCD glass substrates – Digital cameras – Printed circuit boards – Nonwoven fabric – Copper and Copper alloys – Tap water – Packaged bean curd

.../...

⁵⁷ P2011ko urtarrilean zeuden PCRak. Zerrenda eguneratua eskuratzeko, kontsultatu sistema bakoitzaren web orrialdea.

PRODUKTU MULTZOAREN ZERRENDA (jarr.)

INTERNATIONAL
EPD SYSTEM

- Cement
- Furniture, other transportable goods n.e.c.
- Seats
- Parts of furniture
- Basic Metals
- Fabricated metal products
- General purpose machinery
- Special-purpose machinery
- Other special-purpose machinery and part thereof
- Laser printers used with data processing machines
- Electrical machinery and apparatus
- Radio, television and communication
- Medical, surgical or laboratory sterilizers
- Transport equipment
- Rail Vehicles
- Buildings
- Highways (except elevated highways)
- Hotel Services
- Passenger transport services
- Taxi services
- Freight transport service
- Postal and courier services
- Electricity, gas and water distribution (on own account)
- Water distribution, except steam and hot water
- Telecommunications services
- Household Washing Machines
- Refrigerators
- Notebook computers
- Power supply
- Integrated Circuits
- ADSL
- TFT-LCD Displays

NHO



ECO LEAF



KOEKO EPD



- Low voltage motor control center
- Network Camera
- Desk top personal computer & monitor
- Touch and Close Fastener
- EP and IJ printer (including color printer)
- Large format printer
- Cussioning material
- Tile carpet
- Electronic voting system
- PBX system
- Water meter unit
- Internet data server system
- Foamed polystyrene sheet
- Switchgear «high voltage board»
- Small sized DC motors with brush motors
- POS terminal
- Industrial chain
- Flatbed / Sheet-fed scanner
- Small format photo printer
- Toilets and urinals
- Faucets
- Foodstuff delivery systems
- Beverage or cigarette vending machines

Gaur egun, web atari bat dago, EPDen ziurtagiri-sistemetan indarrean dauden PCRen ahalik eta kopururik handiena zentralizatzeko eta eguneratuta mantentzeko asmoz sortua.


JEMAI Japoniako erakundearen bidez sortu da, eta «Ministry of Economy, Trade and Industry of Japan» ministerioaren nahiz «Global Environmental Declarations Network (GED)» erakundearen babes du.

www.cfp-japan.jp/english/gpl/steps/

The screenshot displays the 'PCR Library' website interface. At the top, the logo 'PCR Library' is visible alongside navigation links: HOME, ABOUT PCR LIBRARY, SITE MAP, and LINKS. Below the navigation is a blue banner with a cloud pattern. On the left side, there is a 'MENU' section with links for: 'The steps for the preparation of PCR', 'Contents of PCR', 'Procedure for development and maintenance of PCR', 'Search by product category', and 'Search by country'. Below the menu is a 'CONTACT' section with an email icon and 'Mail: cfp@meti.or.jp', and a 'More information' link with the URL 'http://www.cfp-japan.jp/english/'. At the bottom left is the METI logo (Ministry of Economy, Trade and Industry). The main content area is titled 'Search by product category' and includes a search bar. Below the search bar, there is a note: 'Each product category link below directs you to PCRs in each category. If you cannot find a PCR that meets your needs in the categories below, then you may wish to ask for it via either each program holder/ GEDnet (links shown in navigation banner to the left)'. The categories are presented in a grid of six boxes: 'Agriculture' (forestry and fishery products, food products, textiles), 'Utility' (electricity, gas and water), 'Transportable goods' (except metal products, machinery and equipment), 'Metal products', 'Electronics', and 'Machinery and equipment'.

EPD BAT SORTZEKO PROZESUA

Adierazi dugun bezala, EPD batek prozesuaren bukaeran lor dezake ziurtagiria, EPDen ziurtagiri-programa baten bidez edo horrelako programarik gabe. Orrialde honetan azaldu dugu, laburbilduta, EPD bat garatzeko prozesua, aipatutako bi egoeretan: ziurtagiripean jarri gabe, eta ziurtagiria «International EPD system» delakoaren bidez eskuratu nahi izanez gero. Gainerako ziurtagiri-programetan, prozedura antzekoa da, guztiek bete behar dutelako ISO 14025 Arauan eskatutakoa.




PCR BAT SORTZEKO PROZESUA

EPDaren ziurtagiria dagoen programa baten bidez lortu nahi bada, baina programa horrek ez badu enpresak ziurtagiripean jarri nahi duen produktua barnean hartzen duen irismena ez duen PCRrik, PCR bat prestatzea proposatu beharko da.

Orrialde honetan jaso dugu, laburbilduta, PCR bat «Internacional EPD System» delakoaren bidez garatzeko prozesua. Gainerako ziurtagiri-programetan, prozedura antzekoa da, guztiek bete behar dutelako ISO 14025 Arauan eskatutakoa.





ADIBIDE: 



ZIURTAGIRIAREN KOSTUA

I motako etiketatze-sistemetan bezala, sistema mota honetan erabiltzen diren tarifak desberdinak dira sistema batetik bestera, eta irizpide desberdinetan oinarrituta ezartzen dira.

HONAKO SISTEMETAKO LAU TARIFEN AZALPENA


INTERNATIONAL EPD SYSTEM	NHO	ECO LEAF	KOEKO EPD
			
<p>Erregistroa (EPD bakoitzeko): 1.000€ EPD bateko 1.500€ bi EPDko 2.000€ hiru edo lau EPDko (Kontsultatu prezioak sistemaren administratzailearekin, lau EPDtik gora direnean)</p> <p>Urteko tasa: < 250 enplegatu (1.000€) > 250 enplegatu (2.500€)</p>	<p>Erregistroa (EPD bakoitzeko): 10.000 NOK (1.250€)</p> <p>Urteko tasa: 8.000 NOK (1.250€)</p>	<p>Erregistroa (EPD bakoitzeko): Produktuaren prezioa → Erreg. kostua <90 USD → 2.550 USD / 1.000€ <455 USD → 3.000 USD / 2.200€ <910 USD → 3.360 USD / 2.500€ <1.820 USD → 3.820 USD / 2.800€ >1.820 USD → 4.270 USD / 3.100€</p> <p>Ecoleafek berak egiaztatuta: Enplegatu-kopurua → kostua <500 → 14.500 USD / 10.800€ <1.000 → 17.300 USD / 12.900€ <1.500 → 20.000 USD / 14.890€ <2.000 → 22.700 USD / 16.900€ >2.000 → 24.500 USD / 18.250€</p> <p>Urteko tasa: 90 USD /urte/EPD (65€ /urte/EPD)</p>	<p>Eskura ez dagoen edo eskaini ez den informazioa</p>

NOK= Norvegiako koroa (1€ = 7,8 NOK)

Adierazi behar dugu taulan zehaztutako kostuek (azaldutako Ecoleafen kasuan izan ezik) EPDa sisteman erregistratzeko kostuak soilik estaltzen dituztela, eta ez dituztela barnean hartzen bizikloaren azterketa eta EPDa hirugarren alderdi independenteak egiaztatze prozesuari lotutakoak; hala bada, enpresa eskatzaileak ordaindu behar ditu kostu horiek. 5.000€ eta 10.000€ bitartekoak izaten dira, egiaztapena egiten duen erakundearen eta PCR motaren arabera.

ADIBIDEAK

VICINAY CADENAS ENPRESAREN PRODUKTUAREN INGURUMEN ADIERAZPENEA. «INTERNACIONAL EPD SYSTEM» SISTEMAREN BARRUAN EPDAREN ZIURTAGIRIA LORTU DUEN ESTATUKO LEHENENGO ENPRESA IZAN DA




Environmental Product Declaration (EPD)

Mooring Chain
with a >84 mm nominal diameter,
R5 Quality of steel
For Offshore Industry.

According to the Product Requirements specified in:

STEEL PRODUCTS
PSR 2002:1

Registration number S-P-00170

EPD valid while there is no substantial change in manufacturing process.
This declaration contains 25 pages, including this title page.

Revision 03 of 12th June 2009



The system boundaries determine which processes are included in the present declaration. In this document we consider each of the processes to which the chain is subjected from the extraction of the raw material to the end of the product's working life (from the work to the final). However, given the lack of available data in scope of the study we have made estimates for those external phases which warrant such attention.

Chain manufacturing process

1. Steel maker supplier:
The lifecycle begins with the production of the steel bars at the steel manufacturer's plant, which is located in Bascoia, northern Spain. At this plant, starting from selected scrap metals for steel alloy, through a process of electric steel making plant, is produced the 'ladle' supplied by VICINAY CADENAS. From the steel bar, is packaged and transported by (steel) trucks belonging to the steel manufacturer, to the chain manufacturing plant in Biltze.

2. Manufacturer:
When the steel bars arrive at the plant these bars are classified and stored in metallic ponds in the reception area. When needed they are taken, by means (using) a conveyor system which takes the steel bars to the cutting process, where each bar is cut to the required length.

Any leftovers after the cutting process, which are minimized in purchase order, usually between 2% and 5% of the total mass are managed as recycled waste (scrap metal).

After cutting, the 'lengths' are transported to the manufacturing workshop, where they undergo five operations, in a many-go-round configuration (circular), to achieve the specification requested by the clients. The five operations are: preheating (natural gas), bending (electricity and tools), cutting (electricity and tools), trimming (electricity and recycled waste) and pressing (electricity and tools), connecting, one by one, each link until the required length is obtained.





After leaving the workshop, the link's surface is cleaned using a chemical method: shot-blasting process (non hazardous waste) which makes non-destructive inspection easier. These cleaning machines have a system to separate the used shot from steel making non-hazardous waste segregation and reuse water.


After non-destructive inspection any material that does not conform to quality standards is painted blue and is cut and removed from the chain. This cut material is cleaned as recycled waste.

After having undergone these processes the chain then passes on to the heat treatment phase (heat of gas) this is done so that the material's base structure is regenerated around the welded section. This treatment consists of double quenching followed by tempering. Between each step the chain is cooled by immersion in a cooled water circuit which is not employed externally.

After heat treatment the chain is tested to verify its resistance to traction using proof loads rigorously determined according to the chain's dimensions and quality. 100% of the links are tested in a traction machine (electricity) after which the elongation of the link is tested. This is done to make sure that the load and dimensions are in accordance with the specifications.

After a second shot-blasting cleaning operation, the chain is once again inspected to determine if there are any defects. This operation starts with a visual inspection of each and every link. After identifying any possible flaws (metallic deposits which were not eliminated during mechanical cleaning on the surface of the link these defects are removed by manual shot-blasting).





There is no energy source in the chain manufacturing plant. All energy comes from the national grid.

The consumption of resources with no energy component is as follows:

RESOURCES WITHOUT AN ENERGY COMPONENT	kg/1,000 kg Chain
RECYCLABLE Steel	141.49
NO RECYCLABLE Copper, mixing fluids, lubricants and paints	20.87
WATER	0.17


We have considered steel as a renewable material due to the high proportion of steel recycling on a world-wide scale.

3.3.2 Emissions to Air, Water, and Soil.

The following indicators reflect the potential environmental impact caused by the chain manufacturing process. We again make use of the ISO 2001 methodology.

IMPACT CATEGORY	ENV	TOTAL/1,000 kg Chain
Global Warming Potential (GWP)	kg CO ₂ e	83.28
Acidification (AP)	mol H ⁺	28.55
Ozone Depletion Potential (ODP)	kg CFC-11	0.00
Human-toxicity (HCP)	kg Cu ₂ e	0.03
Ecotoxicity (EP)	g O ₂ e	2,445.55

All of environmental impact indicators.



Note: The units selected as indicators for environmental impact and the conversion factors used are those prescribed in 'Appendix A' of the ISO 15922 (Rev. 11 dated 2005/03) and those chosen in the CML 2001 methodology for calculating environmental impact. This methodology is fully developed and used at European level due to the reliability of its data and its scientific bases which are upheld in the methodology and procedures established by Guinée et al. (2001).

In the table below we provide details of the emissions to both air and water of the substances required. All data provided has been verified by Authorized Control Organisms (A.C.O) which are in turn controlled by the corresponding administration, in this case The Basque Regional Government.

Emissions to air	g/1,000 kg Chain	
	ENV	ENV
SO ₂	0.19	0.05
NO _x	284.93	0.44
NON-HALOGENATED	134.89	0.79
CO	0.00	19.83
CH ₄	0.03	0.02
H ₂	0.00	
N ₂	0.26	
Fe	0.43	
Zn	13.41	
Total:	1,244.94	

Emissions to water	g/1,000 kg Chain	
	ENV	ENV
CH ₄	0.00	0.00
CO ₂	0.00	0.00
NO ₃	0.00	0.00
NO ₂	0.00	0.00
SO ₄	0.00	0.00
SO ₂	0.00	0.00
Fe	0.00	0.00
Zn	0.00	0.00
Total:	0.00	0.00

Emissions to air and water caused by the manufacturing process.

TRANSFORMADORE LEHOR KAPSULATU BATEN PRODUKTUAREN INGURUMEN ADIERAZPENA, ASEA BROWN BOBERI S.A. ENPRESARENA. ADIERAZPEN HORI EMA ERREGISTROAN EGIATZATUTA DAGO, ETA EZ DAGO INONGO ZIURTAGIRI-PROGRAMATARA ATXIKITA

1LES100003-YB- rev. 3

Declaración ambiental

Asea Brown Boveri, S.A. - Zaragoza
Año 2007

VERIFICADO
ECA CERT
18 JUN 2008

ABB

1LES100003-YB - rev. 3

17 / 45

5.3 Aspectos ambientales significativos

Para determinar los aspectos ambientales significativos en situaciones normales y anormales se han aplicado criterios basados en la duración, la reversibilidad y la magnitud de los impactos ambientales, así como en el cumplimiento de la legislación y en la opinión de las partes interesadas. Así mismo para determinar estos aspectos en situaciones de emergencia se tienen en cuenta la frecuencia de ocurrencia del suceso y la categoría de incidencia ambiental que valora los aspectos ambientales en función del nivel de: la sensibilidad del hábitat sobre el que se produce el suceso, las sinergias tanto positivas como negativas que se producen en la interacción del suceso con el medio ambiente, y existencia/superación o no de límites legales y peligrosidad de las sustancias implicadas en el suceso.

Para ello debemos de tener en cuenta el que es lo que produce la situación de emergencia, desde se produce esa situación y cuanto o que cantidad está implicada. En las siguiente tablas se detallan los aspectos ambientales significativos en el 2006 y 2007.


Año 2006

Situaciones normales y anormales	
Aspecto ambiental	Efecto sobre el Medio Ambiente
Residuos: Resina sin polimerizar Disolvente no halogenado Tubos fluorescentes Pintura	Generación de residuos Son residuos difíciles de degradar, se depositan en vertedero. El impacto está relacionado con la alteración del suelo y del paisaje.
Consumos de: Gasóleo para calefacción Agua	Agotamiento de reservas petrolíferas y reservas de agua Disminuye la cantidad de crudo disponibles en la naturaleza. Disminuyen las reservas de agua. La cantidad de recursos disponibles disminuye para generaciones siguientes.

Situaciones de emergencia	
Aspecto ambiental	Efecto sobre el Medio Ambiente
Vertidos al suelo: Resinas epoxy Pinturas Aceites	Contaminación del suelo Los vertidos accidentales ocasionan la introducción del producto químico derramado en el suelo. Como consecuencia de esto son la alteración de las propiedades y la posibilidad de contaminar acuíferos o corrientes de agua subterráneas.

1LES100003-YB - rev. 3


29 / 45




7.4 Principales materias primas consumidas

MATERIA PRIMA	2005		2006		2007	
	Tm	Tm/Ud	Tm	Tm/Ud	Tm	Tm/Ud
CHAPA MAGNÉTICA	5813.53	2.04	5887.00	2.69	8919.21	2.54
ALUMINIO	1089.75	0.39	1478.60	0.58	1481.47	0.54
COBRE	299.40	0.10	477.20	0.19	479.90	0.18
RESINA Y COMPONENTES*	846.28	0.30	879.65	0.36	969.56	0.36

*630.35 Tm de Harina de cuarzo en 2007



Evolución de la producción de residuos no peligrosos



Como puede observarse, la generación de residuos no peligrosos no ha sufrido grandes variaciones si comparamos con los producidos en 2006.

No obstante se registran aumentos en el residuo de madera y plástico debido a un aumento de las compras de materia prima (aumento de la producción) que llega a fábrica con embalajes de plástico y palets de madera.

Así mismo se produce un aumento en la producción de residuo de fleje magnético y aluminio debido a un aumento de fallos de calidad que suponen el rechazo de estos materiales que componen el circuito magnético y los arrollamientos de los transformadores.


El cobre suizo se debe al proceso de reparación y está sujeto a una gran variabilidad debido a que las reparaciones son imprevisibles.

También consideramos que cada vez se produce una mejor segregación de los residuos como resultado del aumento de sensibilización del personal.

Las campañas de orden y limpieza hacen que en ocasiones ciertos residuos como el papel no tengan una tendencia uniforme.

De los residuos que aparecen en el diagrama anterior se reciclan todos excepto la basura urbana que va a vertedero autorizado.

Generación de residuos no peligrosos



PRODUKTU BATEN KARBONO-ARRASTOAREN INGURUMEN-ADIERAZPENAK

Goragoko ataletan azaldu ditugun produktuen, zerbitzuen eta/edo erakundeen Karbono-arrastoari dagokionez, etiketatze-sistemak sortzean gertatu zen moduan (planetan tenperatura igotzeari eta berotegi-efektuari lotutako ingurumen-arazoaren inguruan dagoen gero eta kezka handiagoak bultzatuta), EPDen ziurtagiri-sistemek ere berariazko ziurtagiriak sortu dituzte Karbono-arrastoaren ingurumen-adierazpenak ziurtatzeko.

Adierazpen horiek oinarrituta daude ikuspegi berean, eta EPD estandar/osatuek dituzten oinarri beretatik abiatzen dira; alabaina, ingurumen-eragin kategoria bakar bat aztertzen dute: berotze globalaren potentziala.

Oro har, adierazpen mota horiek idaztea eginkizun erraza da EPD oso bat dagoeneko garatu duten enpresentzat, izan ere, jasotzen diren datuak eta egiten den azterketa guztiz bateragarriak dira. Adierazpen horiek EPD osoen laburpena direla esan daiteke, berotze globalaren potentzialari dagokionez.


Enpresak lehenago EPD osorik idatzi ez badu baina mota horretako EPD bat lortu nahi badu, EPD oso bat lortzeko egin beharreko lan-prozesu bera egin behar du:

1. PCR bat bilatu behar du bere produktu-kategoriarentzat.
2. Datuak bildu behar dira eta bizi-zikloaren azterketa burutu.
3. Klima-adierazpena idatzi behar da, ziurtagiri-programan eskatzen den informazioaren arabera.
4. Adierazpena egiaztatu behar da.
5. Adierazpena ziurtagiri-programan erregistratu behar da.

KARBONO-ARRASTOAREN INGURUMEN-ADIERAZPENAK	JATORRIZKO ADIERAZPENA	ZIURTAGIRIAREN KOSTUA
 <p>CLIMATE DECLARATION www.climatedec.com/</p>		<p>EPD oso batek dituen eta gorago zehaztu diren kostu berak ditu.</p>
 <p>CARBONO FOOTPRINT OF PRODUCTS www.cfp-japan.jp/english/</p>		<p>Eskura ez dagoen edo eskaini ez den informazioa.</p>

ADIBIDEAK

LEHENGO ADIBIDEARI JARRAITUZ, VICINAY CADENAS ENPRESAREN PRODUKTUAREN KLIMA-ADIERAZPENA EKARRI DUGU HONA, «INTERNACIONAL EPD SYSTEM» SISTEMAREN ARABERA GARATUTAKO EPD OSOAN OINARRITUTA




CLIMATE DECLARATION FOR MOORING CHAIN (R5 QUALITY STEEL)

Functional unit: 1000 kg of Chain

The climate declaration shows the emissions of greenhouse gases, expressed as CO₂-equivalents. It is based on verified results from a lifecycle assessment (LCA) performed in accordance with ISO 14025.

Information about the product
This document contains the climate declaration for Vicinay Cadenas S.A.'s production of 1.000 kg of chain (constituent of R5 quality steel) from 60mm to 180mm diameter (light and heavy chain) used in mooring lines for Offshore Industry. The functional unit is 1000 kg of steel.




Company
Vicinay Cadenas S.A. was founded in 1986 from the fusion of Vicinay S.A. (chain making section) and Cadenas Y Forjados S.A. The headquarters and manufacturing plant are located in Bilbao (Vizcaya), in the north of Spain. Manufacturing plants produce chain and associated accessories. Vicinay Cadenas S.A.'s Health and Safety, Quality and Environmental policies are kept up to date and are available for inspection by any interested party. The company is certified according to ISO 9001, ISO 14001 and OHSAS 18001.

Climate declaration
The life-cycle analysed, contains the processes from the acquisition of the raw material from the supplier of steel up to the final recycling where the product is returned to its initial state as scrap metal. The life-cycle defined supposes a closed loop in which the scrap metal obtained from a recycled chain is used in the manufacturing of a new steel product.

The estimated useful life of the product is 20 years. After this time has elapsed we consider that it can then be fully recycled. Within the framework of the current study we estimate the recycling of this chain will prevent the emission to air of 1 231 kg eq CO₂.


CO₂equivalents (kg)/1000 kg of chain



Category	CO ₂ equivalents (kg)
Raw materials	1294.35
Manufacture	704.6
Delivery	119.28
Total	2118.23

Other environmental information
More information about the environmental impact of the mooring chain can be found in the complete EPD®, found on www.environdec.com.

Contact
Tomás López Alonso - Director of Integrated Management Systems, tlopez@vicinaycadenas.com




VICINAY CADENAS, S.A.
The future of mooring

www.vicinaycadenas.net

LINK TO MORE INFORMATION: WWW.CLIMATEDEC.COM/186		EPD PROGRAMME: THE INTERNATIONAL EPD®SYSTEM	
REGISTRATION NO: S-P-00186	PCR: 2002:1	PCR REVIEW CONDUCTED BY: TECHNICAL COMMITTEE OF THE INTERNATIONAL EPD®SYSTEM	
INDEPENDENT VERIFICATION OF THE DECLARATION AND DATA, ACCORDING TO ISO 14025:		ACCREDITED / APPROVED BY:	
EXTERNAL VERIFIER: ANKO MOURELLE ALVAREZ, SERUMANO, S.L.		THE INTERNATIONAL EPD®SYSTEM	
CLIMATE DECLARATIONS FROM DIFFERENT PROGRAMS MAY NOT BE COMPARABLE			
READ MORE ABOUT CLIMATE DECLARATIONS AT WWW.CLIMATEDEC.COM			VALIDITY: 2011-02-25

08

BORONDATEZKO MARKAKETAK: KUDEAKETA-SISTEMAK



Gaur egun enpresetan dagoen lehiakortasun-maila dela kausa, enpresen lan egiteko moduan alderdi garrantzitsuak —kalitatea, ingurumena eta laneko arriskuen prebentzioa, besteak beste— sistematizatzeko behar gero eta handiagoa sortu da. Horregatik sortu dira, hain zuzen ere, enpresa kudeatzeko sistemak, erakunde jakin batek alderdi batzuei dagokienez duen jarduteko modua arautzeko eta ziurtagiripean jartzeko helburuaz.

ARAUTUTAKO KUDEAKETA-SISTEMA NAGUSIAK

ARAUA	ALDERDIA	HELBURUAK
ISO 9001	Kalitatea	Bezeroaren poztasuna eta etengabeko hobekuntza.
ISO 14001	Ingurumena	Ekoizpen-prozesuaren ingurumen-kudeaketa.
UNE 150301 ISO 14006	Ekodiseinua	Diseinu-prozesuaren eta produktu edo/eta zerbitzuen garapenaren ingurumen-kudeaketa.
ISO 14064 (1-2-3)	Berotegi-efektuko Gasen Isurpenak	BEGen isurpenen zenbaketa, neurketa eta txostena. Erakundeak eta proiektuak.
ISO 14067		BEGen isurpenen zenbaketa, neurketa eta txostena. Produktuak.
ISO 14069		BEGen isurpenen zenbaketa, neurketa eta txostena. Erakundeak eta proiektuak. ISO 14064 araua ezartzea.
OSHAS 18001	Laneko Segurtasun eta Osasuna	Lan-baldintzak hobetzea.

Enpresa kudeatzeko sistemak produktu edo zerbitzu baten ingurumen-ezaugarriak frogatzeko ere erabil daitezke, betiere sistemaren irismenaren barruan ingurumenaren aldagaia dagoenean. Hala eta guztiz ere, ziurtagiriaren irismena funtsezkoa da, ziurtagiria duen enpresak ingurumenean sortzen duen arazoa murrizteko ekintzak egiten dituen edo ez interpretatu ahal izateko.

Gaur egun, enpresen joera nagusia da langile, gizarte eta ingurumenaren aurrean konpromiso ugari hartzea, eta, hala, konpromiso horiek betetzen direla egiaztatzen duten ziurtagirien kopurua handituko dela aurreikusten da. Sistema horien kudeaketa erraztearren, zenbait erakundek (ISO) horri buruzko normalizazioa aldatu dute, sistemak barneratu ahal izateko.

8.1. KUDEAKETA-SISTEMAK: KALITATEA



Borondatezko markaketak ► Kudeaketa-sistemak


ISO 9001 Arauan oinarritutako kudeaketa-sistema enpresen tresna baliagarria da erakundeetan Kalitatearen Ziurtagiri Sistema egiaztagarria ezartzeko.

PDCA etengabeko hobekuntzaren zikloan oinarrituta, ISO 9001 arauaren arabera emandako ziurtagiriak bi helburu nagusi ditu: bezeroak eskatzen dituen baldintzak betetzea, eta etengabeko hobekuntza, enpresaren beraren eginkizunak betetzean.

Ikuspegi horretatik, produktuen ingurumen-hobekuntza ISO 9001 arauaren barruan koka liteke produktuaren kalitatearen beste alderdi bat bezala, edo bezeroak eskatzen dituen baldintzetako bat bezala, alderdi hori kontuan hartzea inolaz ere nahitaezkoa izan gabe.

Hori dela-eta, enpresa batek ISO 9001 ziurtagiria izateak ez du egiaztatzen alderdi horiek kontuan hartu direnik.

PROZESUETAN OINARRITUTAKO KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMA BATEN EREDUA (UNE-EN-ISO 9001:2008 ARAUTIK HARTUA)



8.2. KUDEAKETA-SISTEMAK: INGURUMENA. ISO 14001

KUDEAKETA-SISTEMAK: INGURUMENA. ISO 14001			
 Gestión Ambiental	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
 	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
	OHARRAK:	ISO 14001	

Borondatezko markaketak ► Kudeaketa-sistemak

Ingurumen-kudeaketarako Sistema (IKS) tresnaren bidez, enpresek ingurumenaren babes-maila jakin bat erdietsi eta maila hori mantentzeko ingurumen-eraginak dituzten edo izan ditzaketan jarduerak, produktuak eta prozesuak kontrolatzean, eta, era horretan, beren jarduketetan ingurumen-eraginak minimiza ditzakete.


ISO 9001 kalitatea kudeatzeko sisteman bezala, ISO 14001 IKS oinarrituta dago PDCA etengabeko hobekuntzaren zikloan; hala ere, lehenengoaren helburu nagusia bezeroaren poztasuna da, eta bigarrenaren helburu nagusia, aldiz, ingurumena babestea eta kutsadura prebenitzea, ingurumen-alderdien identifikazioaren eta kontrolaren bidez.

Ingurumen-alderdi garrantzitsuen kontrola zehaztu behar da, eta, halaber, kontrolatzeko eta minimizatzeko helburuak finkatu behar dira.

Horretarako, litekeena da alderdi horiek identifikatu behar izatea produktu bakoitzeko (era horretan, fabrikatutako produktuaren etengabeko hobekuntza ziurta liteke). Hala ere, hori ez da nahitaezkoa, eta enpresa askok instalazioaren ingurumen-alderdi orokorrak soilik kontuan hartzen dituzte, eta, ondorioz, ezin da ziurtatu ISO 14001 arauaren arabera egiaztatutako enpresa baten produktuak fabrikatzen den produktuaren ingurumen-hobekuntzak dituela.

Gauza bera gertatzen da zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresetan. Zerbitzu horiek oso sinpleak direnean bakarrik esan liteke garatzen den jarduera ingurumenaren aldetik kontrolatuta dagoela (aholkularitza, edo bulegoko oinarritzko eginkizunak), eskaintzen duen «produktua» kontuan hartuta, baina, ez kasu guztietan, hala ere.

8.3. KUDEAKETA-SISTEMAK: INGURUMENA. EKOSCAN

KUDEAKETA-SISTEMAK: INGURUMENA. EKOSCAN			
	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAINTZEN DU:	Bai	
		Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
OHARRAK:			

Borondatezko markaketak ► Kudeaketa-sistemak

Ekoscan® Araua pribatua da. Hau da, arau honen sustatzailea den Ihobe Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak eskatuta, araua berariaz sortzeko eratu den lantalde batek idatzi eta onartu du.

Ekoscan araua erakunde hauei zuzenduta garatu da:

- Ingurumen-hobekuntzan emaitza kuantifikatuak lortzen dituztela frogatzeko gaitasuna duten era guztietako erakundeak.
- Alde batera utzita erakunde horien helburuetako bat ISO14001 ziurtagiria lortzea den ala ez.
- Alde batera utzita Ekoscan bat egin den ala ez.
- Ziurtagiri-sistema gardena eta objektiboa izan nahi duten erakundeak, beren ingurumen-egoera hobetzeko egindako ahaleginak aintzakotzat hartzea ahalbidetzeko.

Hauek dira arauaren ezaugarri nagusiak:


- Ingurumen-hobekuntzaren emaitza zenbagarriak erdiestera bideratuta dago.
- Ezargarria den legedia bete beharrekoa da gehienez ere 3 urteko epean, ziurtagiria emateko ikuskaritza egin den egunetik hasita.
- Langileen parte-hartzea sustatzen du, hobekuntza-talde bat izendatuta.
- Ingurumen-alderdiekin zerikusia duten datu ekonomikoak (kanpoko eta barneko kostuak) kontuan hartzen ditu.
- Ingurumena hobetzeko Plana ezartzearen ondorioz izandako arrakastak jakitera ematea sustatzen du.

Hauek dira Ekoscan Arauaren arabera ziurtagiria lortzen duten enpresek beren gain hartzen dituzten erronkak:

- Alde batetik, ingurumen-hobekuntzaren emaitzak lortzea urtez urte sistematizatzea.
- Ezargarria den ingurumenari buruzko legeria gehienez ere 3 urteko epean betetzen dela ziurtatzea, ziurtagiria Arauaren arabera lortzen denetik hasita. Ingurumenari buruzko legezko eskakizunak betetzen direla egiaztatuta den bigarren fase honetara iristen diren erakundeak dira Ekoscan plus Ziurtagiria lortzen dutenak.

ISO 14001 Arauarekin gertatzen den bezala, produktuaren ingurumen-alderdien identifikazioa barne egon liteke (era horretan, fabrikatutako produktuen etengabeko hobekuntza ziurta liteke). Hala ere, hori ez da nahitaezkoa, eta enpresek, gehienetan, instalazioak orokorrean dituen ingurumen-alderdiak soilik kontuan hartzen dituzte, eta, ondorioz, ezin da ziurtatu Ekoscan Arauaren arabera egiaztatutako enpresa baten produktuak fabrikatzen den produktuaren ingurumen-hobekuntzak dituela.

8.4. KUDEAKETA-SISTEMAK: EMAS

KUDEAKETA-SISTEMAK: EMAS			
	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bai	
		Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
	OHARRAK:	ISO 14001	

Borondatezko markaketak ► Kudeaketa-sistemak

1993. urtean, Europar Batasunak tresna bat sortu zuen 761/2001/EE Erregelamenduaren bitartez⁵⁸; tresna horrek ahalbidetzen du enpresak EMAS «Ingurumen Kudeaketa eta Ikuskaritzarako Europako Batasuneko Sistema» izenekora borondatezko izaeraz atxikitzea. 2001ean EMAS sisteman aldaketak egin eta gero, ISO 14000 arauetara hurbildu zen, baina estaldura zabaldu eta funtzionamendua alderdi hauetan hobetzeko asmoz:

- Enpresaren ingurumen-politikaren barruan, erakundeak bere produktuen ingurumen-eragina murrizteko burutuko dituen ekintzak nabarmendu behar dira. Ekintza horiek islatuko dira, halaber, erakundeak zehazten dituen helburuetan.
- Enpresaren ingurumen-politikaren barruan, erakundeak bere produktuen ingurumen-eragina murrizteko burutuko dituen ekintzak nabarmendu behar dira. Ekintza horiek islatuko dira, halaber, erakundeak zehazten dituen helburuetan.

Beraz, gaur egun, produktuak EMASen ezarpen-esparruaren barruan daude argi eta garbi, jarduerak eta zerbitzuak bezala, hau da, horiek guztiek dituzten ingurumen-eragin esanguratsuenak ingurumen-berrazterketa, -kudeaketa eta -ikuskapenaren sistemaren barruan sartu behar dira. Era berean, EMASeko egiaztatzaile batek egiaztatu behar ditu elementu horien eraginak, ingurumen-adierazpenaren barruan eragin horiei buruzko informazioa sartu behar da, eta duten portaera ekologikoa etengabe hobetu behar da.

Hala eta guztiz ere, identifikazio honek barnean hartzen ditu, bakar-bakarrik, erakundeak kontrola ditzakeen ingurumen-alderdiak, eta, beraz, identifikaziotik kanpo geratzen dira enpresatik kanpoko faseak (banaketa, erabilera, bizitzaren amaiera). Hala bada, ikuspegia zuzena bada ere, ez da osoa.

⁵⁸ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 761/2001/EE Erregelamendua, 2001eko martxoaren 19koa, erakundeak ingurumen-kudeaketa eta -ikuskapenaren Europako Erkidegoko sistemara (EMAS) borondatez atxikitzea baimentzen duena.

8.5. KUDEAKETA-SISTEMAK: EKODISEINUA

KUDEAKETA-SISTEMAK: EKODISEINUA			
	IRISMENA:	Produktua	Enpresa
 	MARKAKETA:	Nahitaezkoa	Borondatezkoa
	INGURUMEN-INFORMAZIOA ESKAITZEN DU:	Bai Bizi-zikloaren fasea Bizi-ziklo osoa	Ez
	BALORAZIOA/EGIAZTAPENA:	Hirugarrenek	Autoadierazpena
	OHARRAK:	<ul style="list-style-type: none"> • UNE 150301 • ISO 14006 	

Borondatezko markaketak ► Kudeaketa-sistemak

Industriako produktuen ingurumen-hobekuntzarako metodologiak (aurreko atalean deskribatu duguna kasu) erabiltzearen aldeko apustu irmoa egiten duten enpresen eskakizun nagusietako bat, mundu horretan sartzen direnean, lan horri kanpoko onespina emateko mekanismo batez baliatu ahal izatea da. Izan ere, etiketa ekologikoen bidez produktuei ziurtagiria emateko sistemak badaude ere, ez dituzte barnean hartzen merkatuko produktu mota guztiak. Hausnarketa horren ildotik, eta hainbat aukera aztertu eta gero, AENOR Espainiako Normalizazio eta Ziurtagiri Elkarteak eskaera horri erantzuteko arau bat definitzea erabaki zuen 2002an, zenbait eragile publiko eta pribaturekin lankidetzan; izan ere, bizi-zikloaren azterketa nola egin behar den⁵⁹ edo produktuen garapenean ingurumen-alderdiak nola sartu behar diren⁶⁰ erakundeei azaltzeko arauak badaude ere, ez zegoen erakundeei produktuak edo/eta zerbitzuak diseinatzeko eta garatzeko prozesuaren ingurumen-kudeaketarako elementuak eskaintzen zizkien inolako araurik. Bestalde, diseinu- eta garapen-prozesuaren ingurumen-kudeaketaren sistema horrek bete beharreko bi eskakizun proposatzen dira:

- Beste kudeaketa-eskakizun batzuekin bateratu ahal izatea, bereziki UNE-EN ISO 9001 eta UNE-EN ISO 14001 arauak ezarritakoekin.
- Erakundetik kanpoko eragileek ziurtatu ahal izatea.

2003ko ekainean onartu zen arau honek, «UNE 150.301 —Diseinu- eta garapen-prozesuaren Ingurumen Kudeaketa— Ekodiseinua» izendatuak, erakundeei ahalbidetzen die sistematika batez baliatzea, diseinatzen dituzten produktuei lotutako ingurumen-alderdiak identifikatu, kontrolatu eta hobetzeko, eta ziurtatzen du produktuak izan ditzakeen ingurumen-eraginak diseinu- eta garapen-prozesu guztietan kontuan hartu direla, murriztu ahal izateko.

⁵⁹ Hala nola, UNE-EN ISO 14040 arau multzoa.

⁶⁰ ISO/TR 14062, UNE 150060:1999 IN Txostena.

UNE 150301 Araua ISO 14006 Arauaren bidez nazioarteko esparrura zabaltzeko lanak amaitu dira, eta, beraz, bi arauak batera indarrean egongo dira aldi batean, UNE 150301 Arauaren ordez, «ISO 14006:2011 Environmental management systems - Guidelines for incorporating ecodesign» Araua ipini arte.

Ekoizpen-aldian sortzen diren alderdien kontrola eta hobekuntza ez dira arau horren helburu nagusi, bi eginkizun horiek UNE-EN ISO 14001 Arauan jasota baitaude; baina, gerta daiteke ekoizpen-tresnak edo makinak diseinatzeko/berriz diseinatzeko etapan ingurumen-alderdi horiek hobetu ahal izatea, eta kontuan hartu behar dira horregatik. Era berean, gerta daiteke bizi-zikloaren beste etapa batean sortu den ingurumen-alderdi bat hobetzean alderdi nabarmenagoak edo gehiago sortzea ekoizpen-etapan, eta hori ere kontrolatu egin beharko da.

Laburbilduta, ekoizpen-etapan sortutako ingurumen-alderdiak UNE-EN ISO 14001 Arauaren bidez kontrolatzen badira ere, alderdi horietako batzuk diseinua egitean hobetu daitezke. Era berean, kontrolatu behar da ekoizpen-etapan zer eragin duten diseinu-fasean produktuari egindako aldaketa guztiek, eta arrazoi horregatik ez da ekoizpen-etapa baztertzen Arauaren ezarpen-eremutik.

Arauaren helburua ingurumena errespetatzen duen produktu jakin baten diseinua bermatzea baino irismen zabalagokoa da. Araua betetzeak berekin du erakundea sistematika batez baliatzea, bere produktu guztien ingurumen-alderdiak identifikatu, kontrolatu eta etengabe hobetzeko eta, era horretan, teknikaren aurrerapenetara pixkanaka egokitu ahal izateko. Ikuspegi horrek, gainera, abantaila bat du: erakundearen produktuen osoko hobekuntza, hobekuntza sistematiko eta orokorrean oinarrituta, eta ez produktu bakartuen unean uneko hobekuntzan.


Beraz, atal honen hasieran adierazi dugun bezala, ez da etiketa ekologikoaren eskakizunekin nahastu behar. Nolanahi ere, Arauak bat egiten du etiketa ekologikoarekin —nahiz eta hori bere helburua ez izan—, bere produktuen diseinua etengabe hobetzen duen enpresa batek errazago bete ditzakeelako etiketa horren irizpideak.

Arauak beste berezitasun bat du, alegia: bi erakundek eskakizunak betetzen dituztenean, produktu bera diseinatu eta fabrikatu dezakete, ingurumen-alderdi desberdinak izanda, edo/eta ingurumen-garrantzi desberdinez. Horren arrazoia da lehenetsun estrategikoak desberdinak izan daitezkeela batean edo bestean. Hala bada, arau honen eskakizunak betetzeak berekin du kudeaketa arduratsua eta etengabea, ziurtagiria duen erakundearen produktu guztien ingurumen-ikuspegitik.

Lehenago adierazi dugun bezala, araua estu lotuta dago UNE-EN ISO 14001 eta UNE-EN ISO 9001 arauekin, hainbat arrazoi direla eta:

- Erakundeek bi kudeaketa-sistemak baliatzeko duten joera. Hori dela medio, eta araua erakundearen kudeaketan behar bezala sartu ahal izateko, bi kudeaketa-sistemekin bateragarria izan behar da.
- Arauak ingurumen-eskakizunak ezartzen ditu eta, ondorioz, sinergia ugari ditu ingurumen-kudeaketaren sistemekin. Hala, arauaren egitura nahiz terminologia bateragarriak izan behar dira UNE-EN ISO 14001 Arauak dituenekin.
- Arauaren bidez, diseinu- eta garapen-prozesuaren ingurumen-kudeaketa zuzena egiteko oinarriak ezarri nahi dira. Eginkizun horiek betetzen dituzten langileek, eskuarki, ezagutzen dute UNE-EN ISO 9001 Arauan oinarritutako prozesuaren kudeaketa. Hortaz, langile horiek jarduera-kontrola egiteko bete behar dituzten alderdi guztietan UNE-EN ISO 9001 Arauaren egiturari eta terminologiari jarraitzen diete. Era horretan, arau honi esker, errazago barnertuko dira ingurumen-irizpideak diseinu- eta garapen-prozesu osoan.

PRODUKTU BATI LOTUTAKO INGURUMEN-ALDERDIAK IDENTIFIKATZEKO
ETA EBALUATZEKO SISTEMATIKA BATEN ADIBIDEA



ITURRIA: Produktuaren Ingurumen Alderdiak diseinatzeko Gida – Ekodiseinuaren UNE 150301 Arau ziurtagarria garatzea. Ihobe. 2010eko abenduko edizioa.

Kudeaketa-sistema hau ezarri eta ziurtatzea baliagarria izango zaie erakundeei beren produktuen etengabeko hobekuntza-jarduerak agerian jartzeko, diseinu-etapatik bertatik hasita, produktuen ingurumen-alderdi nagusiak kontuan hartuta.

ZIURTAGIRI EKOLOGIKOAK ESKURATZEKO LAGUNTZAK

Administrazio Publikoan ere gero eta handiagoa da ingurumen-informazio eta produktu ekologiko mota honen gaineko eskaera, Kontratazio Publiko Berdeari buruzko legerietan ikus daitekeen bezala:

— EUROPA

- 2004/18/EE Direktiba, obra, hornidura eta zerbitzuen kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa.
- Kontsumo eta Ekoizpen Iraunkorrei eta Industria Politika Iraunkorrari buruzko Ekintza Plana.

— ESPAINIA

- 30/2007 Legea, sektore publikoko kontratuei buruzkoa.
- Kontratazio publiko berdea egiteko Plana, Estatuko Administrazio Orokorrarena eta bere organismo publikoena, eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileena.

— EUSKADI

- Gobernu Kontseiluak hartutako erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta bestelako kontratazio-politika publikoak erabiltzeari buruzkoa.
- 2007ko urtarrilaren 18ko Agindua, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta hari atxikita dauden edo haren mendekoak diren erakundeen kontratuak arautzen dituzten administrazio-agirietan sartu beharreko ingurumen-eskakizun eta -irizpideak ezartzekoa.

Politika horietan guztietan azpimarratzen da produktuen ingurumen-hobekuntza sustatzeko alderdi garrantzitsuenetako bat produktu/zerbitzuen bizi-zikloarekin zerikusia duten alderdi guztiei ingurumen-informazioa ematea dela, hornikuntza-katearen bitartez. Horrez gain, informazio hori kontsumitzaileengana iristeko beharra ere adierazten da, eta ingurumen-etiketen sistema bultzatzen da.

Era berean, enpresek ziurtagiri mota hori erdiestea sustatzeko, administrazio publikoa laguntzak eta dirulaguntzak emateko politikak burutzen ari da; hala ere, gutxi dira oraindik laguntza-programetan ekoetiketa-sistemen ziurtagiria sartzten ari diren administrazioak, batez ere berrikuntza edo ingurumen-hobekuntzaren alorretan. Laguntzak, gehienbat, hirugarren erakunde batek, eta I motako, II motako edo III motako etiketen inguruko ISO arauetara jarraituz, araututa dauden bondatezko sistemei ematen zaizkie.

Ondoren jaso ditugun bi adibideak laguntza mota honek izaten duen egituraren adierazgarri dira.

EUSKO JAURLARITZA: INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAREN 260/2010 DEKRETUA, ENPRESEI INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOAK EGITEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO BALDINTZAK ARAUTZEN DITUENA

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumeneko sailburuaren 2010eko urriaren 20ko Aginduaren bidez⁶¹, 2010eko ekitaldirako dirulaguntzak emateko lan-ildoak eta aurrekontu-zuzkidura gauzatu ziren.

Agindu horren bidez, autonomia-eremuko araudian lehen aldiz sartu zen ekoetiketak ziurtatzeko diru-laguntzen sail bat; hala ere, zehaztu egiten zen ekoetiketak I MOTAKOAK eta/edo III MOTAKOAK izen behar zirela, ISO arauaren arabera.

Bestalde, berritasun bat dago, alegia, ziurtagiri mota hori lortzeko diru-laguntza prozedura erraztuaren bidez eskatzen dela (lehiarik gabeko konkurrentzia. Ildo bakoitzeko erabil daitekeen aurrekontu-esleipena zatikatu egiten da aurkeztutako eskabideen artean, eta laguntzaren gehieneko zenbatekoa urteko aginduan zehaztuko da).

2011ko ekitaldirako 150.000€ esleitu ziren UNE 150301 Ekodiseinuari buruzko Araua ezartzeko eta horren arabera ziurtagiriak edo ekoetiketak emateko. Proiektu bakoitzeko eskatutako gehieneko kopurua 6.000€-koa izan zen, eta laguntza horrek kanpo-aholkularitzako zerbitzuak estali zituen.

AGINDUAREN AURREKONTU-ZUZKIDURA 2011. URTERAKO (2,31 milioi €)			LAGUNTZEN INTENTSITATEA		
Prozedura erraztua	Gehieneko kopurua projektuko: 6.000€	Ildoaren zuzkidura	Enpresa txikiak	Enpresa ertainak	Enpresa handiak
INGURUMENAREN ARLOKO KANPO-AHOLKULARITZAKO ZERBITZUAK					
Erakunde eskatzaileek EMAS Europako Erregistroa lortzea.		100.000€			
Indarrean dauden ingurumen-babesari buruzko arauak gainditzera bideratutako inbertsioak egin baino lehen, bideragarritasun tekniko eta ingurumen-bideragarritasunari buruzko azterlanak egitea, dauden teknikarik hoberenak eta/edo inbertsioaren bizi-zikloa erkaketa eginda aztertze, berotegi-efektuko gasei, lehengaien kontsumoari, hondakinen sorrerari, isurpenei eta igorpenei dagokienez.		0€	% 50	% 50	–
UNE 150301 Ekodiseinua ezartzea eta horren arabera ziurtagiriak edo ekoetiketak ematea (I motakoa eta/edo III motakoa).		150.000€			
ERP egokitzea IKS sistemara, E3L lengoaia erabilia.		100.000€			

Gaur egun itxita dago deialdi hori, urtero indarrean dagoen urteko dirulaguntzak arautzen dituen agindu berria emateko zain.

Web honetan aurki daiteke dirulaguntza honi buruzko informazio eguneratua:
www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-orokorra/es/contenidos/ayuda_subvencion/Enpresas_medio_ambiente/es_subv/indice.html

⁶¹ 2010eko urriaren 20ko AGINDUA, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 19ko 260/2010 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzetara biltzeko 2010eko deia egiten duena.

KATALUNIA: RESOLUCIÓ MAH/514/2010, DE 18 DE FEBRER, PER LA QUAL ES FA PÚBLICA LA CONVOCATÒRIA DE SUBVENCIONS PER A ECOETIQUETATGE I ECODISSENY PER A L'ANY 2010

Urteroko izaera duen ebazpena da, eta haren bidez Kataluniako Generalitateko Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza Nagusiak arautzen ditu ekoetiketak ziurtatzeko eta ekodiseinu-proiektuak garatzeko dirulaguntzak.

Dirulaguntza honek barnean hartzen dituen ekoetiketak DISTINTIU DE GARANTIA DE QUALITAT AMBIENTAL eta Europako Batasuneko ETIKETA EKOLOGIKOA dira, betiere enpresa eskatzaileek sozietate-egoitza Katalunian badute.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ingurumen-kalitatea bermatzen duen bereizgarria edo Europako Etiketa Ekologikoa lortzeko izandako gastu guztien % 75 arte estaltzen du, eta eskaera bakoitzeko gehieneko kopuruak 2.000€ eta 4.000€ dira, hurrenez hurren.

Halaber, ekoetiketa berritzeko ildo bat du, bai Distintiu bai Europako Etiketa berritzeko, eta bietarako, berritzeko izandako gastu guztien % 50 estaltzen du.

AGINDUAREN AURREKONTU-ZUZKIDURA 2010. URTERAKO (60.000€)	LAGUNTZEN INTENTSITATEA		
	Enpresa Txikiak	Enpresa Ertainak	Enpresa Handiak
Ekoetiketa lortzea			
Gehieneko zenbatekoa eskaerako:			% 75 arte
2.000€ Distintiu etiketa eskatzeko			
4.000€ Europako Etiketa Ekologikoa eskatzeko			
Ekoetiketa berritzea			
Gehieneko zenbatekoa eskaerako:			% 50 arte
1.000€ Distintiu etiketa berritzeko			
2.000€ Europako Etiketa Ekologikoa berritzeko			
UNE 150301 Ekodiseinuari buruzko araua ezartzea eta ziurtagiria ematea			4.000€

Horiez gain, departamentu berak ingurumen-kudeaketaren sistemak ezartzeko eta ziurtagiripean jartzeko laguntzak eskaintzen ditu urtero. Dokumentu hau idazteko unean eskainitako azkena «RESOLUCIÓ MAH/507/2010, de 18 de febrer, per la qual es convoquen les subvencions per a implantar sistemes voluntaris de gestió ambiental per a l'any 2010» ebazpenaren bidez atera zen.

Web honetan aurki daiteke dirulaguntza honi buruzko informazio eguneratua:
<http://www10.gencat.cat/sac/AppJava/serveis.jsp?query=subvencions>

10

ONDORIOAK

«World Resources Institute» erakundeak⁶² 2010. urtearen erdialdean ingurumen-etiketen sistemei buruz egindako txosten batean, ekoetiketa-sektoreari buruz nahiko ikuspegi osoa ematen duten datuak biltzeaz gain, emaitza hauek ere jakitera eman ziren:

- Mundu osoan 380 borondatezko ingurumen-etiketaren sistema inguru daude (ISO arauetara jarraitzen dietenekin hasi eta independenteak direnetan bukatuta).
- Sistemen % 92k erakundea ziurtatzen duen sinbolo/etiketa erabili baino lehenagoko ziurtagiri bat behar du.
- Sistemen % 66k ziurtagiria eskuratzen du hirugarren alderdi independentearen bidez.
- Ziurtagiria prozesatzeko denbora 4 hilabetetik 2 urtera artekoa izan daiteke, sistema, ziurtatu beharreko produktu eta eskatutako baldintzen konplexutasunaren arabera. Batezbestekoa 6 hilabetekoa da.
- Elikagaien sektorean, produktu ekologikoen eskaera urteko % 30 igo da, batez beste.
- Estatu Batuetako kontsumitzaileen heren bat produktu ekologikoak erosteko gehiago ordaintzeko prest egongo litzateke⁶³.
- Kontsumitzaile britainiarren % 53 iraunkorragoa den eta energia-eraginkortasun hobea duen telebista bat erosteko gehiago ordaintzeko prest egongo litzateke⁶⁴.
- Kontsumitzaile britainiarren % 44k gehiago jakin nahi luke enpresa nagusiak ingurumen-iraunkortasunaren alorrean egiten ari diren ekintzei buruz, izan ere, kontsumitzaileen % 70 ez da gauza ekologiarren ikuspegitik arduratsuen diren konpainiak bereizteko⁶⁵.
- Herritarren portzentaje handi batek uste du produktu ekologikoak identifikatzea zaila dela, gehien erabiltzen den terminologiak mesfidantza sortzen dio (ekologikoa, bio, etab.), eta beretzat oztopoa da produktu horiek garestiagoak izatea.

⁶² Global Ecolabel Monitor 2010. World Resource Institute.

⁶³ <http://www.mintel.com/press-centre/press-releases/325/mintel-finds-fewer-americans-interested-in-going-green-during-recession>

⁶⁴ http://www.ce.org/Press/CurrentNews/press_release_detail.asp?id=11649

⁶⁵ <http://www.greenwisebusiness.co.uk/news/defra-to-clamp-down-on-greenwash-and-misleading-labels-1242.aspx>

Hala bada, ikus daiteke gero eta handiagoa dela azken kontsumitzaileari produktuari buruzko informazioa emateko beharra, eta, hornidura-katearen bidez, baita merkaturatzen diren produktu eta zerbitzuen ingurumen-ezaugarriei buruzko informazioa ere.

Hala eta guztiz ere, ingurumen-aitorpena emateko sistemen kopurua gero eta handiagoa da, eta horrek zaildu egiten du gure enpresentzat egokiena den sistema aukeratzea. Arazo honi eman dakioken irtenbiderik onena enpresak prestakuntza ona izatea eta sistema batek edo besteak izan ditzakeen ezaugarriei buruzko informazioa ematea da, dauden baliabideetara eta enpresak lortu nahi dituen helburuetara hoberen egokitzen den sistema identifikatu ahal izateko.

HORTAZ, HAUEK DIRA ENPRESAK INGURUMEN-AITORPENAREN SISTEMA BAT AUKERATZEKO ORDUAN KONTUAN IZAN BEHAR DITUEN ALDERDIAK

- Enpresaren produktuaren ingurumen-arazoekin zerikusia duen sinbologia motaren baten bidez produktu hori ziurtatzera behartzen duen legeriaren bat badagoen edo ez.
- Zein den etiketaren ezarpen-eremua (tokikoa, eskualdekoa, estatukoa, mundu osokoa, etab.).
- Zer ingurumen-eskakizun bete behar diren (irismena, konplexutasuna, etab.).
- Etiketa ematen duen erakunde eskudunari emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatzen duen hirugarren alderdi independentearen beharra badagoen edo ez.
- Ezarritako baldintzak betetzeko (baliabideak, produktuaren diseinuaren alorrean jarduteko ahalmena, etab.) enpresan bideragarritasuna dagoen edo ez.
- Zeintzuk diren eskakizunak betetzeko barneko kostuak eta/edo azpikontratatzeko kostuak.
- Zein den ziurtagiriaren kostua (hasierako tasa, urteko tasa, zer alderdiren baitan dagoen, etab.).
- Enpresak ziurtagiriaren bidez lortu nahi duen helburuak bat egin behar du etiketak eskainiko dizkion irismen eta aukerekin (adibidez, helburua baldin bada produktua supermerkatuko apaletan produktu ekologiko moduan eraginkortasunez identifikatzea, baztertu egin behar da III motako ISO ingurumen-adierazpena).



Informazio gehiago nahi baduzu Ingurumeneko Etiketatze Sistemai buruz eta haien irizpide teknikoei buruz, edo sistema horiekin abalaturiko produktuen adibideak nahi badituzu, jo ezazu produktuen ingurumen-hobekuntzari buruzko atari honetara:
www.productosostenible.net

2010-2014 **EKOERAGINKORTASUN**
PROGRAMA EUSKAL ENPRESA

"Euskal enpresaren etorkizunarekin konprometitua"